

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2011. urteko jardueren
memoria





AURKIBIDEA

• AURKEZPENA	1
• BIZI BALDINTZA MATERIALAK	
1. ETXEBIZ-HITZA PLATAFORMA	3
2. GAZTERIA ETA ENPLEGUA JARDUNALDIAK	6
3. GAZTEAK ETA ALTERNATIBA EKONOMIKOAK	10
4. LAN OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA	11
5. LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA	13
6. GAZTEAK, HIRIGINTZA, LURRALDE ANTOLAMENDUA	14
7. OINARRIZKO ERRENTA SAREA	17
8. TAILERRETIK LANDARA	18
9. GIZARTE ERAGILE ETA EKIMENEKIN ELKARLANA	20
10. INTERLOKUZIO POLITIKOA	21
11. POSIZIONAMENDU PUBLIKOAK	22
12. BARNE KOORDINAZIOA	24
• HEZKUNTZA	
1. HEZKUNTZA EZ FORMALA	25
2. HEZKUNTZA FORMALA	45
• JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK	
1. KULTURARTEKOTASUNA	48
2. GENEROA ETA BERDINTASUNA	56
• KOMUNIKAZIOA	
1. KOMUNIKAZIO KANPAINAK	65
2. BESTE KANPAINA BATZUK	97
3. KOMUNIKAZIO PROIEKTUAK	105
• LURRALDE TASUNA	
1. GAZTERIA POLITIKEN EAEko MAPA: GAZTELINK	123
2. EGK –KO ELKARTEETIKO LANA	127
3. EAE-KO ELKARTE SAREAK, ERAGILEAK	132
4. EAE-KO ADMINISTRAZIOETAKO GAZTERIA SAILEKIN LANA	141
5. LURRALDERANTZ	149
6. EGUNEROKOTASUNA	151
7. EGK-REN 25. URTEURRENA: GAZTEAZAROA	153



- **EGKko PRESIDENTZIA**

1. BARNE KOORDINAZIOA	154
2. ERAKUNDE GARAPENA	156
3. ERAKUNDEEIKO ELKARLANA	157

- **EGKko 2011ko MEMORIA EKONOMIKOA**

1. 2011. URTERAKO ONARTUTAKO AURREKONTUA	158
2. KONTROL EKONOMIKORAKO BATZORDEA (BARRUKO AUDITOREAK)	160
3. 2011. URTERAKO BALANTZE EKONOMIKOAREN IRUZKINAK	160
4. 2011. URTEKO BALANTZE EKONOMIKOA	162

- **ERANSKINAK**

B.B.M. 1 ERANSKINA	166
H.1 ERANSKINA	168
B.1 ERANSKINA	171



0. AURKEZPENA

Dokumentu honetan 2011. urteari dagokion EGKren memoriaren berri ematen da. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, bere proiektuak eta ekintzak xede bat lortzeko bideratzen ditu, hau da:

“Gazteen bizi baldintzen osoko hobekuntzaren alde egitea, parte hartze sozialaren sustapenaren bitartez eta erantzunkizun publikoa oinarritzat hartuz.”

Helburu orokor hau lortzeko, sei lan ildo estrategiko zehaztuta ditu Kontseiluak:

- Barne funtzionamendu egokia bermatzea.
- Era askotako eragileentzako erreferente eta berrikuntza iturri izatea, gazteria eragileentzako batez ere.
- Gazte elkartegintza mugimendua sendotzea eta baita pertsona gazteen parte hartzea bultzatzea ere.
- Gazteria politika publikoen hobekuntzan are gehiago eragitea.
- Pertsona gazteek euren hiritartasuna egikaritu dezatela bultzatzea.
- Eredu partehartzaile eta eraldatzaileen bitartez gizarte bidezkoagoa eraikitzen laguntzea.

Ildo hauek sei lan arlotan lan egiten garatzen dira, zehazki hauetako bakoitzean martxan jartzen diren proiektuak aurrera eramanez:

Hezkuntza

- . Formala
- . Ez formala (Astialdia)

Bizi Baldintza Materialak

- . Osasuna
- . Enplegua
- . Etxebizitza
- . Landa eremua

Justizia eta Berdintasunerako Baldintzak

- . Genero arteko ekitate eta berdintasuna
- . Kulturartekotasuna
- . Gatazken ebazpena eta biolentzia eza
- . Herri txirotuak eta aberastuak

Komunikazioa

Lurraldetasuna

Barne Koordinazio Teknikoa



Memoria honetan 2011. urtean EGK-k bere lan arlo ezberdinetatik EAEn burutu dituen proiektuen azalpena ematen da, lortu diren helburuak aipatuaz eta etorkizunari begira izan dezaketen jarraikortasuna azpimarratuaz.

Zerrendatu diren ekintza gehienetan EGKko kide diren elkarteek babesa izateaz gain, esparruan lanean diharduten eta haur eta gazteen sailean paper garrantzitsua jokatzen duten beste hainbat eragile ere aritu dira. Beste batzuetan aldiz, teknikoagoa izan den lana burutu da, EGKk horretarako duen lantalde teknikitik landuta. Erronka elkarteak, mugimenduak, plataformak etab. EGKren jardueran geroz eta gehiago inplika daitezten lortzea da. Haien aldetik geroz eta eskaera eta erantzun handiagoak jasotzea, gazte mugimenduari behar duen zerbitzua eman ahal izateko, haien eskaerak bideratzeko, modu koordinatuan arazoak gainditzeko eta Administrazio publikoekin bitartekari lana egiteko.



1. BIZI BALDINTZA MATERIALAK

“Gazteon autonomia pertsonal zein kolektiboa, lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuak eta etxebizitza eskubidearen ukazioak bultzatuta, geroz eta beranduago eskuratzen dugu. Independentzia materialaren gaineko haustura hau, bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakar, eta gazteon hiritartasuna guztiz ahultzen du. Gehienetan familiarekiko dependentzia ekonomikoa urteetan zehar luzatu eta jendarte-komunitatean jokatzeko dugun rola erabat mugatzen da.”

BBM arloak, gazteon errealitate honi erantzuten dioten elementu ezberdinak biltzen ditu bere baitan: Etxebizitza, enplegua edo lana, gizarte ongizaterako baliabideak, lurralde eta espazio publikoaren antolamendua,... Guztiak, gazteon independentzia materialean, askatasunean eta bizitza kalitatean bere biziko garrantzia duten alorrak dira. EGK, arloaren garrantziaz jabetuta, urteak daramatza ildo hau jorratzen eta aberasten. Azken urte hauetan, hauxe izan da lan esparru honen helburu orokorra:

Arloan oinarritzeko diren gaien gaineko barne lana eta hausnarketa bideratu eta sendotu, beste eragileekiko lana irekiz eta indartuz, baita EGKren iritzia eta ekarpena administrazioan eta erakunde politikoaren aurrean egon dadin bermatzea.

1.1 Etxebiz-Hitza plataforma

Deskribapena

EtxebizHitza plataforma ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN inguru lan egiten duen hiru lurraldeetako eragilez formatutako plataforma bat da. Bertan, EGKk eragile bat gehiago bezala parte hartzen du, baina bada koordinazioa eta dinamizazioaren arduradun ere bada, batz bestea hilabeteetan behin ematen diren bilerak Bilboko egoitzan jasoz, bilerak dinamizatuz, aktak jasoz, gai ordena zabalduz, deialdiak irekiz eta gauza teknikoetaz arduratuz.

Helburuak

ETXEBIZITZA LEGEA ETA ETXEBIZITZA POLITIKAK AZTERTU: Legebiltzarrean lantzen ari den ‘Etxebizitza Legea’ eta administrazio ezberdinetako etxebizitza politikak eta beste erreminta eta dokumentuak plataformako kideon artean aztertu, erantzun koordinatu eta aipamen propositiboak bideratu.

ETXEBIZITZA ESKUBIDE LEGE BATERAKO OINARRIAK ADOSTU: Etxebizitza eskubidea bermatzeko neurrien inguruan eztabaidatu, ideiak partekatu eta lantzen ari den legearen aurrean alternatibak eraiki, benetan etxebizitza eskubidea bermatuko lukeen Etxebizitza Lege batek jaso beharreko neurriak adostu plataformako eragileon artean.



Ekintzak

ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA: 2010/2013

- Plataformaren barruan Planaren azterketa bideratu zen
- Planaren lurperaketa: aztertutakoarekin, plan zuzentzaile honek aurkezten dituen puntu beltzen salatuz Manifestu bat idatzi zen eta lurperaketa bat irudikatzen zuen kaleko ekintza baten bidez gizarteratu zen salaketa.
- Sinatzaileak: EGK, kepasakonlakasa, ELA, LAB, STE-EILAS, ESK, Berri Otxoak, Elkartzen, Sare Antifaxista, Ezker Gogoa.
- Prentsan oihartzun handia: 2 egunkaritan, 7 irratisaiotan, 2 telebista saiotan eta interneten (egunkari digital bat eta hainbat blogetan).



ETXEBIZITZA LEGEAREN PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN PARODIA

- Etxebizitza legearen erredakziorako administrazioetik bideratu zen CONTIGO HACEMOS VIVIENDA prozesu 'parte-hartzailea'-ren hutsuneak eta bereziki benetako parte hartzea bermatu ez zuela salatzeko prentsa-aurreko parodiatu bat egin zen.
 - Honez gain blog bat ere bideratu zen CONTIGO HACEMOS DINERO izenpean, lege prozesuaren azterketa eta salaketa bideratzeko.
- [<https://etxebila.wordpress.com>].**
- Prentsan 2 egunkaritan eta telebista batean



ETXEBIZITZA LEGE BERRI BATENTZAKO NEURRIEN DEKALOGOA

Etxebizitza eskubidea benetan bermatzen duen lege baten beharrean egonda eta administrazioetik bideratzen diren neurriak bide onean ez doazela ikusita, plataformako kideon artean modu honetako lege batentzako oinarri eta neurriak adostu eta bateratzea erabaki zen, Legebiltzarrean hartutako erabakiekin konparatu eta proposamen gisa luzatu ahal izateko, nortasun propositibo eta positiboarekin.

- Plataforman dekalogoak adostu eta editatu.
- Dekalogoak kaleratu eta berori atxikimenduak bilatu: plataformako 7ak eta 20 kanpoko elkarte.
- Hurrengo pausuak zehazten ari dira orain, baina otsailerako jardunaldi batzuen barruan dekalogoaren aurkezpen publiko bat eta legebiltzar edo batzordearen aurrean aurkeztea aurrikusten da.
- **BBM.1.eranskinean** ikus daiteke dekalogoak.



SOSTRE CÍVIC HITZALDIA + DEKALOGOAREN GIZARTERATZEA

International Alliance of Inhabitants nazioarteko plataformak koordinatutako eta EtxebizHitza plataformak sinatutako 'nazioarteko habitat jardunaldien' barruan, Urriaren 17an Donostiako CRAJ aretoan arratsaldeko 19.30tan antolatu zen dekalogoaren gizarteratzea eta formazio saio bat.

- Gizarte eragileei dekalogoak aurkeztu zitzaizkien.

- SOSTRE CÍVIC Kataluniako erabilera etxebizitza kooperatibako

kide baten hitzaldia jaso zen, zeinek lurzoru publikoa maileguan erabiltzen duten etxebizitza kooperatiben sistema [Andel eredua] azaldu zuen.

- 26 ikusle, haietariko 5 Bilbotik mugitutakoak. Eztabaida moztu behar izan zen aretoak itxi behar zuelako, beraz, ebaluaketa oso ona.

- Hizlariari ere Gazte Borrasten egin zitzaion elkarriketa.



LEGEAREN ERRITMOA LEGEBILTZARREAN JARRAITU

Legearen erritmoaren gainean egon, aldaketarik egon ezkerro erreakzionatzeko. Dirudienez nahiko geldi dago eta gure erritmoa jarrai dezakegu. Dekalogoak legebiltzarrean eta alderdi politiko ezberdinei aurkeztea da helburu datorren urterako.

Hartzaileak

Plataformako kide eguneratuak: ELA; LAB; STEE_EILAS; ESK; kepasakonlakasa; Berri Otxoak, Elkartzen, EGK

Jarraipena eta ebaluaketa

Proaktibiateta, hartutako ardurak: Plataformaren dinamizazioa eta bultzada EGK-k darama, hala ere, plataforma kideek hartutako ardurak ere nabarmenak dira, beraz balorazio oso positiboa egiten da.

Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea

- Bilerak: batz bestea, bat hilabeteko. Erreleboak izan direla eta zenbaitetan bilerak komunikazio edo Bizkaiko koordinatzailearen esku egon dira

- Bileretako parte hartzaileak: ELA; LAB; STEE_EILAS; ESK; kepasakonlakasa; EGK

- Mobilizazioetako parte hartzaileak: LAB; Kepasakonlakasa, ELA; STEE-EILAS, ESK, ELKARTZEN, BERRI OTXOAK (gehien bat kalean bat egiteko) eta EGK.

- Kolaboratzaile hurbilak: Ezker Gogoa, Caritas, EDE, Gazteleku, Argilan



1.2 Gazteria eta enplegua IV. jardunaldiak

Deskribapena

Aurreko hiru urteetako jardunaldiekin jarraituz, aurten ere Gazteria eta Enpleguaren inguruko eztabaida eta formazio saio batzuk antolatu dira 'ETORKIZUNERAKO EREDU BERRIAK ERAIKIZ' lelopean, bi helburu zehatzekin: gazteen lan prekarietatean adinaz gain, beste zeharkako lerroek daukaten eraginaren azterketa (sexua, jatorria...) eta 'enplegu merkatua' deritzon gaur egungo sistema honen gainetik eraiki daitezkeen beste eredu eta proposamenak eztabaidatu.

Jardunaldi hauen zergatia aurreko urteetan hantzemandako arrazoieta oinarritzen da:

- Gazte enplegu politiken inguruko formakuntzan gabezia nabarmena dago, bai pertsonal teknikoaren zein gazte eragileen partetik.
- Gaiaren inguruko hausnarketarako eta eztabaidarako espazio falta nabarmena da.
- Gazte politiketan inplikatura dauden eragile ezberdinen arteko harremanean sakontzeko beharra ikusten da.

Baina hauetaz gain, azken urteetako lan erreformek eta gazte enplegu politikek hartu duten bidearen azterketan ere oinarritzen da, izan ere, gazteriaren enplegua 'sustatzeko' hartu eta hartzen diren neurriak gazteen eskubideen murrizketan oinarritu baitira [soldata baxuagoak, kotizazio eza, egonkortasun eza, gainformakuntza, praktika epeen luzaketa, behin behineko kontratuen lotura...]. Horrela ba, gure eskubideak murriztu ezean mantendu eta gehitzen dituzten ereduak aztertzea beharrezkoa dela ikusi da.

Aurrekariak

(2008)**Ahotik At! 4.zenbakia LAN PREKARIETATEA**

(2008)**GAZTERIA ETA ENPLEGUA I. ¿SEGUIMOS JUNTOS, NOS DAMOS UN TIEMPO O LO DEJAMOS?**

(2009)**GAZTERIA ETA ENPLEGUA II. ¿NOS SALIMOS DE LA FILA? ALTERNATIVAS PARA UNA POLÍTICA DE EMPLEO JUVENIL**

(2010)**GAZTERIA, ENPLEGUA ETA EKONOMIA ALTERNATIBOA**



Helburuak

EGK BARRUKO LAN TALDEA ETA ENPLEGUAREN GAIA INDARTU

EGK barruko enplegu lan taldeari jarraipena eman eta elkarre-eragile gehiagori zabaltu nahi izan da, gazteria, enplegua eta ekonomia solidarioaren gaia EGKko lan ildo bezala indartuz.

FORMAZIOA ETA EZTABAIDA

Gazteria eta enpleguaren inguruko politiken inguruan hausnarketa, formazioa ahalbidetu eta alternatibak sortzeko aukera eman. Komunikabideek barneratu arazten diguten eta naturalizatzen duten 'enplegu merkatuari' aurre eginez, gazteon eskubide sozioekonomikoen murrizketan oinarritzen diren aldaketen aurrean alternatibak aurkeztuz.

ERAGILEEN ARTEKO HARREMANA

Gai hau jorratzen duten eragile ezberdinen arteko harremana sendotu eta datorren urteetarako elkarlana sustatu.

MATERIAL PROPIOA GARATU

EGKren baitan material propioa garatu.

Ekintzak

GAZTERIA ETA ENPLEGUA // ETORKIZUNERAKO EREDU BERRIAK ERAIKIZ

Azaroaren 22an, EGKren 25.urteurrenaren antolakuntzaren barruan, Gazteria eta Enplegua IV. Jardunaldiak eman ziren, goiz eta arratsalde antolatuak, Boluntan.

- Goiz partean Lan-Prekarietatearen eragin eta zergatia aztertu zen, bai adin, sexu eta jatorriak diren zeharkako lerroen eraginean zehaztuz. Honetarako formazio saio bat antolatu zen Mertxe Larrañagaren eskutik, gero lan taldean eztabaida bideratzeko.

- Arratsalde partean Ereduek ezberdinak aztertu nahi izan ziren, eta horretarako mahainguru bat antolatu zen lau gairekin: emakumeen duintasun sozioekonomikorako oinarriak, hiri-herriartasun oinarritzko errenta, flexiseguritatea eta beste proposamen antzekoak eta desazkundetik eratorritako 21 orduen proposamena (NEF informea).





*Oinarrizko Errentaren lan ildoak jarraipenik edukitzeko honako jardunaldietan sartu izan da, berezko lan ildorik eduki gabe ere, landu gabe geratu ez zedin.

TXOSTENA ETA MATERIAL PROPIOA

Jardunaldietako lan talde eztabaida prestatu ahal izateko barne materiala landu behar izan zen, zeinen parte batekin batera eta jardunaldietan aurkeztutako punturik nabarmenenekin bat txosten txiki bat aurkeztu den. Txosten honek gazteriaren enpleguaren zenbait datu estatistiko jasotzen ditu.

Honez gain, barne materialaren artean txostenetik kanpo geratutako zenbait datu, gazte enplegua 'sustatzeko' formulen analisi xume bat eta dokumentazioa geratzen da.



Hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldea (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak eta JOC) eta EGK barneko beste elkarteak.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte taldeak.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Udaletxe, Foru erakunde eta gobernuko enplegu eta gazte arloetako arduradun politikoak.
- Jendartea oro har eta gazteak bereziki.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

GAI ALDAKETA

Lan taldeen gora beherak, teknikarion erreleboak eta enplegu arloan, bai legerian bai araudian, eman diren azken aldaketak direla eta IV.eko jardunaldiek jorratu beharreko gaiaren aldaketak bultzatu ditu.

Hasiera batean ekonomia alternatiboarekin jarraitzea planteatu bazen ere, lan taldearen jarraipen ezak eta emandako erreleboak bertan behera utzi zuten gaia. Honi, udaberri-uda aldera egindako legeriaren zenbait aldaketa lotuta, gaia alde honetatik jorratzera jo zuen, prekarietatea eta eredu berriak landuz (ez ekonomiarenak, baizik eta zehatzago lan munduarenak).

PARTE HARTZEA

- Lan taldearen erantzuna: EGKko enplegu talde motorea berreskuperatzeko saiakera bat egin zen, baina elkarteek eta parte hartzaileen erantzun ezak talde hau irekitzera bideratu gintuen. Horrela ba, EGKko elkarte denei ireki zitzaion berriz ere deialdia, baina erantzun berarekin.

Horrela ba, ekintza talde teknikitik soilik bideratu zen ekintza hau, jardunaldien parte-hartzaileekin zenbait bilera bideratuz eta kanpoko ekarteetara hurreratuz.

- Jardunaldietako parte-hartzea: parte hartzea ez zen oso ugaria izan, bai baina aktiboa eta aberatsa. Jardunaldiak soilik hauteskundeak eta bi egun geroago izanda elkarte asko, gehien bat sindikatu eta alderdi politikoetakoak, etorri ezinean zebiltzan, beraz, parte hartzerik nabarmenena banakakoena eta Bilboko gazteria teknikariena (4) izan zen.

JARDUNALDIEN EDUKIA/TXOSTENA

Gazteria eta enpleguaren inguruan datuak jasotzea ez da gauza erraza, bai erakunde bakoitzak gazteon adin tarte ezberdinak hartzen dituelako, askotan adierazgarriak ez direnak eta beste askotan batz bestekoaren barruan sartzen dituztelako, baina honez gain, datuak adin, sexu eta jatorriagatik banatuta lortu nahi direnean are zailagoa gertatzen da [adibidez, Eustatek ez dauzka adin eta jatorriz banatuta]. Honegatik, argitaratutako datuetan informazio interesgarria eratortzen bada ere, ez dira nahi beste datu lortu eta hurrengotan barne dokumentazioa lantzen jarraitu beharko da.



1.3 Gazteak eta alternatiba ekonomikoak. Ahotik at!

Deskribapena

Proiektu hau Gazteria, Enplegua eta Ekonomia Solidarioaren inguruko 3. jardunaldien ondorioak behar bezala garatu eta zabaltzeko burutuko da. Komunikazio arloan urtero egin den bezala, zenbait gaien inguruan monografikoak egiten dira Ahotik at! izeneko edizioan. Arloen arteko elkarlanarekin burutuko da beraz, Komunikazio teknikariarekin eta Bizi baldintza materialeko teknikariarekin besteak beste.

Puntu hau bertan behera utzi behar izan da aurten, aurrerago berreskuperatzea baliogabetu gabe. 2011 jasotako mozketen ondorioz Ahotik at! bakarra kaleratu ahal izan da, eta EGKren 25.urteurrena izanik beroren inguruan egitea erabaki da, Gazteak eta alternatiba ekonomikoak etenez.



1.4 Apirilaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna

Deskribapena

Lan osasunaren nazioarteko egunaren testuinguruan, gazte prekarietatearen inguruko posizionamendu publikoa egin da.

Iaz EGKko elkarteekin minimoen taula egin bazen ere, aurten lan taldea arlo honetan lanean diharduten beste eragileei ere zabaltzeko helburua ezarri zen. Guztiekin bat manifestu bat adostu, bertan minimoak jasoz eta zabaldu zen. [Ez zen ikusi ekimen publiko bat egitearen ideia, aste santuko oporrekin bat egiten zuelako eta egun horretan nahiko egitasmo gonda beste bat abian jartze zentzu gutxikoa zela hausnartuz].

Helburuak

EGK-REN DISKURTSOA ETA POSIZIONAMENDUA ZABALDU

EGKren diskurtsoa - posizionamendua azaldu eta zabaldu lan istripu eta prekarizazioaren inguruan. Gazteriak pairatzen duen prekarietate egoeraren arrazoiak zabaldu eta gaur egungo enplegu merkatuaren ereduaren hutsuneak azpimarratu.

INSTITUZIOEN ARDURA INTERPELATU

Bai arriskuen prebentzioan, bai enpleguen baldintzetan eta baita baldintza hauen burutzean instituzio eta administrazioek duten ardura interpelatu.

ELKARLANA BESTE ERAGILEEKin

EGKko elkarteek gain, beste eragileak hurbildu eta denekin azaldu beharreko minimoak aberastu eta adostu, gero jendarteratu eta eragile gehiago txertatzeko.

Ekintzak

MANIFESTUA KALERATU

- Dokumentu base baten erredakzio eta garapena egin zen EGKtik, aurreko urtean landutakoan sakonduz.
- Dokumentu hau beste elkarteekin landu zen berrikuntzak eta moldaketak barne sartzeko eta babes zabala bilatzeko.
- EGKren hedabide propioen bitarrez (webgunea, Berriz Berri eta posta elektronikoa) txostena ezagutarazi. Honez gain, minimoen taula eta EGKren diskurtsoa komunikabideen bidez zabaldu zen.

Hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.



Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA

2011/04/11an egin zen bileran LAB eta ESK egon ziren. Gaiaren inguruan zeukaten ezagutza hurbilak EGKtik bideratu den dokumentua aberastu da. Honen erredakzioan eragile askok parte hartzeko aukera izan dute. Modu honetan, errealitate ikuspegi zabalagoa txertatu da eta islatu da. Gainera, aurrerantzean elkarlanerako hainbat aukera ikusi dira.

DOKUMENTUA SINATUTAKO ELKARTE KOPURUA

Berri Otxoak, ESK, Ezker Gogoa, LAB, Sare Antifaxista, Atsedeen taldeak, Atsedeen Eskola, Gazte Komunistak, Ezker Batua Gazteak, Pastoral Obrera, JOC



1.5 Lan istripuen protokoloa

Deskribapena

Proiektu hau Presidentzia eta Komunikazio Teknikariarekin batera garatu da. Egitasmoa lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean adierazpen publikoa egitean datza. Apirilaren 28an (Lan Istripuen Kontrako Nazioarteko Eguna) eta lan istripu baten kausa gazte bat hiltzen denean adierazpen publiko bat egitean hain zuzen ere.

EGKk dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egin da prentsa ohar baten bitartez.

Helburuak

LAN ISTRIPU HERIOTZAK SALATU

EAEn, 16 eta 30 urte bitarteko gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egitea, EGKren berezko bitartekoen bidez eta batez ere komunikabideen bitartez.

GAZTEON LAN PREKARIETATEA SALATU

Gazteok bereziki pairatzen dugun prekarietatea salatzea eta lan segurtasun eta enplegu politikek suertatzen dizkiguten bizi-arriskuak azpimarratzea.

Ekintzak

Urtean zehar ematen da hau. Besteak beste, Gipuzkoan hauek eman dira:

- 2011.01.31_Lezama_26 urte
<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/135/Gazteriaren%20Kontseiluak%20lan-istripuz%20zendu%20den%20gazte%20arabarraren%20heriotza%20gaitzetsi%20du.html>
- 2011.06.28_Zumaia_30 urte [bi egunkaritan oihartzuna]
<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/188/Lanpostuan%20zendu%20den%20gaztearen%20heriotza%20salatu%20du%20Gazteriaren%20Kontseiluak.html>
- 2011.09.05_udako gazte lan-heriotzen salaketa egiteko artikulua
http://paperekoa.berria.info/iritzia/2011-09-04/006/001/uda_beltza_langile_gazteentzat.htm

Hartzaileak

- EGKko elkarteak
- Jendartea orokorrean eta gazteria konkretuki.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Protokoloa bete da eta oihartzun nahikoa izan du, batez ere prentsan eta irratian ere. Uda aldera eman ziren heriotzen salaketa irailean publikaturiko artikulua batean salatu ziren, protokoloa martxan jartzeko denborarik ez zelako izan.



1.6 Gazteak, hirigintza, lurralde antolamendua eta parte hartzea

Deskribapena

Lurralde Antolamenduak gure lurraldean egiten den oro arautzen du eta antolamendu sozioekonomiko baten islada ere bada. Arauketa hau egiteko erabiltzen dituen erremintak Lurralde Antolamendu Artezpideak (LAA) dira, eta berauek erabaki dezakete gure etxe ondoko mendia abiadura handiko trena pasatzeko zulatu daitekeen, herrian harrobirik zabaldu daitekeen, kostaldean beste portu erraldoi bat egin daitekeen, gure larreak etxez, eraikinez eta errepidez josi daitezkeen eta mendiak generadore eolikoak landatu daitezkeen besteak beste.

Gaur egun Artezpide hauen aldaketa habian dago baina berriro ere, gizartearen partaidetzarako lekurik ez da egon. Horrela ba, gai honen inguruan gizarteak zer esana badaukala aldarrikatzea beharrezkoa da, eta horregatik EGKren 25. urteurrenaren programazioaren barne formazio eta eztabaida saio hauen antolaketa, non Lurralde Antolamendua Birplanteatu eta eredu berri bat plazaratu nahi izan den, aurretik eginiko lanarekin jarraituz.

Aurrekariak

(2009) LURRALDE ANTOLAMENDU ARTEZPIDEAK

Eusko Jaularitzatik LAAen (erdaraz DOT) berrikuspen bat prestatzen ari zela eta, EGKtik eta beste eragile batzuekin elkarlanean ordeko dokumentu bat idatzi zen.

(2010) PLANOETATIK KALERA / HIRIGINTZA, ESPAZIO PUBLIKOA ETA PARTE HARTZEA

Gazteek abian jarritako ekimen eta proiektuak abiapuntutzat hartuta, hirigintza parte hartzailean oinarritutako esperientzia ezberdinak ezagutzera eman ziren 2010ean, gazteak, hirigintza eta parte hartzeari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatuz

Helburuak

GAIA GIZARTERATU ETA PARTE HARTZEA ALDARRIKATU

Lurralde Antolamendua gizarte eztabaida bezala kaleratu, zer den eta zertan eragiten duen gure bizitzan uler dezagun. Gizarteak eta bereziki gazteok gure lurraldearen, gure gizartearen oinarri eta islada den lurraldearen antolamenduan badaukagula zer esan aldarrikatzea.

BESTE ERAGILEEKin ELKARLANA

Lurralde Antolamenduak eragina daukan gaietan lan egiten ari diren gizarte mugimendu eta eragile ezberdinak kontaktuan jarri, haien lana ezagutarazi eta elkarlana sustatu.

GAIAN SAKONTZEA

Aurretik egin diren hausnarketetan sakontzea eta beste eragileekin batera gaur egun ematen den garapen ekonomiko bortitzaren logikatik aldenduta eta gizakion zein gure lurraldearen ongizatearen ikuspuntutik begiratutako lurralde antolamendurako beste eredu bat plazaratzea.



Ekintzak

PLANOETATIK KALERA: LURRALDE ANTOLAMENDUA BIRPLANTEATZEN

EGKren 25. urteurrenaren barruan

DONOSTIA // azaroaren 4ean // CRAJ

BILBO // azaroaren 15ean // LA BOLSA

GASTEIZ // azaroaren 17an // MONTEHERMOSO

- Arratsaldeko ordutegian, hiru atal ezberdinetan antolatu zen:

hitzaldia

Euskal Herriko lurralde antolamenduaren egoera eta erronkak.

[Joseba koldobika Arbaiza. Geografoa]

mahaingurua

Lurralde bakoitzean lurralde antolamenduarekin zerikusirik duten gaiekin lan egiten duten elkarte eta eragile ezberdinak

[azpiegiturak eta garraioa]

[hondakinen kudeaketa]

[elikadura subiranotasuna]

[arte eta kulturaren deszentralizazioa]

[energia nahikotasuna]


tailerra

Lurralde Antolamendu Artezpide alternatiboak [DOT Desazkundea taldeak dinamizatu]

- Donostiako jardunaldia guztiz euskaraz burutu zen eta Bilbo eta Gasteizkoak elebitan.
- Hizlariari ere Gazte Borrasten egin zitzaion elkarriketa.

ONDORIO TXOSTENA

Jardunaldietan jaso izandako iritzi, ekintza eta esperientziak islatzeko ondorio txosten bat argitaratu da, bai hitzaldia, tailerreko eta mahainguruetan parte hartutako kide batzuen aportazioak jasoz. [http://www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_73.pdf]






DOT LAN-TALDEAREKIN ELKARLANA

Orain Lurralde Antolamendu Artezpideak berrikuzten ari direla eta berriro ere gizartearen parte hartzerik egon ez dela eta onartu beharreko dokumentuak 1997ko oinarri berak mantentzen dituztela, paradigma ekonomiko desarrollista berberan mantenduz, Desazkundetik bultzatu eta koordinatutako DOT lantaldea bizi handia hartu du. Horrela ba, lan talde honen barruan zenbait dokumentu landu dira, besteak beste, Lurralde Antolamenduaren informazio triptiko bat, Euskal Hiria. NET dokumentuaren hausnarketa edo Lurralde Antolamendu Artezpide alternatiboak.

- EGKk lantaldean parte hartzen du, aurreko urtetako planteamendutan sakonduz eta gazteria zeharkako lerro bat bezala txertatuz.

Desazkundera eta Lurralde Antolamendua

De la Euskal Hiria a la cohesión territorial



Hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gazte talde eta eragileak.
- Gai hauetan eskumena duten teknikariak eta politikariak
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

Jarraipena eta ebaluaketa

JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

- Lurralde bakoitzean parte hartzea oso ezberdina izan da, baina orokorrean oso ona eta espero baino zenbakitsuagoa. Hala ere, jardunaldi bakoitzaren luzeeragatik joan etorri asko egon ziren, zenbaki zehatz bat ematea zail eginez.
- Donostian 25 bat pertsonek // Bilbon 20 bat pertsonek // Gasteizen 15 bat pertsonek parte hartu zuten. Perfil oso ezberdineko pertsonak izanda (gazte antolatuak, udal teknikariak, arkitektoak, ikasleak, gazteak...) eztabaida sortu eta ikuspuntu ugari plazaratu ziren, gai ezberdinak jorratuz lurralde bakoitzean.
- Honez gain, jardunaldien martxan jartzearekin elkarrekin eta eragile ezberdinekin kontaktatu izan zen, hurrengoetarako elkarlan aukerak aztertuz.

DOT LAN TALDEAREN EKINTZAK

Bilbon bilerak batz besterik hila betean behin izanik eta abendu aldera DOTen berrikuspenaren abiadurak bultzatuta areagotuz, lantalde honen aktibitatea handia izan da, bai bilera kopuruan, bai dokumentuen egiketan bai aurkezpen publikoetan.



1.7 Hiritartasun Oinarrizko Errenta Sarea

Deskribapena

2008an EAE mailan Oinarrizko Errentaren inguruan gizarte mailako eragile ezberdinekin batera (Ezker Gogoa, EHNE, ESK, Gazte Berdeak, Argilan, Txiroekin Bat Eginez, EHU) hasitako ibilbidearen ondorioz, eta 2009ko Simposiumaren antolaketan jaiotako elkarlanaren ondorioz, lan talde egonkorrago bat osatzea izan da helburua aurreko urtean. Hala ere, EGKren barneko erreleboak eta gainontzeko eragileen gainkarga dela eta ezin izan da bete. Horrela, 2011an helburu hori berreskuratu eta betetzea ahalbidetu nahi da.

Aurrekariak

(2008) **Oinarrizko Errenta Sarea.** Martxan jartzea eragile ezberdinekin.

(2009) **Oinarrizko Errenta Sinposiuma.** Antolakuntzan elkarlana.

Helburuak

SAREA FINKATU ETA ERAGILEAK GEHITU

Sarea eta abiatutako lan dinamika finkatu. Berau aurrera eramateko beharrezkoak diren ardurak eta jarrerak hartuz. Lan prozesuan zehar gizarte eragile gehiagorekin kontaktatu eta ahal izanez gero gaiaren inguruan formazio mintegiak burutu.

Ekintzak eta jarraipena

Sare honen dinamizazioa ESKtik doa eta ez da aurtengo ekintzarik bideratu, bertan parte hartzen dugun eragileon lan karga handiagatik. 2012ko urte hasieran ekintzaren bat aurrera eramatea aurrakusten da, baina sarea ahul dago.

Hala ere, eta lan ildoak guztiz ez galtzeko, Gazteria eta Enplegua jardunaldietan antolatutako mahainguruaren barruan sartu izan da, Hiritartasun Oinarrizko Errenta batek gaur egungo 'Enplegu Merkatuaren' aurrean gazteoi eskainiko lizkigukeen abaguneak aztertu eta prekarietatearen murrizketaren bidean ibiltzeko aukera gisa baloratzeko.



1.8 Tailerretik Landara tailerra // Gazteak eta landa mundua.

Deskribapena

Egungo krisi, prekarietate eta langabezi egoera dela eta gazte asko nekazal mundura bueltatzean irteera bat ikusten hasi dira. Horrela ba, 2009an gazte baserritarren egoera aztertu zelarik aurten baserritar izan nahi duten gazteen egoera aztertu nahi izan da, haien esperientzia zuzenarekin kontatuz.

Horrela ba, EHNEBizkaia sindikatuarekin batera jardunaldi bat antolatu da.

Aurrekariak

(2009) Hizpideak IV: Gazte Baserritarrak

Argitalpena, gazte hauek bizi duten testuingurua eta bizi baldintzen diagnosia jendarteratu eta berau hobetzeko edo gainditzeko dauden aukerak ezagutzera eman zuen. Dokumentuan, nekazaritza eta landa eremua osatzen duten faktoreei so eginda, sektore honetako langile gazteen egoera aztertu zuen, argitalpenaren difusioa, 2010eko hasieran egin zelarik.

Helburuak

LANDA EREMUKO DIAGNOSTIKO EGUNERATU BAT EGIN

gaur egungo krisi, prekarietate eta langabezi egoeraren aurrean **pertsona gazte askorentzako irteera bat suposa dezakeen heinean** eta batik bat, hurrengo puntuak landuz:

- gazte izateagatik eta landa edo baserria ez den errealitate batetik etortzeagatik bidean topa ditzakegun arazoak.
- eduki baditugun jakituria positiboak eta landa munduari eskaini diezazkiokegunak.
- eraiki nahi dugun landa mundua eta bereziki zein faktore ez ditugun errepikatu nahi.

Ekintzak

TAILERRETIK LANDARA: GAZTERIA NEKAZARITZAN ETORKIZUN BILA

EHNEBizkaia sindikatuarekin elkarlanean azaroaren 28an Eibarreko Portale kultur etxean antolatu zen jardunaldi hau.

ONDORIO TXOSTENA

Jardunaldietan zehar eta baita eragileon arteko bileretan ere landutako gaiak laburbildu eta

gazteriaren landarako bidean topatzen diren arazo eta abaguneen irudi bat egiteko txosten bat argitaratu da. [http://www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_71.pdf]

- EHNEBizkaiaiko teknikariari ere Gazte Borrasten egin zitzaion elkarriketa.





Hartzaileak

Baserri eta landa mundua bizitza modutzat hartu nahi duten gazteak, edo berau langabezi eta prekarietate egoerari irteera bezala ikusten dutenak.

Jarraipena eta ebaluaketa

JARDUNALDIEN EGOKITASUNA ETA PARTE HARTZEA

EHNEBizkaia sindikatuan formakuntza eta gazteekin dabilen teknikariarekin batera antolatutako jardunaldia izan zen, modu honetako ekintza baten beharra ikusita.

Aurretiko hiru bilera izan ziren, telefono eta mailez edukitako kontaktu eta elkarrizketez aparte.

Ikusi denez, hurrengoetarako ekintza formatiboekin batera antolatu behar dira honelako hausnarketa edo diagnosi ekintzak, partaidetza areagotzeko.



1.9 Gizarte eragile eta ekimenekin elkarlana

Deskribapena

Aurreko puntuetan lan talde eta beste eragileekiko elkarlanaz gain, jendarte eragileekiko elkarlana da EGK-k burutzen duen beste lan garrantzitsuenetariko bat. Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarritzko errenta,...) plataforma eta kolektiboen arteko dinamiketan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa azaleratu, ideiak eta ekimenak elkartrukatzea hain zuzen ere.

Helburuak

- Bileretan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa eta gazte ikuspegia bermatu.
- Beste eragileekin harremana ahalbidetu eta egonkortu.

Ekintzak

Besteak beste, hurrengoetan parte hartu da:

ARABAKO GIZARTE ESKUBIDEEN PLATAFORMA

RGIaren inguruan aurten bideratu izan diren aldaketek eskubide murrizketa garrantzitsua suposatu izan dute jende askorentzako, bereziki atzeritik etorritakoentzako eta gazteontzako. Hau dela eta Gasteizen eragile ezberdinek osatutako Gizarte Eskubideen Aldeko Plataforma bat eratu zen, zeinetan EGKk parte hartu duen gazteon perspektiba txertatuz.

GASTEIZ EN TRANSICIÓN ENPLEGU LAN TALDEA

Desazkunde mugimendutik eratorritako Gasteiz en Transición taldearen barne sortutako Enplegu lan taldearekin lanean 21 orduko proposamenaren inguruan.

Hartzaileak

- EGK kanpoko gazte eragileak.
- Gai sozialak jorratzen dituzten jendarte eragileak.
- Jendarte oro har eta gazteria konkretuki.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Bizi Baldintza Materialen arloan aurten eman diren erreleboak direla eta beste lan ildotako lan kargagatik, ildo honetako lana ez da bestetan bezain beste garatu izan. Hala ere, eragile ezberdinekiko harremana sendotu eta egonkortzea lortu da eta gazte errealitatearen diskurtsoa gai ezberdinetan txertatu da.



1.10 Interlokuzio politikoa / erakundeekiko elkarlana

Deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaien inguruan (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarritzko errenta,...) instituzioekiko eta beste lurraldeetako gazte kontseiluekin harremana izan eta mantentzea.

Helburuak

- Instituzio edo administrazioarekiko gai konkretuetan harremana izan eta interlokuzioa ahalbidetu.
- CJE rekiko harremana izan, informazioa partekatu.
- Beste kontseiluekin harreman puntualak mantendu.

Ekintzak

GASTEIZKO ENPLEGU BATXORDE TXOSTENGILEA

Gasteizko udalak Enplegu eta Garapen Iraunkorrari buruzko batzorde txostengile bat prestatu izan du gizarte eragile eta beste entitate batzuekin batzeko gai honen inguruan berba egiteko. Batxorden honetan EGKk gazteria eta enpleguari buruzko bere ikuspuntua azaleratu du.

OSALAN

Gazteen lan istripuen ondorioko heriotzak direla eta Osalanekin kontaktu puntualak izan dira, gertatutako heriotzen informazioa jaso eta partekatzeko. Kontaktuek jarraitzen dute, informazio trukaketa sistematizatzeke.

GASTEIZKO GAZTERIAREN BEHATOKIAREKIN BAT LANBIDERI ESKAERA

Gazteriaren enplegu eta etxebizitzaren inguruko egoera aztertzeke beharrezkoak egiten diren datuak erakunde ezberdinetan adinarengatik banatuta agertzen ez direla eta datu falta hau Gasteizko Gazteriaren Behatokiak bere argitaratutako 2.txostenean ere somatzen zuela, Lanbideri datuen adinkako banaketa ere argitaratzeko eskaera luzatu zitzaion.

Hartzaileak

- EAEko administrazio publikoa.
- CJE.
- Bestelako Gazte Kontseiluak.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Bizi Baldintza Materialen arloan aurten eman diren erreleboak direla eta beste lan ildotako lanak hartutako norabideagatik, zeinek eragileekiko lanean oinarritu den, ildo honetako lana ez da bestetan bezain beste garatu izan. Hala ere, izandako interlokuzioak EGKren presentzia indartu du eta gizarte eragile giza aurkeztera lagundu du bizi baldintzen arloko gaien inguruan.



1.11 Posizionamendu publikoak

Deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarritzko errenta,...) gertaera edo/eta testuinguruen aurrean EGKren diskurtso, balorazio eta iritzia azaleratzean oinarritzen da.

Helburuak

- EGKren iritzi ea diskurtsoa azaleratu gai ezberdinen inguruan.
- Momentuko gertaera eta errealitateari aurre hartu EGKren posizionamendua azaleratuz.

Ekintzak

EGK-REN DISKURTSOAREN PRESENTZIA

ETXEBIZITZA

- 2011/02/18. Onda Vasca elkarrizketa. Hizpideak
- 2011/02/25: Punto Radio Araba, tertulian hizpidearen aitzakiaz baina etxebizitzaren inguruko ikuspuntua emateko
- 2011/03/24-25: etxebizitza Plataformaren izenean egindako adierazpenak planaren lurperaketaren inguruan
- 2011/03/28: tas-tas irratian, zebra bide programan Arrosa Sarearen bidez Euskal Herriko hainbat irrati libreetan zabaltzen den
- 2011/04/04: Gazte Borraste etxebizitzaren inguruko tertulian
- 2011/04/08: etxebizitza legearen prozesu parte hartzailea salatzeke prentsaurrekoa.
- 2011/12/19: Hala Bedi (El Quid) Etxebizitza eta Hirigintzaren inguruan eztabaida.
- 2011/12/30: El Correon etxebizitza politika eta gazte emantzipaziorako laguntzen inguruan. <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20111230/pvasco-espana/consejo-juventud-critica-ayudas-20111230.html>

LURRALDE ANTOLAMENDUA

- 2011/11/17: Alabedi irratian (Suelta la Olla) Lurralde Antolamendua Birplanteatzen jardunaldien aitzakiaz gai honen inguruan EGKren ikuspuntua aurkeztu.
- 2011/11/18: Diario de Noticias de Álava egunkarian Gasteizko Planoetatik Kalera jardunaldiaren berria. <http://www.egk.org/eus/Gaur%20Prentsan/ikusi/2983/Del%20plano%20t%C3%A9cnico%20al%20dise%C3%B1o%20popular.html>
- 2011/12/21: Berria egunkarian lurralde antolamendu artezpideen prozesu ez parte hartzailearen salaketa (DOT lantaldearen barruan). <http://www.egk.org/eus/Gaur%20Prentsan/ikusi/3014/Lurraldea%20C2%ABmerkatua ren%20menpe%20BB%20antolatzea%20egotzi%20diote%20Jauritaritza.html>

ENPLEGUA / LAN PREKARIETATEA

- 2011/01/31: gazte baten heriotza salatzeke.
- 2011/06/28: Zumaiako langile baten heriotza
- 2011/09/04: Udako gazte lan-heriotzen artikulua Berria egunkarian



GAZTETXEEN UZTARAZTEA

- 2011/03/25: Galdakaoko gaztetxearen kalerartzea salatu eta elkartasuna helarazi. <http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/155/Galdakaoko%20Gaztetxe%20jaiob%20erriaren%20alde.html>
- 2011/10/08: Plentziako gaztetxearen kaleratzea salatu
- 2011/12/17: Donostiako Uxotegi gaztetxearen uztaraztea <http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/236/EGK,%20Donostiako%20Uxotegi%20gaztetxearen%20alde.html>

Hartzaileak

- EGK barneko elkarteak.
- Jendarte oro har eta gazteria konkretuki.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Oro har, bizi baldintzen arloko gaien inguruko EGKren diskurtsoa komunikabideetan islada izan du eta komunikabideek EGKrengana jo dute iritzi bila gai hauen inguruan berririk egon denena, bereziki, etxebizitza inguruko gaietan.



1.12 Barne koordinazioa

Deskribapena

EGK barruko egitura eta funtzionamendua kontutan hartuta, barne koordinazioa mantentzea ezinbesteko lana da.

Helburuak

- Bulegoko gestioak burutu.
- Jarraipen lana burutu hilabeteka.
- Memoria eta plangintzak zehaztu urtero.

Ekintzak

BILERA TEKNIKOAK ETA BATZORDE IRAUNKORRAREKIN BILERAK

Hilabetero jasotako bilera teknikoez gain batzorde iraunkorrarekin ere jaso izan dira bilerak arloen arteko komunikazio eta koordinazioa bideratu eta errazteko.

BESTE TEKNIKARIEKIN BILERAK

Datorren urterako plangintzan elkarlan proiekturik bideratzeko berdintasun teknikariarekin jaso dira bilera ezberdinak. Bizi baldintza materialen arloan izandako erreleboak direla eta, teknikari berriaren kokapenerako, bilerarik jaso behar izan da ere.

Hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Bilerak normaltasunez jaso izan dira eta bai komunikazioa bai elkarlana erraztu dute.



2. HEZKUNTZA

a) HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1 Astialdi Foroaren Koordinazioa

Deskribapena

Astialdi Foroa (AF) EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioetan heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.



Gaur egun Astialdi Foroaren baitan 16 eskola, 9 elkarten federazio eta 3 elkarte daude (**Ikusi H.1. eranskina**), guztira 13.000 gazte inguru dira 28 erakunde hauen atzean daudenak. Astialdi Foroaren koordinazioa lurraldeka izan da, foro bakoitzak bere interesak, beharrak, erritmoa eta izaera propioa dauzkalako. Hala eta guztiz ere, gai zehatzetarako koordinaketa bateratua egon da: astialdiko kualifikazio berriak eta sentsibilizazio kanpaina. Bestetik, gaiaren arabera federazioen eta eskolen banaketa egin da elkarten indarrak hobeto bideratzeko nahian.

Lurraldeka

a) Astialdi Foroa Araba:

2011n aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen eskuorria**, **desplegablea**, egin eta zabaldu da. Guztira 2.500 ale banatu dira EGK-ko elkarte, Arabako elkarte, ikastetxe, instituzio eta gazte informazio bulegoen artean. Aurten 13 elkarten 20 egonaldiak plazaratu dira.



- **Belaunaldia II. Itzulera** argazki lehiaketa eta erakusketa burutu dugu. Lehiaketan 24 elkarteetako 71 argazkik parte hartu dute. Sari banaketa Guardetxean egin zen, erakusketaren inaugurazio jaiaren barruan. Honen helburuak astialdi taldeen lana eta hauetan diharduten bolondresen lana jendarteratzea izan dira.



- **Astialdi eskolen** 2011/2012ko ikasturterako begirale eta zuzendari 44 **ikastaroen zerrenda** argitaratu da. Iraileko azken astean, eskaintza hau zabaltzeko Gaztea Irratian iragarki bat sartu genuen.
- **InteRed** Garapenerako Lankidetzako GKEarekin harremana hezkuntza inklusiboa Astialdi Foroko erakundeetan txertatzeko proposamena landu.
- **Material banaketa:** "Kulturarteko hezkuntza astialdian" ariketen liburua, Aisi Hezi-k egindako kanpamendu jasagarrien eskuliburua eta CD-a, eta Hik Hasi erakundearen Baliabide Pedagogikoen gida.
- Eusko Jaurlaritza eta Bakeolarekin lankidetzan egon gara garatzen ari diren Astialdi Eskolentzako **bake gidak** eguneratzeko.
- Hurrengo bi urteetan (2013 udara arte) Astialdi Foroa Araba kudeatzeko **plana** garatu dugu.
- Instituzioekin elkarlana:
 - a) Astialdi Eskolek **kualifikazio berriek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailarekin elkarlana.
 - b) Eusko Jaurlaritzako **Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkorreko** bileretan parte hartu dugu
 - c) **Gazteriaren Foru Erakundearen** Zuzendariarekin bi bilera izan ditugu. Topaketa hauen helburua elkar ezagutza izan da, bilera bakoitzean zuzendari berriak egon dira: Edurne Ramon eta Manuel Rabanera.

Ekimen hauek aurrera eramateko astialdi foroa hilero bildu da (uztailean eta abuztuan izan ezik). Gaur egun, Araban astialdi talde bat, 2 astialdi taldeen federazio (guztira 35 talde) eta 3 astialdi eskola daude. Guztira 2.500 gazte 7 daude erakunde hauen atzean (300 bolondres eta 2.200 gazte inguru).

b) Astialdi Foroa Bizkaia:

2011n aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen eskuorria "desplegablea"** egin eta zabaldu da. Guztira 3000 ale banatu dira EGK-ko elkarte, Bizakaiko elkarte, ikastetxe, Donostiko haurtxoko eta gazteleku eta gazte informazio bulegoen artean. Gidan 42 elkartek burututako 73 kanpaleku agertu dira.



- **Belaunaldia II. Itzulera** argazki lehiaketa eta erakusketa burutu dugu. Lehiaketan 24 elkarteetako 71 argazkik parte hartu dute. Sari banaketa Guardetxean egin zen,



erakusketaren inaugurazio jaiaren barruan. Honen helburuak astialdi taldeen lana eta hauetan diharduten bolondresen lana jendarteratzea izan dira.

- **Astialdi eskolen 2011/2012ko ikasturterako begirale eta zuzendari 44 ikastaroen zerrenda** argitaratu da. Iraileko azken astean, eskaintza hau zabaltzeko Gaztea Irratian iragarki bat sartu genuen.



- **InteRed** Garapenerako Lankidetzako GKEarekin hezkuntza inklusiboaren inguruko bi eguneko formakuntza antolatu da: "Gehituz hezte, aldaketarako formula". 16 pertsonak parte hartu dute.

- **Kulturartekotasunaren inguruko esperientzien trukaketa.** Kaeb Nai, Zabaloetxe, Mujeres en la Diversidad eta

Harresiak Apurtuz erakundeekin harremanetan egon martxoan egin genuen foroko barne mailako topaketarako.

- **Material banaketa:** "Kulturarteko hezkuntza astialdian" ariketa liburua, Aisi Hezi-k egindako kanpamendu jasagarrien eskuliburua eta CD-a, eta Hik Hasi erakundearen Baliabide Pedagogikoen gida.

- **Astialdiko hitzarmena:** Aurten estatu mailan hitzarmena onartu da eta Bizkaian eragina izan dezake. Honen gainean janzteko eta egoera berria azaltzeko Iñigo Bideurrazaga (Gizardatz / [Hirekin](#)) formakuntza eskeini zigen.

- Eusko Jaurlaritzak eta Bakeolarekin lankidetzan egon gara garatzen ari diren Astialdi Eskolentzako **bake gidak** eguneratzeko.

- Instituzioekin elkarlana:

- a) Astialdi Eskolek **kualifikazio berriek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailarekin elkarlana.
- b) Eusko Jaurlaritzako **Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkorreko** bileretan parte hartu dugu
- c) **Bizkaiko Aldundiarekin** harremana. Bi gai nagusi dira:
 - Koordinazio eta jarraipen bi bilera. Bestetik,
 - Martxoan, Astialdiko dirulaguntzetako dekretuen gaineko formakuntza egin zen non 12 elkarteetako 19 pertsona agertu ziren.

Astialdi Foroa Bizkaiaren lana aurrera eramateko foroa hiru astetan behin bildu da (uztailean eta abuztuan izan ezik). Gaur egun, Bizkaian 4 astialdi taldeen federazio (guztira 50 astialdi elkarte daude) eta 7 astialdi eskola. Guztira 5.000 gazte inguru dira 11 erakunde hauen atzean daudenak (600 bolondres eta 4.500 gazte inguru).

Aurten bi eskola berriak sartu dira: Aisiola (Ikastolen Elkarteko aisialdi eskola) eta Kurkudi Eskola. Bestetik, Urtxintxa Eskola federazio propio osatzen ari da, Amarauna



sarea (25 astialdi elkarte), eta momentuz Astialdi Foroan parte hartzeko indarra ez izan arren foroarekin harremanetan dago Urtxintxaren bidez, eskola sarearen ordezkaria baita.

c) Astialdi Foroa Gipuzkoa:

2011n aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen eskuorria "desplegablea"** egin eta zabaldu da. Guztira 2.500 ale banatu dira EGK-ko elkarte, gipuzkoako elkarte, ikastetxe, Donostiko haurtxoko eta gazteleku eta gazte informazio bulegoen artean. Gidan 36 elkartek burututako 62 kanpaleku agertu dira.



- **Belaunaldia II. Itzulera** argazki lehiaketa eta erakusketa burutu dugu. Lehiaketan 24 elkarteetako 71 argazkik parte hartu dute. Sari banaketa [Guardetxean](#) egin zen, erakusketaren inaugurazio jaiaren barruan. Honen helburuak astialdi taldeen lana eta hauetan diharduten bolondresen lana jendarteratzea izan dira.
- **Astialdi eskolen** 2011/2012ko ikasturterako begirale eta zuzendari 44 [ikastaroen zerrenda](#) argitaratu da. Iraileko azken astean, eskaintza hau zabaltzeko Gaztea Irratian iragarki bat sartu genuen.
- **Kualifikazio berriek** eskatzen duten edukien moldaketarako lantaldea abian jarri da.
- **InteRed** Garapenerako Lankidetzako GKEarekin harremana hezkuntza inklusiboa Astialdi Foroko erakundeetan txertatzeko proposamena landu.
- **Material banaketa:** "Kulturarteko hezkuntza astialdian" ariketen liburua, Aisi Hezi-k egindako kanpamendu jasangarrien eskuliburua eta CD-a, eta Hik Hasi erakundearen Baliabide Pedagogikoen gida.
- **Astialdiko hitzarmena:** Aurten estatu mailan hitzarmena onartu da eta Gipuzkoan eragina izan dezake. Honen gainean janzteko eta egoera berria azaltzeko Iñigo Bideurrazaga ([Hirekin](#)) formakuntza eskeini zigun.
- Eusko Jaurlaritza eta Bakeolarekin lankidetzan egon gara garatzen ari diren Astialdi Eskolentzako **bake gidak** eguneratzeko.
- Hurrengo bi urteetan (2013 udara arte) Astialdi Foroa Gipuzkoa kudeatzeko **plana** garatu dugu.
- Instituzioekin elkarlana:
 - a) Astialdi Eskolek **kualifikazio berriek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailarekin elkarlana.



- b) Eusko Jaurlaritzako **Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkorreko** bileretan parte hartu dugu.
- c) **Gipuzkoako Aldundiaren** lanaren gainean egon gara EGK-ko Presidente eta Gipuzkoako koordinatzailearen bitartez. Momentu honetan haiekin koordinatzen gara Gaztematika eta Aldundiko gai guztien gainean informatuta egoteko.

Astialdi Foroa Gipuzkoaren lana aurrera eramateko foroa hilero bildu da (uztailean eta abuztuan izan ezik). Gaur egun, Gipuzkoan 3 astialdi taldeen federazio eta 2 elkarte daude (guztira 50 astialdi elkarte), eta 6 astialdi eskola. Guztira 3.000 gazte inguru dira 10 erakunde hauen atzean daudenak (400 bolondres eta 2.500 gazte inguru).

Helburuak

Orokorrak:

- Astialdi Foroko koordinazioa ebaluatzea eta hobetzea.

Arabako eta Gipuzkoako Foroek ebaluazio ona egin dute, hala eta guztiz ere, hemendik aurrera plangintza bat jarraitu behar dugun beharra aurreikusi da. Orain arte egindako lana inertzian oinarritu da eta lan egiteko formula hori alde batera uzteko nahian 2011ko azken hiru hilabetetan plangintza bat garatu dugu. Horretarako, Astialdi Foroko DAFO bat egin dugu abiapuntu bezala gure ildo estrategikoak eta hauei dagozkien ekintzak definitzeko.

Bizkaiko foroan ebaluazio oso ona egin da. Iaz hasi ginen plan estrategikoan oinarrituz ikastaro osoko bileren gaiak zehazten eta formula honek emaitza onak izan ditu. Aurten horrela jarraituko dugu.

Bestetik, ezin da inoiz ahaztu elkarteen oinarria bolondresak direla eta askotan ez daukatela liberaturik lana aurrera erametako. Honek asko baldintzatzen du elkarrekin egin beharreko koordinazioa, hau beti moldatu behar da taldeen erritmo eta beharretara.

- Astialdi Foroko lan taldea sendotzea.

Plataformak hiru lurraldeetako 28 erakundek osatzen dute, bakoitzak bere ideologia eta metodologia propioarekin. Bestetik, tamaina aldetik oso ezberdinak dira: batzuk erakunde handi baten babesean daude eta 3 soldatapeko dauzkate eta, beste batzuk, ordea, ez daukate liberatu bat ere. Plataformako ezaugarri hauek esfortsu handia eskatzen dute lantaldea koordinatzeko eta sendotzeko.

Hala eta guztiz ere, astialdi erakunde bezala interes eta behar amankomun asko dauzkate eta hor dago gakoa taldea sendotzeko eta hauen inplikazioa lortzeko. Hala eta guztiz ere, nahiz eta parte hartzea nahiko erregularra izan, nabaria da zeintzuk diren elkarte bakoitzari interesatzen zaien gaia, zeren eta jorratzen denaren arabera, hauen parte hartzea handitzen edo jaisten delako.

**Zehatzak:**

- Esperientziak trukatu (Ikusi deskribapena atala)
- Lan komuna egin (Ikusi deskribapena atala)

Ekintzak eta epeak

- a) Bileren prestaketa, deialdiak eta akta jasotzea eta bidaltzea koordinatzaileak egin du. Bileretan Astialdi Foroko kideek parte hartu dute, hala eta guztiz ere, forotik kanpo dauden instituzioak eta elkarteak ere izan dira.
- b) Ebaluazio bilerak lurraldeka egin dira:
- b.1) Araba: Lurralde honetan udazkenean zehar Astialdi Foroko DAFO-a egin dugu eta honen barruan koordinazioaren ebaluaketa egin da.
- b.2) Bizkaia: Ekainean burutu genuen.
- b.3) Gipuzkoa: Araban bezala, udazkenean zehar Astialdi Foroko DAFO-a egin dugu eta honen barruan koordinazioaren ebaluaketa egin da.

Hilabetea	Ekintzak	
Urtarrila	a	
Otsaila	a	
Martxoa	a	
Apirila	a	
Maiatza	a	
Ekaina	a	b.2
Uztaila	a	
Abuztua	a	
Iraila	a	b.1-b.3
Urria	a	b.1-b.3
Azaroa	a	b.1-b.3
Abendua	a	b.1-b.3

Hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak. (Ikusi H.1. eranskina)



Ebaluaketa irizpideen arabera

- Egin diren bilera kopurua: 42
- Bilera guztietan Astialdi Foroko erakundeen %60a parte hartzea:
 - Araba: Bai
 - Bizkaia: Bai
 - Gipuzkoa: Ez
- Aurrera eramandako ekintzak: 9

2012ean zer?

Astialdi Foroaren koordinazioa hezkuntza arloaren ardatz nagusia da. Hiru foroetan parte hartzen duten elkarten eguneroko beharretan eta interesetan oinarrituta abiatzen dira urtean garatzen diren ekintzak. 2012erako ezinbesteko ildo hau hobetzen eta sendotzen jarraituko dugu.




2.2 Astialdi taldeek antolatzen dituzten aktibitateekin eskuorria

Deskribapena

Eskuorri honetan hiru lurraldeetako astialdiko taldeen udako kanpalekuei eta udalekuei buruzko informazioa jaso da. Lurraldeko koordinatzailea eta Hezkuntza arloko kontseiluko teknikaria, biak koordinaturik, kanpaleku eta udalekuen inguruan jasotako informazioa zabaltzen du eskuorriak (antolatzen duen elkartearen izena, telefono zenbakia, kanpamentu edo udalekuaren kokalekua, datak...). Uda aurretik argitaratu eta zabaltzen da. Urtero bezala hiru lurraldeko eskuorriak egin dira eta harrera ona izan dute. Beste urteetan bezala Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarteek haien taldeen informazioa inongo arazorik gabe bidali dizkigute.

*Bestetik, eskuorriari indarra emateko eta honen helburu nagusiak bermatzeko eskuorriarekin batera Mundu txikituko duen belaunaldia berriz eraikitzeko sentsibilizazio kanpainaren bigarren edizioa aurrera eramane da: **Belaunaldia II. Itzulera**. Elkarteek udan egiten duten lan handi hau hartuta hedabideei eta gizarteari begira gure indarra erakusteko tresna da. Honetan, eskuorriaz aparte, argazki lehiaketa bat, argazki erakusketa Donostiko Guardetxean, erakusketaren inaugurazioa jaia eta sari banaketa, eta astialdi eskolen 2010/2011 ikasturterako begirale eta zuzendari ikastaroen zerrenda egin dira. Kanpainaren helburu nagusia astialdi taldeek egiten duten gizarte lana plazaratzea izan da.*



Kanpainaren disenua eta ekintzak aurrera eramateko Gipuzkoako Astialdi Foroko elkarte batzuekin lantalde bat osatu zen: Bizi Alai Taldeak, Atzegi, Eziko Eskola, Berpiztu eta Hezkide. Behin diseinua eta ekintzak diseinatuta lurralde guztietara zabaltzen da.

Helburuak

- Taldeek egiten duten lana hedatzea.

Eskuorria hurrengo lekuetara zabaltzen da: Gazte Informazio Bulegoetara, EGKko elkarte guztietara, Astialdi Foroko elkarte guztietara, Gurasoen elkarteetara, Ikastetxeetara, EISES eta Institutioetara.

Bestetik, hedabideetan agerpenak: Diario de Noticias de Álava, COPE Euskadi, Bizkaia irratia, Radio Vitoria, eta hainbat ataritan, hala nola Gasteizko Udalaren webgunean, GazteBizen eta Gugaz Mugitu-n.



- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Aurten, hiru lurraldeko elkarteek 155 kanpaleku eta udaleku agertu dira eskuorrietan (iaz baina 6 gehiago): 20 araban, 73 Bizkaian eta 62 Gipuzkoan. Guztira 92 elkarte eta 9.000 gazte, begirale eta hartzaileen (ume eta nerabe) artean.

Bestetik, **Belaunaldia II. Itzulera** kanpainaren helburu nagusia astialdi taldeek egiten duten gizarte lana plazaratzea izan da. Lehiaketara lurralde guztietako 24 elkarteetako 71 argazki aurkeztu dira.

Ekintzak eta epeak

- A) *Belaunaldia II. Itzulera* sentsibilizazio kanpaina garatu.**
- B) Galdetegia eta gutunen bidalketa:** datuak jasotzeko galdetegi bat diseinatu da (ekintza mota, datak, adinak, lekua, hezkuntza, talde antolatzailea, harremanetarako datuak), behin galdetegia diseinatuta astialdi taldeei posta elektronikoz bidali zaie.
- C) Diseinuaren prestaketa eta argitarapena:** diseinua Astialdi Foroan landu da, gero Erreka enpresarekin borobiltzeko. Behin diseinua eginda inprentara bidali da.
- D) Eskuorriaren bidalketa:** 10.000 ale banatu dira astialdi talde, elkarte, administrazio, gazte informazio bulego, eskola, gurasoen elkarteek artean.
- E) Argazki lehiaketa.**
- F) Astialdi eskolen 2010/2011 ikasturterako begirale eta zuzendari ikastaroen zerrenda egin eta gizarteratu.** Irailaren azken astean, eskaintza hau zabaltzeko Gaztea Irratian iragarki bat sartu genuen.
- G) Astialdiko argazkien erakusketa.** Lehiketako argazkiak erakusteko Guardetxean jarri genituen azaroparen 25etik abenduaren 16ra arte. Azaroaren 25an Donostiko Guardetxean inaugurazio jaia egin zen: sari banaketa, lunch-a, antzerkia eta kontzertuak.



Hilabetea	Ekintza
Urtarrila	A
Otsaila	A
Martxoa	A B C
Apirila	A C
Maiatza	A D
Ekaina	E
Uztaila	E
Abuztua	E
Iraila	E F
Urria	E
Azaroa	E G
Abendua	G



Hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak. (Ikusi H.1. eranskina)
- Gazte Informazio Bulegoak.
- Gurasoak eta familiak.
- Administrazioak.

Ebaluaketa irizpideen arabera

- Hedabideen erantzuna: 4
- Bidalitako ale kopurua: 8000

2012ean zer?

2012an eskuorria berriro egingo da, ezinbesteko tresna baita astialdiko taldeen udako aktibitateak era bateratuan plazaratzeko.



2.3 Astialdi Foroko webgunea

Deskribapena

Astialdi Foroko webgunea hilabetean behin eguneratu da. Astialdiari buruzko albisteak, taldeei buruzko informazioa eta Astialdi Foroari buruzko deialdiak eta berriak argitaratu dira, hauen artean udako ekintzen eskuorria.

2010etik Facebook-a daukagu zabalpenerako tresna osagarri bezala eta oso tresna erabilgarria suertatzen da. Honen bitartez webgunean zabaltzen dena azpimarratzeaz aparte astialdi hezitzailearentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaldu da.

Helburuak

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Webgunea Astialdi Hezitzailearen inguruko informazioa zabaltzeko erabili da. Honek laguntzen du era bateratu eta globalean astialdian lan egiten duten eragileen proiektuak eta ekintzak zabaltzen. Webgunean finkoa den informazio teorikoa eta elkartearen datuak aparte ikastaroen, jaurdunaldien, prestakuntza saioen eta ekintzen informazioa zabaldu dugu Astialdi Hezitzaileari zentzu global bat emanez.



Ekintzak eta epeak

- A) Webgunea jarraian eguneratu da.

Hilabetea	Ekintzak
Urtarrila	A
Otsaila	A
Martxoa	A
Apirila	A
Maiatza	A
Ekaina	A
Uztaila	A
Abuztua	
Iraila	A
Urria	A
Azaroa	A
Abendua	A



Hartzaileak

- Gizartea.
- Astialdi eragileak.
- Astialdi Foroko eragileak. **(ikusi H.1. eranskina)**

Ebaluaketa irizpideen arabera

- *Webgunean argitaratutako eduki kopurua: 12*
- *Webguneari egindako bisita kopurua: 30.458*

2012ean zer?

2012n www.astialdiforooa.org -k irekita jarraituko duen arren, hausnarketa egingo bere baliogarritasuna neurtzeko. Hala eta guztiz ere, jarraituko du Internet-en lekua edukitzea ezinbestekoa delako astialdi hezitzailearen inguruko dokumentuak eta berriak plazaratzeko.



2.4 Institutuzioekin Elkarlana

Deskribapena

Astialdi hezitzaileak gaur egun betetzen duen gizarte-funtzioa dela eta, zaintzeko dagoen interesarengatik eta gizarteak espazio ez formalean hezkuntza-lanak egiten jarraitzeko daukan beharrarengatik, derrigorrezkoa da gizarte eragileen eta instituzio publikoen arteko lankidetzan aritzea.

2011an Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundiekin, EHUREkin eta Aratekoarekin izan dugu harremana.

Aurten Hezkuntza ez Formala arloak, Astialdi Foroak zehazki, **Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin** harreman handia izan du astialdiko kualifikazio berriak direla eta. Gazteria Zuzendaria, Natxo Rodriguez, izan da EJko solaskide nagusia.

Estatu mailan astialdiko kualifikazioak onartu dituzte. Hauek, estatu-mailan eduki eta baldintzak (ordu-kopuruak, gaiak...) bateratzeko, kalitatea homogeneizatzeko eta zenbait tramite burokratiko errazteko balioko dute. Astialdiko kualifikazio berriak INEM-etik edota Lanbide Heziketatik eskuratu ahal izango dira.

Hori dela eta, Astialdi Foroa negoziazioetan egon da, urte osoan zehar, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin astialdi eskolak eszenatoki berri horretan egon daitezela orain arte izan duten idiosinkrasia mantenduz, alegia, hezkuntza ez formalean eta boluntariorik oinarritutako heziketa ereduak izanez.

Negoziaketa horien ondorioz eskolek haien tituluak ematen jarraitu ahal izango dute, baina orain, iaz uste ez genuen bezala, nahiz eta astialdi eskolek haien edukiak moldatu kualifikazio berrietara ez dago oso argi Enplegu edo Hezkuntza sailetik emango diren tituluen baliokideak izango diren. Lanbiderekin hasi gara harremanetan hau zehazteko.

Koordinazio honek lan handi suposatu du Euskadi mailakoa izan delako. Zaila da 14 eragile batzea, gainera kontuan izanda, eskola batzuk bakarrik boluntarioz osatuta daudela. Alde batetik, eskolen arteko amankomunezko jarrerak eta proposamenak garatu ahal izateko eskolen arteko erkidego mailako 4 bilerak egin dira eta, bestetik, jarrera eta proposamen hauek Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari helarazteko beste 4 bilerak.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak ateratako Bake Kulturako dirulaguntzen epaimahaia parte hartu dugu.

Azkenik, instituzio honetako Enplegua eta Gizarte Gaietako Familia Sailak bultzatutako Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkorreko bileretan izan gara. Lantalde honetan Haur eta Nerabeentzako plana garatzen ari da eta Astialdi Foroak aholkulari lanak egiten ditu. Batzorde honen barruan, beste azpitalde baten barruan lan egiten da: sentsibilizazio eta prebentzioa. Guztira 3 bilera izan dira.



Aurten **Arabako Aldundiarekin** izan dugun harremana iaz baino aberatzagoa izan da eta Gazteriaren Foru Erakundean egon diren bi Zuzendariekin aurkezpen bilerak izan ditugu: Edurne Ramón eta Manuel Rabanera. Bilera hauen helburuak elkar ezagutzea eta astialdiko egoera hausnartzea izan da.

Gipuzkoako Aldundiko Gazteria Sailarekin harremana oso eskasa izan da. Udako *desplegablearen bidalketan* koordinatu gara haiek daukaten bidalketetarako zerbitzua erabiltzeko. Bestetik, esan beharra dago EGK-k harreman estua daukala Aldundiarekin Gipuzkoako Koordinatzailea eta Presidentearen bidez eta informazioa behar dugunean hauekin koordinatu gara.

AFk **Bizkaiko Aldundiarekin** harreman handia du. Hurrengo gaiak jorratu ditugu: elkarteen udako ekintzen eskuorria, astialdi dirulaguntzak eskatzeko dekretuen formularioen gaineko topaketa-formakuntza, Lankidetzak-Hitzarmenaren Batzorde Mistoaren jarraipen bilerak, Gazte Bizz Telebista, Gaztea Irratian kuinak eta ekintza berezien eta egituren dirulaguntzen espedienteen berrikustea.



Bizkaiko astialdi elkarteen udako ekintzen eskuorriaren datuen jasoketa eta koordinazioa hezkuntza ez formaleko teknikariak egin du eta diseinua, inprimaketa eta bidalketa Bizkaiko Aldundiko Gazteria Sailak. Elkarlan honen emaitza 42 elkarteek egindako 73 kanpalekuen informazioa batzen duen elkarteen udako ekintzen eskuorria izan da. Udako *Desplegableari* indarra emateko Gazte Bizz Telebistan, Aldundiko atarian, bideo bat burutu genuen udalekuetako informazioa zabaltzeko. Gidoia idazteko eta elkarteetako gazteekin bideoa egiteko Astialdi Foroko eta Gazteria Saileko elkarlan estua egon zen.

Astialdi eskolen 2011/2012ko ikasturterako begirale eta zuzendari 44 ikastaroen zerrenda argitaratu zen eta hau zabaltzeko iraileko azken asteen, eskaintza hau zabaltzeko Gaztea Irratian iragarki bat sartu genuen ([entzun](#)).

Martxoaren 2an, astialdi dirulaguntzak eskatzeko dekretuen formularioen gaineko topaketa-formakuntza burutu genuen. Topaketan 12 erakunde erakundeetako 19 pertsona bildu ginen Bizkaiko Foru Aldundiarekin dekretuen gaineko arazoak eta zalantzak argitzeko.

Urtero bezala, Bizkaiko Gazteria Sailarekin Lankidetzak-Hitzarmenaren Batzorde Mistoaren jarraipen bi bilera izan dugu. Otsailaren 16an lehenengoa izan genuen 2010eko memoria eta 2011ko plangintza aurkezteko eta bi erakundeen artean informazioa trukatzeko eta elkarlana zertan gauzatuko den zehazteko. Bigarren bilera, maiatzaren 5ean burutu genuen Aldundiak Gaztedi Bizkaia plana aurkezteko eta bi aldeek artean EGK-ren hurrengo urtetarako hitzarmena zehazten asteko.

Maiatzaren 3an Aldundiko egoitzan 2011ko ekintza berezien eta egituren dirulaguntzen espedienteen berrikusi dira.





Ekainean **Ararteko**aren txosten *Arazo egoera berezietan dauden adingabeak* txostenaren aurkezpena joan ginen aurrera begira egin ahal diren hobekuntzak hausnartzeko eta adingabeekin lan egiten duten eragileen artean elkarlana bultzatzeko.

EHU Elena Bernarasekin, Ikasleen Errektoreordearekin, harremanak egon dira Ikaslearen Estatutuaren barruan dagoen Elkartearen araudiari aportazioak egiteko. (Memoriaren Unibertsitateko elkartegintza lan ildoan garatuta dago).

Helburuak

- Astialdi hezitzailea indartu eta sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoekin harremanak sendotu nahia.

Instituzioek Astialdi hezitzailearekin duten ardura aldarrikatzeko eta arlo honetan egiten duten lana sendotzeko nahian Astialdi Foroak elkartearen eta instituzien arteko beharrezkoak diren zubi lanak aurrera eraman ditu. Aurten izandako lana emankorra izan da. Astialdi hezitzailean murgilduta dauden elkarteetarako berebiziko garrantzia duten gaiak landu dira (deskribapenean agertzen diren gaiak).

Ekintzak eta epeak

- A) Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzeko eta duintasuna emateko Instituzioekin batera lankidetzan aritu gara, Astialdi Foroaren esperientzia oinarri hartuta elkarlana bultzatuaz. Horretarako, urte osoan zehar bilerak egon dira eta, bai telefonoz, bai emailaz, harreman handia.

Hilabetea	Ekintzak
Urtarrila	A
Otsaila	A
Martxoa	A
Apirila	A
Maiatza	A
Ekaina	A
Uztaila	A
Abuztua	
Iraila	A
Urria	A
Azaroa	A
Abendua	A

hartzaileak

- Erakunde publikoak
- Astialdi eragileak
- Astialdi Foroko eragileak (ikusi H.1. eranskina)
- Gizarteak



Ebaluaketa irizpideen arabera

- A. Egindako bilera kopurua: 18
- B. Zenbat instituzioekin bildu garen: 5
- C. Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak: 11

2012ean zer?

Instituzioekin elkarlana astialdi foroko eragileetatik EGK-ri eskatzen diren funtzioen artean garrantzitsuenetako bat da. Beharrezko da administrazioarekin eta instituzioetako gazteria politikak garatzen dituzten arduradunekin, bai politikariek, bai teknikariek, harremanetan egotea amankomunezko lan ildoak garatzeko eta informazioa elkar trukatzeko.



2.5 Beste eragileekin harremanak

Deskribapena

EGK lankidetzazabalaren alde da. Hau da, astialdian ahalik eta eragile gehienak lankidetzan aritzea nahi da: astialdi taldeak eta sareak, astialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten eta astialdi hezitzaile filosofia daukaten enpresak, eskolaz kanpoko jardueraregitarrak dauzkaten ikastetxeak, gurasoak (elkarteen bidez), batzordeak, etab. Beharrezkoa da indarrak batuz joatea eta lanerako irizpide eta helburu komunak izatea.

Hasteko, 2011ko otsailetik **KULUNKAN Ikas/Jolas Gunea** egitasmoa diseinatzen ibili gara. Proiektu hau hezkuntza eta aisialdi hezitzaile eta euskaldunean oinarritutzen da. Egitasmoa batez ere Durangaldeko 2-30 urte bitarteko 10.000 pertsona ingururi zuzendua badago ere Bizkaiko eta Euskal Herri osoko haur, gazte zein familiei ere bideratuta dago eta Durangoko herrian gauzatuko da bi egunez 2012ko abenduan. Proiektuaren funtsa, aipatutako eremuan, aisialdi eskaintza osatu eta indartzea da, parte-hartzearen eta balioetan oinarritutako hezkuntza integralaren ikuspegitik abiatuz. Xedea hau izanik metodologia eta hezkuntza eskaintza ezpezifikoa jorratuko da.

*KULUNKAN EGK-k zerotik abiatutako proiektua izan da eta gaur egun aisialdi hezitzailean lan egiten duten 13 erakunde osatzen dugu: **Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Amarauna Sarea, Ikastolen Elkartea, Sortzen Ikasbatuaz, Kimuak, BIGE, Txatxilipurdi, Berbaro, Zeozer, Zapaburu, Geu Be, Bizkaiko Gaztetxoaren Koordinakundea** eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.*

Lan honen koordinazioa EGK-ko Bizkaiko Koordinatzailearekin batera egin da.



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta **Boluntak** hainbat proiektuetan bat egiten dute eta harremana oso estua da. 2011ko hasieran aurreko urteko elkarlanaren hausnarketa egin eta gero harremanetan egon behar diren bi erakunde direla erabaki zen. Hori dela eta, bi hilabetetan behin jarraipen bilerak egiten dira (guztira: 6). Udatik hona, proiektu konkretu bati heldu gara: Boluntariotza txartela. Hori garatzeko gazte boluntzariotzaren inguruko hausnarketa eta prozesu parte hartzaile baten eraikitze lanetan jardun dugu.



InteRed Garapenerako Lankidetzako GKEarekin hezkuntza inklusiboa jorratzeko elkarlan estua izan dugu. Helburua izan da inklusioa lantzea astialdi begiraleekin eta hori lortzeko, alde batetik, Bizkaiko Astialdi Foroan azaroaren 21ean eta 23an “Gehituz hezteak, aldaketarako formula” formakuntza irekia antolatu genuen non 16 pertsonak parte hartu zuten. Bestetik, Gipuzkoako foroan eskoletan txertatzeko proposamena landu eta gero Mundo Nuevok InteReden laguntzarekin begirale ikastaroan hezkuntza inklusiboaren inguruko modulo bat sartu dute.



Aurten ere **Ulertuz, Bizkaiko haur gorren familia eta lagunen elkartearekin** harreman estua izan dugu. Elkarlan horren jatorria da gazte gorrek dituzten zailtasunak astialdi eskoletan ikastaroak egiteko. Bi aldetatik egin diogu aurre arazoari. Alde batetik, epe motzera irtenbideak aurkitzeko asmoarekin Ulertuz eta Astialdi Foroa Itzultzaile Eskolarekin harremanetan egon gara eta emaitza onak izan ditugu. Bestetik, gai honetarako instituzioek ez daukate inongo dirulaguntzarik behar bereziak zuzenean jorratzen ez dituzten elkarteentzako eta, orain arte, elkarteek askotan egoera hauei ezin diete aurre egin edo haien baliabideekin egin behar izan diete aurre (bolondresekin) baina oso zaila da 200 ordutako ikastaro baterako itzultzaile bolondresak aurkitzea. Iaz Bizkaiko Aldundiarekin harremanetan egon eta gero ez genuen emaitzarik lortu eta aurten lan horretan laguntzeko EDEKA-rekin, Elbarrituen ordezkarien euskal koordinatzailearekin, harremanetan egon gara. Astialdiko dirulaguntzetan inklusioa txertatzeko aukerak aztertzen ari gara.

Bestetik, kulturartekotasuna lantzeko asmoarekin **Kaeb Nai, Harresiak Apurtuz, Mujeres en la Diversidad** eta **Zabaloetxerekin** harremanetan egon gara. Bilbon, martxoa aldera, elkarte hauekin topaketa bat burutu genuen esperientzien trukaketa egiteko. Topaketa hauen ostean harremana estutu zen eta elkarlanari ekin genion etorkinak astialdi taldeetan parte hartzeko asmoarekin. Orain lekukoa aisialdi federazioetan eta taldeetan dago.

Aisi Hezi Fundazioarekin harreman estua egon da. Fundazioa eta Astialdi Foroa lan esparru berberan lan egiten dutenez baliabideak optimizatzeko asmoarekin harremanetan egon gara. Bi hilabetetan behin jarraipen bilerak egin ditugu.

Beste eragileekin izandako aldian aldiko harremanak:

- D. Gizardatz: Estutu mailako onartutako astialdiko hitzarmena landu.
- E. Bakeola: Bake Gidak eguneratze lanean lagundu.
- F. Topagunea: Jarraipen bilera.
- G. Banda Bat: Astialdiko argazki erakusketarako elkarlana.



Helburuak

- Elkartegintza eta sare lana bultzatu eta indartu hezkuntza alorrean.

Ez da erraza elkartegintzan sare lana bultzatzea elkarteak boluntarioz osatuta badaude eta lanaz gainezka daudenean. Hala eta guztiz ere, harreman asko abian jarri ditugu astialdian eta gazteekin lan egiten dituzten eragile askorekin.

- Astialdian esku-hartzen duten eragileetatik kalitatezko eta egungo beharrianetara egokitutako eskaintza sustatzea.

Sare lanak beste elkarte eta eragileen ikuspuntua, ekintzak eta egoera ezagutzeko aukera eman du eta hartu eman horrek AFko eragileoi balio zaigu, gaur egungo gazteen astialdiaren errealitatea hobeto ezagutzeko eta gure eskaintza hobeto egokitzeko.

Ekintzak eta epeak

- A) Harremana jarraian izan da. Astialdi Foroa hilero egon da beste eragileekin harremanetan.

Hilabetea	Ekintzak
Urtarrila	A
Otsaila	A
Martxoa	A
Apirila	A
Maiatza	A
Ekaina	A
Uztaila	A
Abuztua	
Iraila	A
Urria	A
Azaroa	A
Abendua	A

Hartzaileak

- EAEko elkarteak
- Astialdi Foroko eragileak (ikusi H.1. eranskina)

Ebaluaketa irizpideen arabera

- H. Egindako bilera kopurua: 42
I. Zenbat eragile: 24



2012ean zer?

Beste eragileekin elkarlana Astialdi Foroko ildo oso garrantzitsua da. Foroan lan egiten duten erakundeak hezteko eta gizartean gertatzen diren aldaketetara moldatzeko hurrengo urtean jarraituko dugu beste eragileekin elkarlanean.



b) HEZKUNTZA FORMALA

2.6 Unibertsitateko elkartegintza

Deskribapena

EHUko elkarteak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arlotik elkarteekin harremana sortzea eta garatzea lortu nahi da unibertsitatean parte hartzea indartzeko eta bultzatzeko. Horretarako EGK elkarteekin eta Unibertsitateko arduradunekin egon da harremanetan.

EGK-tik abiatutako inizatiba baten harira **Lurgorri, Ikasle Abertzaleak, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Asanblada, Iratzarri, Gazte Ekintza** eta **M15M** lantalde bat osatu dute. Koordinazio lana Alicia Susorekin, **Parte Hartuzeko** kidearekin, batera eraman dugu. 2011an elkarlanerako esparru honek, besteak beste, EHUko elkartearen araudi berria hausnartu du. Araudia berriak eragin handia izango du elkarteengan, haien ardurak eta egin beharrak definituko baitu. Hausnarketa prozesu horren ondorioz elkartearen araudi proposamena sortu dugu, elkarteak baitira unibertsitateko elkartegintzaren beharrak eta ezaugarriak hobeto dakizkitenak. Behin araudia bukatuta, martxoaren 3an, Elena Bernarasi, Ikasleen Errektoreordeari, aurkeztu genion. Nahiz eta ezkor agertu azkenean batzorde teknikora bidali egin da, bertan erabakiko da guk sortutako legearen zer onartuko den.

Apiriletik aurrera, unibertsitateko komunitatean parte hartzea bultzatzeko helburuarekin jarraituz lantaldea unibertsitatean eragina izateko egin behar den lana hausnartzen egon da. Lanketa horren ostean ekintza zehatzak erabakitzen ari gara eta 2012an zehar aurrera eramango ditugu. Hasteko, elkartearen lana eta jarduerak zabaltzeko unibertsitateko elkartearen atari bat sortzeko asmoa dago.

Helburuak

- Ikasle elkartegintza indartu eta parte hartzea bultzatu.

EHUko elkartearen araudi berriaren proposamena elkartearen parte hartzea errazteko eta haien interesetara moldatzeko helburuarekin egin da. Onartuz gero, elkartegintza bultzatzeko eta indartzeko tresna egokia izango litzateke.

- Ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena administrazioei eskatzea.

Elkarteek landutako araudi berria Elena Bernarasi, Ikasleen Errektoreordeari, aurkeztu genion. Unibertsitateko arduradunari ezagutarazi nahi izan diogu elkartegintzaren inguruko lege bat egin nahi bada elkarteak kontuan izan behar direla, haiek izango baitira lege honen hartzaileak. Aintzat hartu gaituzte eta gure araudia haiek egindakoarekin batera batzorde teknikora bidali dute.

**Ekintzak eta epeak**

A) Harremana jarraian izan da.

Hilabetea	Ekintzak
Urtarrila	A
Otsaila	A
Martxoa	A
Apirila	A
Maiatza	A
Ekaina	A
Uztaila	A
Abuztua	
Iraila	A
Urria	A
Azaroa	A
Abendua	A

Hartzaileak

- EHUko Ikasle elkarteak (**ikusi 10. eranskina**)

Ebaluaketa irizpideen arabera

J. Egindako bilera kopurua: 9

K. Zenbat eragile: 7

2012ean zer?

2012 urtera begira zaila egiten zaigu ildo hau aurrera eramatea Hezkuntza Ez Formalen dagoen lan karga handiagatik. Bestetik, lantaldea nahiko motel doa eta zaila egiten da guztiok batera egotea, hala eta guztiz ere, erritmoa makala izan arren ideia mordo daude eta aurrera jarraituko dugu.



2.7 Egunerokotasunean

Deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Bestetik, aipatzekoa da hezkuntza arlotik Erreka enpresarekin EGK-ko datu basea garatzen ari da. Berebiziko garrantzia duen tresna honen beharra aurreikusi zen joan den urtean eta 2012an aurrera eramateko aukera izango dugu.

Helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman dira.

Ekintzak eta epeak

A) Egoitzetako lan teknikoak egunero aurrera eramaten da.

Hilabetea	Ekintzak
Urtarrila	A
Otsaila	A
Martxoa	A
Apirila	A
Maiatza	A
Ekaina	A
Uztaila	A
Abuztua	
Iraila	A
Urria	A
Azaroa	A
Abendua	A

Hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGKko elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

2012ean zer?

Lan hau ezinbesteko ildo da EGK-ko teknikarientzat eta 2012an egiten jarraituko da.



3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK

a) KULTURARTEKOTASUNA

3.1 Kulturartekotasunaren inguruan EGKren ahotsa zehaztu

Deskribapena

Egitasmo honen bitartez, azken urteotan EGKren baitan burutzen ari den hausnarketari jarraipena eman nahi zaio. Izan ere, 2007. urteko Asanblada Orokorrean onartutako Dekalogoak oinarri harturik alor honetan dauden ikuspegi ezberdinak jorratu nahi dira EGKren ahotsa zehazteko eta dokumentu hau eguneratu ere.

Horretarako, 2010ean landutako dokumentuak zein kulturartekotasunaren inguruko jardunaldietan landutako gaiak eta hauetatik jasotako ekarpena eztabaidatuko dira EGKren baitan sortzen ari den lan talde bati esker. Lan talde hau, alor honetan jarduten duten (zuzenean edo zeharka) EGKko elkarte guztiei irekita egongo da eta hilean behingo aldirokootasuna izatea aurreikusten da. Hala ere, lan taldeak bere dinamika propioa izatea nahi da, ondorioz aldaketei bidea zabalik utziko zaielarik.

Lan talde honen bitartez EGKko elkarteek alor honetan dauden ikuspegi ezberdinak kontuan hartzen lagunduko die, beren marko teorikoa osatu edo garatu dezaten eta egunerokotasunekoan balia dezaten. Bestalde, alor teorikoa eta alor praktikoa uztartzen saiatuko da, tokian tokiko errealitateetara teoria ezberdinak praktikara txertatuz.

Horretarako, 2010. urtean egindako bideari jarraiki, kanpo eragileen ahotsa kontuan hartuko da. Izan ere, alor honetan dagoen aniztasuna eta ikuspegi ezberdinak kontuan hartzeko egin diren bilerak oso positiboki baloratu dira. Beraz, alde batetik alor *akademiko eta profesionala* lantzen duten eragileekin biltzen jarraituko da eta bestetik aniztasuna lantzen duten *eragileekin eta etorkinen elkarteekin*. Izan ere, errealitatea zuzenean ezagutzeaz gain, elkar ezagutza bultzatzen da etorkizunera begirako lankidetzak.

Marko teorikoa egituratzeko alor hauek izango dira oinarri:

- Politikoa: herritartasunaren aitortza (subjektu politiko gisa), eskubide eta betebeharrak oroz (enplegua, etxebizitza, hezkuntza, mugikortasun askea eta generoa).
- Psikosoziala: jendarteko kide izatea alor guztietan, parte hartzea eta ikustarazpena oinarritzat hartuz.
- Kulturala: kultura ikuspegi zabal batetik, euskal kultura eta aniztasun kulturalaren arteko oreka bilduz.
- Bizikidetzak: Jendarteko komunitateen arteko bizikidetzan sakonduz.

Beraz, egitasmo honek bi ardatz izango ditu, batetik eragile ezberdinen errealitatea eta ikuspegi ezberdinak ezagutzea eta bestetik, EGK-ko lan taldearen bitartez, alor honetan EGK-ren ahotsa zehaztea.



Helburuak

Orokorra:

- Kulturartekotasunaren inguruan EGKren ahotsa zehaztea

Zehatzak:

- Gazteengan kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruko hausnarketa bultzatzea
- EGKko elkarteei hausnarketa eta eztabaida zabaltzea.
- EGKren ahotsa jendarteratzeko zutabeak jartzea, marko teorikoa landuz eta garatuz.
- Elkarte, erakunde eta EGKren arteko harremana eta lankidetzatza sustatzea.

Ekintzak eta epeak (kronograma)

A.- Lan taldea osatu.

B.- Dokumentuak eta oinarriak landu.

C.- Elkarte eta eragileekin bildu.

D.- Lan taldean eztabaidatu eta adostasunetara iritsi.

E.- Barne dokumentuak osatu eta II.Jardunaldiak prestatu.

F.- Jardunaldiak burutu eta ebaluaketak. Aurrera begira zer?

Hilabetea	Ekintza					
Urtarrila	A					
Otsaila	A	B	C	D		
Martxoa		B	C	D		
Apirila		B	C	D		
Maiatza		B	C	D		
Ekaina		B	C	D		
Uztaila		B		D	E	
Abuztua		B		D	E	
Iraila		B		D	E	F
Urria		B		D	E	F
Azaroa						F
Abendua						F



Hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak
- Kultur elkarte eta eragileak
- Gazte eragileak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lan taldeak barne bilduko dituen elkarte kopurua
- Landuko diren dokumentu kopurua.
- Eragile eta elkarteekin burututako bilera kopurua eta edukia.
- Lan taldearen funtzionamenduari buruzko barne ebaluaketa.
- Barne dokumenturik osatuko den ala ez eta zein edukirekin.
- Sortutako lankidetzak

Honen baitan **lan taldearen** eraketa indartzeko saiakera egon da eta elkarte eta eragile hauek hartu dute parte urtean zeharreko bileretan:

- HARRESIAK APURTUZ (hiru lurraldeetako delegazioak)
- Mujeres del Mundo Unidas (Donostia)
- Kaeb Nai elkartearekin harremana berreskuratu dugu (Donostia)
- Kolore Guztiak (Donostia)
- Jürgen Interkultur-TANDEM (Donostia)
- Garaipen (Gipuzkoa)
- Zabaloetxe (Loiu)
- Campillo Gizarte Etxea (Gasteiz)
- Kale Dor Kayiko (Bizkaia)
- Biluts (Bizkaia)
- Semilla de Mostaza (Donostia)

Bilerak bi hilean behin egiteko asmoa egon da, baina hau ez da horrela mantendu. Elkarte eta eragileek jarraikortasun bat izan dezaten ondo landu behar izan da edukia eta azkenean kulturartekotasun bigarren topaketak antolatzeke erabili izan dira espazio hauek.

Elkarte bakoitzak kulturartekotasunaren inguruan duen ideia zein lanketak nahiko ezberdinak direla ikusi izan da; eta zenbaitetan, elkarteen arteko lana erraztu baino, lankidetzak hauek mugatu egin dituzte eta erritmoak behin eta berriz eguneratzen ibili behar izan dira.

Hausnarketarako eta gai honen inguruan EGKk duen ahotsa zehazteko gune bat izateko sortu izan zen lan talde hau; baita, EGKk mahai gainean daukan dekalogoak eguneratu ahal izateko. Ardura hau ez da guztiz bete 2011.urtean zehar. Horregatik, 2012rako honi eutsi egingo zaio eta dekalogoak amaitu.



3.2 Kulturartekotasunaren inguruko II. Jardunaldiak

Deskribapena

Proiektu honen eskutik kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruan sumatzen den egituraketa faltari aurre hartu nahi dio. Gaia, zabala, konplexua eta askotarikoa izanik, gaia modu holistiko batean jorratu nahi da bigarren edizio honetan, ahalik eta ikuspegi gehien jorratuz. Izan ere, gai polikromatikoa da (immigrazio eta kultura asko daude), polifonikoa (immigrazioa eta aniztasun kulturalari buruzko iritziak anitzak), multifaktoreduna (kari ugari dituen) eta poliedrikoa (immigrazioak eta aniztasun kulturalak aurpegi asko ditu). Gainera, euskara eta euskal kultura minorizatuta daudela aintzat hartu behar dira, gai konplexua ingurune konplexu batean txertatu behar delarik.

Jorratuko diren gaiak oraindik orain erabakitzeko badaude ere, hauek izan litezke lehenengo jardunaldiak kontutan hartuta: Identitate kulturala; kulturartekotasuna eta sexualitatea (generoa zeharka landuko da ekintza guztian); familia eta baloreen transmisioa. Hauek denak euskal kulturaren oinarria eta testuingurua ahaztu gabe.

Proiektua diseinatu, garatu eta ebaluatzeko, "kulturartekotasunaren inguruan EGK-ren ahotsa zehaztu" proiektuan sortzen ari den lan taldea izango da oinarria. Honela, alor honetan hausnartzen dena eta egiten dena uztartzen saiatuko da.



Helburuak

Orokorra:

- Kulturartekotasunaren eztabaida euskal gazteengan zabaldu.

Zehatzak:

- EGKren ahotsa ezagutarazi eta urteko lan-taldearen lana jaso.
- Aniztasuna bermatu ikuspegi holistiko batetik.
- Etorkinen eta gutxiengo etnikoen egoera ikustarazi eta jendarteratu.
- Identitate kulturalaren inguruan hausnartu.
- Ezagutza zabaldu eta errealitate ezberdinak ezagutu.

**Ekintzak eta epeak (kronograma)**

A.- Jardunaldiak diseinatu: edukiak, lekua, koordinazioa etab.

B.- Zabalpena

C.- Jardunaldiak burutu.

D.- Ebaluaketa eta txosten bat eratu.

Hilabetea	Ekintza					
Iraila		A	B			
Urria			B	C		
Azaroa					D	
Abendua					D	

Hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak
- Kultur elkarte eta eragileak
- Gazte eragileak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Jardunaldiko ebaluaketa irizpideak:
 - Partaide kopurua
 - Aniztasuna
 - Parte hartzaileen iritzi eta ekarpenak.

“Elkarbizitza esperientziak elkarbanatzen” izan da bigarren edizio honen ildo eta oraingo honetan topaketa gune bat sortu nahi izan da, bertan, elkarte zein gazte eragile ezberdinek kulturartekotasuna nola lantzen duten ezagutu ahal izateko. Askotan elkartearen artean ezagutza falta dute, eta horretarako sortu nahi izan da espazio hau, bizilagun diren elkarteak euren arteko lana ezagutzeko eta sare lana indartu ahal izateko, hiru lurraldeak kontutan hartuz.

Oraingo honetan, gazteen elkarbizitza esperientziak elkarbanatu nahi izan du EGKk, kulturartekotasun egoera erreal baterako bidea hartuz eta horretarako, elkarteak EGKren laguntza ezagutu dezaten, ahal den neurrian bide horretan lagundu ahal izateko.



Jardunaldi hauek Zabaloetxek (Loiuko gazte integratzailearen zentroa) duen “Bakearen Jaima”-n egin da. Marokotik ekarritako Jaima hau Zurriolako hondartzan jarri eta bertan egin da topaketa, azaroak 11ean egun osoan zehar.

Topaketa honetan kulturartekotasunaren inguruan landutakoa kontutan hartu nahi izan da, baita genero ikuspegia ere.

Parte-hartzean indar gehiago egin nahi izan da, baita EGKren lana kalera atera ere hasierako asmo horretan lagundu ahal izateko. Esperientzia aberatsa izan da horretaz konturatzeko eta berriz ere hausnartzeko.

Izena eman zuten 20 pertsona eta horietatik denak etorri ez diren arren, Jaimaren inguruan pertsona asko hurbildu da, tarteka hitzaldi batean parte hartuz, beste baten bat irratian entzunda bere baserritik jaitsi egin zen elkarrekin bazkaltzeko. Baita, musika klaseko +55eko talde bat hurbildu egin zen, arratsaldean musika klase misto bat egiteko asmoarekin, bertan talde horretako pertsonak eta Zabaloetxeko gazteek kontzertu bat inprobisatu egin zuten. Honekin batera ere, eragile ezberdinen arteko lankidetzak suertatu ziren eta eguraldiak asko lagundu egin zuen egun horretan.

Hobetzeko esan, azkeneko momentura arte Jaima jarri gabe egon zela eta honek, berandu hastea egin zuen. Baita te-arekin arazoak izan ziren, Zabaloetxeko gazteek te-aren ospakizuna egiteko ez zelako osagaietan asmatu. Osagai bereziak behar zituzten eta horretarako ondoko herri bateko marokiar harategi batera joan behar izan zuten behar zutena erosteko.

Zabaloetxez gain, talde hauek hartu zuten parte; bai antolaketan, baita topaketa eguneko partehartzean ere: Kolore Guztiak, Kaeb Nai, Semilla de Mostaza Donostia, Garaipen, Kale Dor Kayiko eta Gazteizko Campillo Gizarte Etxeak.



3.3 Kulturartekotasuna eta elkartegintza

Deskribapena

Kulturartekotasunaren alde lan egiten duten elkarteek zein egitasmoen jarraipena egingo da, bide batez, sare-lana indartzeko eta lankidetza sustatzeko; hauek EGK-ren zutabeetako bi direlarik.

Hauek artean, Harresiak Apurtuz, Kaeb Nai, Mujeres Del Mundo Unidas, Kolore Guztiak, Garaipen, Euskal Interkultura eta bidetik aterako diren beste eragileek zein elkarteek jarraipena egingo da.

Ekimen honekin, etorkin eta etorkinen aldeko elkarteekin harremana sortu eta finkatu nahi da, EGK-ren presentzia bermatzeaz gain.

Helburuak

Orokorra:

- EGKk elkartegintza sustatzea modu aktibo batean

Zehatzak:

- Elkarre ezberdinak ezagutzea eta lankidetza bultzatzea
- Zenbait elkarteekin egindako egindako harremanak sendotu.
- EGK erakunde moduan jendarteratzea
- Gazte ikuspegia elkartegintzan txertatzea

Ekintzak eta epeak (kronograma)

A.- Jarraipena egin eta ekintzetan parte hartu.

B.- Kaeb Nai-k antolatzen duen jaialdian parte hartu.

C.- Bi hilean behin egindakoa ebaluatu.

Hilabetea	Ekintza		
Urtarrila	A		
Otsaila	A	B	C
Martxoa	A	B	
Apirila	A	B	C
Maiatza	A		
Ekaina	A		C
Uztaila	A		
Abuztua	A		C
Iraila	A		
Urria	A		C
Azaroa	A		
Abendua	A		C



Hartzaileak

- Harresiak Apurtuz
- Harresiak Apurtuz-eko taldeak
- EGK
- EGK-ren kide diren elkarteak
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak
- Gazte eragileak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintza eta kolaborazio kopurua
- Kontaktu berriak eta sare lana

Atal honetan aurrekoa hartu daiteke barne. Harreman berriak egin dirak, baita beste batzuk berreskuratu ere. Esanguratsua izan da *Kaeb Nairekin* (Gipuzkoa) berreskuratutako harremana. Honi esker, EGKren ekintzen berri izan dute urte guztian zehar eta Astialdi Foroaren barnean beraien proiektu zein erakundea aurkezteko aukera izan zuten, gainontzeko taldeekin harreman sareak egin direlarik.

Zabaloetxe gazte elkartearekin (Loiu) ere harremana sendotuz joan da eta elkarlan egiteko aukerak izan dira urte ososan zehar. Bereziki, Kulturartekotasun II Topaketa martxan jartzeko.

“Liga de estudiantes Saharauis” (EAE) taldearekin ere biltzeko aukera egon da. Haien batzarrerako Bizkaiako egoitza eskatu egin zuten eta honekin, lehenengo kontaktua egiteko aukera izan zen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Foroan parte hartzen jarraitu izan da. Lurraldeka egin dira bilerak, bi hilabetea behin gutxi gora behera. Hots, Bilbon bi eta gipuzkoan bakarra egin dira, EGKko egoitzan. Bilera hauen helburu nagusia, III Inmigrazio Planaren elaboraketan laguntzea izan da, “Partehartze Komisioan” hain zuzen ere.

Dagoeneko, Plana plazaratu egin dute eta oraindik zehazteke dago Foro honen jarraikortasuna. Aurrera egingo ote duen erabaki behar da eta bereziki, zein helburu jarraituko dituen barne hartzen dituen komisioak.



b) GENEROA ETA BERDINTASUNA

3.4 Tratu onen aldeko programaren jarraipena eta jardunaldiak

Deskribapena

“Tratu Onen Aldeko Programa” 2005eko martxoan hasi zen eta pertsona arteko harremanak hobetzeko praktika onak ikasteko tresna da. *Acciónenred* GKE-ak bultzatu du, eta 16 eta 20 urte arteko gazteentzako da.

Pertsona arteko indarkeriari, batez ere bikotekoari, aurre hartzeko bitartekoa izate nahi da; modu positiboan formulatua, harreman horiek zutabe gisa izan behar dituzten balioak oinarritzat hartuta: gizon-emakume arteko berdintasuna, autonomia pertsonala, nor bere bizimoduari buruz askatasunez erabakitzea baldintzatzaile sexistarik gabe, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea, erantzukizuna, errespetua...

Balio horiek onartzeak esan nahi du kontzientzia handiagoa izatea indarkeriazko harreman ereduak bultzatzen dituzten baldintza sozialei buruz eta geure portaera zehazteko dugun gaitasunari buruz ere bai. Programa honen ustez, hausnarketa kontziente hau indarkeriaren aurkako antidoto ona izan liteke. Aldiz, programa hau ez da “emakumeen kontua” edo “sexuen arteko borroka”; alderantziz, ahaleginak egiten dira frogatzeko emakume eta *gizakumeok* elkarrekin egindako apustuarekin soilik egingo duela aurrera.

Helburuak

Orokorra:

- Gazteen arteko harremanak hobetzeko praktiken inguruan hausnartu.

Zehatzak:

- Programa hau praktikan jartzen ari diren ereduei jarraitu eta euskal autonomi erkidegora egokitu eta espazio bat sortu.
- Pertsona arteko indarkeriaren aurkako prebentzioa sustatu
- Honen inguruko diskurtsoa eraldatu eta erantzukizuna zein errespetua sustatu
- Euskal gazteek gaur dituzten harreman moten inguruan hausnartzea eta eztabaidatzea.

**Ekintzak eta epeak (kronograma)**

A.- Programaren jarraipena egin.

B.- Talde lan bat sortu

C.- Bi hilean behin talde lanarekin dokumentuak landu eta hausnartu

D.- Jardunaldiak antolatu eta burutu

E.- Ebaluazioak eta aurrera begira zer?

Hilabetea	Ekintza				
Urtarrila	A				
Otsaila	A	B			
Martxoa	A	B	C		
Apirila	A				
Maiatza	A		C		
Ekaina	A				
Uztaila	A		C		
Abuztua	A			D	
Iraila	A		C	D	
Urria	A			D	
Azaroa	A		C		E
Abendua	A				E

Hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Berdintasunaren inguruan lan egiten duten gazte elkarte zein eragileak.
- Lesbiana, gay, trans eta bisexual elkarteak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Programaren egokitasuna
- Lan taldeak barne bilduko dituen elkarte eta eragile kopurua. Barne lana.
- Landuko diren dokumentu eta ekintza kopurua.
- Jardunaldien antolaketa eta ebaluaketa

EAE mailan Gasteizen jarri zen martxan egitasmo hau, baina bertan behera geratu zen. Horregatik gipuzkoara ekarri nahi izan du EGKk, ezagutzera emateko eta aurrera begira lan talde bat sortzeko.



Horretarako, Iruñeako lantaldearekin jarri da harremanetan oinarriak ezagutzeko. Bilera batean parte hartu izan da, baita beraien lanaren berri izan urtean zehar. Gaur, harremanak aurrera jarraitzen duelarik.

Baita ON:Giz elkartearekin lan taldea sortu zen jardunaldiari begira.



Iraila amaieran ospatu ziren jardunaldi hauek **“Alda dezagun tratua”** lelopean eta horretan, Asturiaseko “Tratu onen aldeko” taldeko bi aditu etorri ziren programa aurkeztera eta baita ON:Giz elkarteak ere beraien lan eta ideiak elkarbanatu egin zituzten.

Parte hartzaileen aldetik oso pertsona gutxi egon ziren. Alde batetik berandu hasi zen difusioa egiten eta urteko azken hilabete horietan ekintza asko egoteak eragina izango zuela uste da.



3.5 Berdintasuna elkartegintzaren barruan

Deskribapena

Emakumea lan mundura “ateratzearekin” batera elkartegintzan, instizuzio publikoetan etab. ari da bere urratsak ematen eta ingurua astintzen. Baina, nolakoa izan behar du emakumezkoaren papera elkartearen barruan zein mugimendu sozialen barruan? Eta emakumezko gaztearena? Honekin batera, eta aldaketa hauek kontutan edukita, nola erantzuten dute gizonezkoek? Batez ere gizonezko gazteek?

Galdera hauei erantzuna eman nahi zaio eta horretarako dokumentu bat eratuko da urtean zehar. Baita honen inguruan ikertu duten elkartearen berri zein ekarpenak kontutan hartuko dira.

Helburuak

Orokorra:

- Elkartegintzan emakumezko gazte zein gizonezko gazteen papera mahai gainean jarri.

Zehatzak:

- Gai honen inguruan hausnartu
- Elkarte ezberdinen egoerak ezagutu
- Gai hau jorratzen duten eragile zein elkartearen jarraipena egin.
- Dokumentu bat eratu

**Ekintzak eta epeak (kronograma)**

- A.- Gaiari buruz landu dena ikertu
- B.- Elkarteei bidaltzeko galdetegi bat prestatu
- C.- Galdetegia bidali eta erantzunak jaso
- D.- Erantzunak eta teoria lotu dokumentu baten eraketan
- E.- Ebaluazioa

Hilabetea	Ekintza				
Urtarrila					
Otsaila	A				
Martxoa	A	B			
Apirila	A	B	C		
Maiatza	A		C		
Ekaina	A		C		
Uztaila	A			D	
Abuztua	A			D	
Iraila	A			D	
Urria	A			D	
Azaroa					E
Abendua					

Hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Berdintasunaren inguruan lan egiten duten gazte elkarte zein eragileak.
- Lesbiana, gay, trans eta bisexual elkarteak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Landu denaren egokitasuna gazteei begira
- Elkarte eta eragileen erantzunak
- Sortutako dokumentua
- Bidean egindako harreman-sarea.

Atal honen barruan emakume gazteek elkartegintzan zein gizarte mugimenduen barruan duten edota izan nahi duten papera hausnartu nahi izan da.

Horretarako, eta Donostiako Emakumeen Etxearen lankidetzan, **“Non gaude emakume gazteak?”** topaketa burutu genuen apirilak 15 eta 16. Bertan gazte emakume talde hauek parte hartu zutelarik:

- Matraka
- Jaiki



Topaketa honen helburua Donostiako emakumeen etxetik etorri zen, emakume gazteak nola erakarri bilatzen zutelako.

Parte hartzaileen aldetik 10 bat emakume gazte egon ziren eta honen ostean, topaketan bertan egindako harremanak mantendu egin dira.

Bigarren topaketa bat ere martxan jarri zuen EGKk, maiatzean. Oraingoan **“Emakume gazteak bularreko minbiziaren aurrean”** saioa ospatu egin zuen Arabako koordinazioarekin batera **Gasteizko Judimendi gizartetxean**.

Saioan Luis Apeztegia Ciriza bularreko radiologian adituak hitz egin zuen; berak, besteak beste, arrisku familiar altua duten emakume gazteetan bularreko minbizia modu goiztiarrean hautemateko JARCAM programa gidatzen du Nafarroan.

Berarekin batera, bularreko minbizia duten emakumeen Saray elkarte nafarrak parte hartu zuen.

Horrez gain, gaixotasuna gainditzen ari diren 28 urteko bi emakume gaztek euren esperientzia eta bizipenak konpartitu zituzten. Ebaluaketari dagokionez:

1. Parte hartzaileak

Orotara 25 pertsona inguru izan ginen. Hauen artean, bularreko minbizia duten emakumeak eta minbizirik ez duten pertsonak.

1. 1. Elkarteen eta adituen presentzia

Lehenengo jardunaldi honetan parte hartzeko, elkarte eta aditu desberdinei zabaldu zitzaien deialdia. Lurralde bakoitzean lantzen diren tratamendu desberdinen berri izateko eta informazio hori elkar trukatzeko aukera ezin hobea zela ikusi zen. Antza denez, denbora faltagatik eta lan kargengatik, parte hartze hau ez zen nahi gauen bezala suertatu. Hori dela eta, parte hartze horretan faltan bota izan zen honako hauek izan ziren:

- Minbiziaren inguruan lan egiten duten elkarten presentzia: AECC (hiru lurraldetakoak).
- Minbiziaren inguruan lan egiten duten elkarte espezifikoen presentzia: ASAMMA (Arabak); KATXALIN (Gipuzkoan) eta ACAMBI (Bizkaian).
- Bestelako adituen presentzia (Osakidetza edota Onkologikoaren Onkologoak, Erradiologoak, medikuak orokorrean...).



1. 2. Gazteen presentzia

“Bularreko minbizia gazteengan” gaixotasun honen inguruko informazio eza dela eta, eztabaida eta informazio jardunaldi bat antolatzeke beharra ikusten da. Hasiera batetik gazteen artean informazioa elkar trukatzeko aukera polita zela ikusi da. Lan talde txikian landutakoarekin, gaixoaren errealitatean murgiltzea lortu zela uste da.

2. Hitzaldiaren egokitasuna

Saioan Luis Apeztegia Ciriza bularreko erradiologian adituak hitz egin zuen; berak, besteak beste, arrisku familiar altua duten emakume gazteetan bularreko minbizia modu goiztiarrean hautemateko JARCAM programa Nafarroan nola gidatzen duten azaldu zigun. Honen harira, esan beharra daukagu Nafarroan garatzen ari diren JARCAM proiektu berri honek emakume gazteen artean minbiziari aurre egiteko aukera bat ematen duela, bestelako leiho bat dela eta gainontzeko lurraldeetan lantzeko beharra ikusten dela.

Aurretik aipatu dugun bezala, bestelako onkologo edota erradiologorik ez zegoenez, minbiziaren inguruko azalpen teorikoagoak azaltzen saiatu zen Luis Apeztegiak. Hutsune hau izanda ere, izandako zalantza guztiak argitu zituen (teorikoki minbizia zer den, nola detektatu daitekeen, jarraitu beharreko jardunbideak, tratamenduak, zer nolako ondorioak dakartzaten tratamenduek...)

3. Talde dinamikaren eraginkortasuna

3. 1. Gelaren egokitasuna

Talde dinamikarekin hasteko, egokitu zen gela aproposa zen; lan talde txikian zein handian biltzeko aukera ematen baitzuen. Honekin lortu nahi zen gertutasuna bermatu zela uste da.

3. 2. DAFO analisia

Gertutasunaz gain, informazioa jaso eta gaixotasuna edota gaixoarekin enpatia izatea lortu nahi zen. Horretarako, egoera desberdinetan bizi ziren lau nesken bizitzak fitxa batzuen bitartez azaldu ziren. Denei, bularreko minbizi bat diagnostikatzen zaielarik. Datu hau kontutan hartuz, talde bakoitzak hausnartu zuen momentu horretatik aurrera, bizitzak ematen duen bueltari nola aurre egin zehaztuz, barnera begira, norberak dituen ahuleziak eta edota eduki ditzakeen sendotasunak eta kanpotik eduki ahal dituen aukerak; eta modu berean mehatxuak ere.

3. 2. 1. DAFO analisiaren ideiak nagusiak

Landu zen dinamika honekin, partehartzaileen arteko elkar ezagutza eta kasu ezberdinen aurrean hausnartzea lortu nahi izan da.





Jardunaldiak ixteko, aurrean aurkezten zaizkigun erronkak mahai gainean jarri ziren. Horien artean, elkarteak bertan dauden pertsonen osatzen dutenez, aukera ona izan daitekeela emakume gazteak erreleboa hartzen joateko, beti ere, horretarako indarrak eta esfortzuak dauden. Honen bidez, elkarteek eskaintzen dituzten zerbitzu eta laguntzak pertsona gazteentzako aproposagoak bilakatu daitezke, informazioa eta tailerrak adin ezberdinetara egokituz.

Honen harira, bi hutsune nagusi antzeman ziren ere. Alde batetik, elkarteen arteko elkarezagutza oso eskasa dela uste da eta aberasgarria izango litzateke hau sustatzea. Eta bestetik, osasun publikoa eta elkarteen arteko koordinazioa hobetuko balitz, gaixotasuna duten pertsonen erreferentzia osoago bat izateko aukera emango luke eta bete beharreko protokolo eta burokraziarekin laguntzea erraztu. Hau dela era, bigarren topaketa bat aurreikusten dugu 2012rako.

Bi esperientzia hauek izan dira atal honetan jorratu egin direnak. Baina beharrezkoa ikusi da, gizonezko eta emakumezkoen berdintasun harremanak elkartegintzaren barruan sakonago aztertzea. Hau dela eta, 2012.urterako EGKrako Berdintasun Plan bat martxan jarriko da arlo honen baitan, hemendik eta beste arloetatik ateratzen diren ekintza guztiek berdintasunaren inguruan hausnarketa batekin kanpora atera dadin. Beraz, hori izango da pausoz pauso aterako den dokumentu integrala.

c) LURRALDE ABERASTUAK ETA TXIROTUAK

3.6 Lankidetzaren garapenerako egitasmoak.

helburuak

Hiru helburu jarraitu ditu egitasmo honek:

- Gazteen bizi-baldintzen hobekuntzan laguntzea, beren bizi-proiektuak behar beste baldintza daukatela bermatuz.
EGK-k edo EGK-ko kideek gai ezberdinei buruz dituzten posizionamendua jendartzeratzeko, beste arloek idatzitako iritzi-artikuluak komunikabideetan txertatzeaz (eta artikuluen zuzentasuna bermatzeaz) arduratzen da Komunikazio teknikaria.

Helburuak

Gazteriaren Kontseiluak edo gazte-elkarteen sareko kideek gai ezberdinei buruz dituzten posizionamendua gizarteratzea.

Ekintzak eta epeak

Unean-uneakoak.

Hartzaileak

EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.
EGK Internet bitartez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.
Komunikabideak eta euren hartzaileak.

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Hauexek izan dira 2011n EGK-ko teknikariek idatzi eta EGK-ko Komunikazio Arloak komunikabideetan txertatu dituzten iritzi-artikuluetakoko batzuk:

Kukutza: “Ciudadanía vs. Mercado”.

Gara:

<http://www.gara.net/paperezkoa/20110731/282165/es/Kukutza/III:ciudadania////////vs/mercado/>

Gazteria politikak: “Emancipación juvenil o Coca-Cola?”

Deia: <http://www.deia.com/2011/08/31/opinion/tribuna-abierta/emancipacion-juvenil-o-coca-cola>

Gazteak eta maitasun harremanak: “Por otra cultura amorosa”

Diario Vasco: <http://www.diariovasco.com/v/20111031/opinion/articulos-opinion/otra-cultura-amorosa-20111031.html>



4.20 Beste komunikabide batzuekin kolaborazioa

Laburpena

EGK-k zenbait komunikabideekin kolaboratzen du:



Euskonews Gaztea Eusko Ikaskuntzako astekari elektronikorako artikulu bat idazten du hiru hilean behin, gutxi gora behera. Tamalez, aldizkaria 2011ko abenduan desagertu da diru-faltagatik eta, hortaz, 2012an kolaborazioa etengo da. Hauexek dira argitaratutako kolaborazioetako batzuk:

“Gazteak komunikabideetan: sagutegi eta sagu” (Komunikazio teknikaria)

<http://gaztea.euskonews.com/0555zbk/gaia55504.html>

“Utopiak horretarako balio du: ibiltzeko” (Bizi Baldintzak Arloa)

<http://gaztea.euskonews.com/0576zbk/gaia57608.html>

“Gazteria: amorrua eta gorrotoa, maitasunez” (Bizi Baldintzak Arloa)

<http://gaztea.euskonews.com/0560zbk/gaia56005.html>

“Gazteriaren Kontseilua: eredu oso bat jokoan” (Presidenteak)

<http://gaztea.euskonews.com/0571zbk/gaia57104.html>

“Negu Gorri Garaia” (Bizkaiko Koordinatzailea)

<http://gaztea.euskonews.com/0567zbk/gaia56705.html>

“Gazte gara gazte?” (Presidenteak)

<http://gaztea.euskonews.com/0584zbk/gaia58404.html>



Bestalde, Euskalerriko Eskautak federazioko **Goitibera** aldizkarirako artikulu bat idazten du hiru-hilean behin, gutxi gora behera (Gazteriaren Kontseiluak, edo Kontseiluko elkarteren batek, EGK-k berak bideratuta). Hauexek izan dira 2011n landutako edukietako batzuk:



Gazte Berdeak taldearekin orrialde bat lotu genuen. Zehazki, EGKren orrialdea laga genien eta “Ekologiko” kontzeptuari buruz idatzi zuten.

Hasi eta Hezi formazio-atalerako ere edukia kudeatu dugu unean-unean: zehazki, **Bizkaiko Urtxintxa Eskolarekin** lotu genuen atal horren edukia. Dinamika hauen berri eman zuen eskolak: “Emozioak harrapatzen”, “Zizarea” eta “Eskultorea”.

Bestalde, Bizi Baldintza Materialak arloak honako artikulua idatzi zuen:
“Para eso sirve, para caminar”, desazkunde mugimenduari buruz.

EGK-ko Berdintasun Arloak ere honako artikulua idatzi zuen Goitiberarentzat: **“Zein jarrera dute gaurko gazteek berdintasunaren aurrean? Beldurretik erantzunkizunera”**



EGK-k **Bizkaia Irratiko Lau Haizetara** irratsaioaren solasaldian parte hartzen du, unean-unean. Bestalde, Hamaika Telebistak eta Bizkaia Irratiak ekoizten duten Esatea Libre saioarentzat ere edukiak lotu ditu, unean-unean. EGK-ko Batiste Ezeiza presidenteak solasaldian parte hartu du. Bestalde, Bizkaiko Urtxintxa Eskolarekin ere harremanetan jarri geunen saioa.



Arabako Gazte Pastoraltzaren Gazteok XXI elkarteak, unean-unean, artikuluren bat eskatzen dio EGKri. Argitaratutako azkena, EGK-ko presidenteak idatzitako “Gazte gara gazte?” testua izan da.



b) KOMUNIKAZIO PROIEKTUAK –Komunikazio kanpainak haratago-

4.21 Gazte Borraste irratsaioa Tas Tas irrati librean



Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Gazte Borraste irratsaioa egiten du bi astean behin Tas Tas irrati librean (97 FM Bilbon). Gazte-errealitate ezberdinei buruzko ordu bateko espazioa da.

Bi astelehenean behin emititzen da, 20.00etatik 21.00etara. Hurrengo egunean, asteartean, 09.00etatik 10.00etara emititzen da berriro ere. Horrez gain, zatirik txukunenak larunbatetan Tas Tas eta Irola irrati libreek elkarrekin egiten duten Al Abordaje saioan ere emititzen dira. Webgunean ere podcastak eskuratu daitezke, <http://tas-tas.org/web/eu/gazte-borraste> helbidean.

Gazte Borraste irratsaioa bi arlok egiten dute: Komunikazio teknikaria eta Bizkaiko Koordinatzailea, beti ere EGK-ko beste arloetako laguntzarekin.

Saioak bi gako ditu: gazteak eta elkartegintza. Bi zutabe horien gainean eraikitzen ditu EGK-k eduki guztiak. Hainbat atal ditu irratsaioak:

Titularrak eta Suplenteak: gazteei buruz eta elkarteei buruz komunikabide ezberdinetan argitaratutako albisteen berri ematen duen atala.

Haria eta orratza: gai zentrala. Atal honetan, elkarte eta gazte mugimenduekin elkarrikeria eta solasaldiak egiten ditu EGK-k.

Zure belarrira: gazte-elkarte eta mugimenduen iritzi-zutabeak, unean-unean.

Rumore-rumore agenda: jendarte mugimendu ezberdinen deialdiak biltzen dituen atala.



Helburuak

Hainbat helburu ditu Gazte Borraste irratsaioak:

- Gazteen **errealitate ezberdinen berri** ematen du, begirada gazte batetik.
- Komunikabide handietan **lekurik ez dituzten ahotsak** entzunarazten ditu.
- **Gazte elkartegintzaren bozgorailu** izan nahi du.
- Gazte elkarteei **mikro-irekiko espazio bat** eskaintzen du.
- Gazte elkarteak eta mugimenduak **komunikazioan trebatzen** laguntzen du.
- Gazte elkarte eta mugimenduen **audioteka** (audio material bilketa) osatzen laguntzen du.
- Gazte **elkarrekin harremana** estutzen laguntzen du.
- Bere inguru hurbilenarekin konpromisoa duen eta bere inguru hurbilenean parte hartzen duen tokian-tokiko **komunikabide bat** sustatzen laguntzen du, euskaraz.
- Gizarte zibil antolatuaren **komunikazio eskubidea** gauzatzen laguntzen du.

Gazteak abiapuntu eta gazteak jomuga dituen irratsaio bakarrenetarikoa da Gazte Borraste Euskal Herriko irratigintza-parrillan. Gazteria zeharkako-ikuspuntua bezala txertatzen du jorratzen diuen gai guztietan. Izan ere, EGK-k uste baitu Politika guztiek (eta ez soilik Gazteria Politikek) eta proiektu guztiek (eta ez bakarrik gazteen proiektuak) eragina izan dezaketela gazteen errealitate anitzetan. Mundua gazteen ikuspuntu ezberdinetatik begiratu nahi du Gazte Borrastek. Begirada hori da seguraski irratsaioa berezi bilakatzen duena.

Ekintzak eta epeak

Aipatu bezala, EGK-k bi astean behin egiten du irratsaioa. **Astelehen eta asteartean** emititzen bada ere, irratsaio grabatua da eta, hortaz, edozein egunetan grabatu ohi da, astean zehar, elkarrizketatutako elkartearen ordutegiaren arabera.

Hauek dira irratsaioak eskatzen dituen lanak:

Ekoizpen lana. Elkarrizketatuekin hiztordua lotu, musika eta kuinak aukeratu...

Gidoia idatzi.

Irratsaioa grabatu.

Irratsaioa editatu eta zerbitzarira igo.

Irratsaioaren podcacst-a egin.

Irratsaioaren difusio-lana egin.

Hartzaileak

Tas Tas irratiko entzuleak.

EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk (irratsaioaren berri ematen baizaie).

EGK Internet bidez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.

Gazte elkarte eta mugimenduak eurak, euren mezuak helarazteko baliatzen baitute Gazte Borraste, bai eta komunikazioan trebatzeko ere.



Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Hauexek izan dira Gazte Borrasten landutako gaiak eta parte hartu duten eragileak:

- o **Unibertsitateko elkartegintza.** Ikasle Abertzaleak, Lurgorri, Ikasle Ekintza eta Leioako Gizarte Zientzien Fakultateko ikasle asanbladarekin.
- o **Emakume gazteak bularreko minbiziaren aurrean,** EGK-k antolatutako topaketa batzuen harira. EGK eta bularreko minbizia gainditu duten bi gazterekin.
- o **Gazte elkarteetan gatazken eraldaketa,** EGK-ko kide den Ede Fundazioaren Bakeola zentroarekin.
- o **“Alda dezagun tratua”,** gazteen arteko tratu onen aldeko jardunaldiak (EGK-k antolatuta), On.Giz elkartearekin.
- o Euskalerriko Eskautak gazte elkarteak sustatutako **Goitibera** aldizkariari buruzko gunea. Goitibera taldearekin.
- o **Gazte baserritarrak:** etorkizun aukera bat. EHNE sindikatuarekin.
- o **Herrigintza Gaztea** ekimena, proiektuaren sustatzaileekin.
- o **Marasma Saretzen** gazte ekimena, proiektuaren bi kiderekin.
- o **Udako brigadak.** Komite Internazionalistak eta Askapena.
- o **Gaztetxeak miran.** Koskoenea eta Kukutza gaztetxeetako kideekin.
- o **Pobreziaren aurkako astea,** REAS-Euskadi eta Ingeniería Sin Fronteras taldeekin (haiekin batera, besteak beste, EGK-k Pobreziaren aurkako astea antolatzen baitu).
- o **Etxebizitzen-erabilera kooperatibei buruzko jardunaldiak** (EGK-k eta Etxebizitza plataformak antolatuta), Sostre Civic elkartearekin.
- o **“Planoetatik kalera” jardunaldiak,** EGK-k antolatuta. Joseba Koldobika Arbaiza geografoa.
- o **Gazteak, Saharar Herriaren borrokaren lehen lerroan.** Paz con Dignidad eta gazte saharar bat.
- o **“Kultur aniztasunetik kulturartekotasunera”,** Mugarik Gabe elkartearekin, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) antolatutako jardunaldi batzuen harira.
- o **Pentsioen erreforma gazteengan** duen eragina, EHNE, LABeta ELA sindikatuarekin. CC.OO eta UGT gonbidatuta zeuden ere.
- o **Elikadura subiranotasuna,** Nekazal mugimenduen eta Nekazari bilakaeren hirugarren jardunaldien harira, MST eta Mundubat elkarteekin.
 - o **Gazteen sexu eta ugalketa eskubideak,** Medicusmundi-Bizkaiarekin.
 - o **Futbola, hirigintza eta generoa,** JAW estudioko arkitekta gazte batekin.
 - o
 - o **Gazteekin genero indarkeria** prebenitzeko tailerrak (Emakumearen Nazioarteko Egunaren atarian), Bizkaiko Urtxintxa Eskolarekin.
 - o **Etxebizitza Legea eta Etxebizitza Ituna,** EtxebizHitza plataformarekin (EGK-k bertan parte hartzen du).
 - o **Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna** (Kale dor Kayiko-Gazteak ijito elkartearekin).



4.21 AHOTIK AT ALDIZKARIA. 9.alea.

“Euskadiko Gazteriaren Kontseilua: 25 urte sareak josten”



Deskribapena

Ahotik At EGK-ren sei-hileroko aldizkaria da. Aurten, diru faltagatik, bakarra egin du Komunikazio Arloak (Administrazioa, Presidente eta Bizkaiko Koordinatzailearen laguntzarekin). Zehazki, 9. alea izan da, ale berezia: EGK-k 25 urte bete dituenez, bere ibibideari buruzko monografikoa egin du Kontseiluak, “25 urte sareak josten” izenburupean. Izan ere, orain arte ez dago Gazteriaren Kontseiluaren historia jasotzen duen dokumenturik. Aldizkari hau da lehen saiakera (eta, diru-faltagatik, EGK-k nahiko zukeena baino xumeagoa).

Helburuak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lana ezagutaraztea eta EGKren historiari buruzko lehenengo dokumentu idatzi bat argitaratzea.

Ekintzak eta epeak

Aldizkaria osatzeko, honako pausoak eman ditu EGK-k:

Gaiaren inguruko informazioa bildu eta edizioaren estruktura zehaztu.

Atalak osatzeko **elkarrizketak eta iritzi artikulatuak** lotu.

Testuak idatzi eta **maketatu**.

Aldizkaria **bidali**.

Aldizkariaren **difusioa** egin.



Hartzaileak

800 ale argitaratu dira paperean. Hartzaileak honako hauek dira, besteak beste:

- Egunkari, irrati eta telebistako erredakzioak.
- EGK-ko elkarteak.
- Beste elkarte batzuk.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Liburutegi eta kultur-etxeak.
- Institutu eta fakultateak.
- Gaztetxeak.

Horiez gain, beste 750 ale bidali dira webmail bitartez.

Bestalde, webgunean ere eskuratu daiteke aldizkaria.

Ebaluaketa irizpideak

Ez da ebaluazio sistematizaturik jarraitu. Hala ere, oro har, komunikazio arloaren arabera helburuak bete dira. Dena den, EGK-k behar baino langile gutxiegi dituenenez, nahi baino beranduago argitaratu zen aldizkaria, Komunikazio Arloak ezin izan baitzuen Durangoko Azokarako prest izan.



4.22 GAZTEPRESS prentsa-buletina

Gazteen kioskoa



Deskribapena

Hamabostero bidaltzen den buletin digital bat da. Gazteei buruzko edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen albisteak bildu eta sailkatu egiten ditu.

Hamar gai-multzo daude:

- Hezkuntza formala/ez formala.
- Elkarteen berri.
- Enplegua.
- Euskara.
- Etxebizitza.
- Astialdia.
- Ekimen kulturalak.
- Generoa.
- Aniztasuna.
- Garapenerako lankidetzak.
- Osasuna.
- Gazteak eta administrazioa.

Helburuak

Orokorrak:

- Hartzaileei gazteei buruz diren berriak eta gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak gaika sailkatuta helaraztea.

Zehatzak:

- "Gazteena eta/edo gazteentzat" irizpidea duen sailkapena bermatu (bakarra modu honetako EAEn).
- Gazteen inguruko albisteen eduki-jarraipena egin.
- EGK-ko teknikariei bere arloko lanarekin lotuta egon daitezkeen albisteen berri eman.
- Webguneko 'Gaur Prentsan' atala eguneratua izatea.

Ekintzak eta epeak

Komunikazio Arloak ia egunero hornitzen du GaztePress atala, eta hamabostean behin egiten du bidalketa.



Hartzaileak

GaztePRESek gaur **egun 750 harpidedun** baino gehiagorengana heltzen da: besteak beste, EGK-ko elkarteak, beste elkarte batzuk, gazte informazio bulegoak, zenbait komunikabide, talde politikoak, Eusko Jaurlaritza, Aldundietako eta udaletxetako zenbait teknikari daude hartzaileen artean.

Ebaluaketa irizpideak

Buletin guztiak bidali dira. Ezin izan da egin bestelako ebaluazio-jarraipenik, beste kasu askotako arrazoi beragatik: EGKn langile gutxiegi dago hainbeste proiektu garatzeko.



4.23 EGK Digitala

Hiru-hileroko buletina



Deskribapena

Hiru-hilean behin EGKren jardueraren berri ematen duen buletina digitala da egkDIGITALA. Kontseiluak epe horretan zehar egin duenaren berri ematen du buletinak, hurrengo ezaugarriekin:

- Bost-zortzi orrialde izaten ditu.
- Berriak formatu-laburrean ematen dira, buletin arina, erakargarria eta irakurterraza izan dadin. Irudiak gehitzen ditu.
- Elebiduna da.

Helburuak

Buletin honen xede nagusia EGK-ren lana ezagutaraztea da, eta zehazkiago, kanpora-begira hain agerikoa ez den barne-lanaren berri ematea ere. Horretaz gain, beste helburu bat ere badu buletin honek: hartzaileekin harreman iraunkor eta erregularra izatea.



Ekintzak eta epeak

Hauexek dira buletinak eskatzen dituen lanak:

Albisteak jaso: hiru hilekoa bukatu baino hiru aste lehenago, egindako lanaren berri emateko eskatzen die Komunikazio teknikariak beste teknikari guztiei.

Buletina idatzi eta maketatu: behin informazio osoa jasota, Komunikazio teknikariak buletina idatzi egiten du (euskaraz eta gaztelaniaz) eta maketatu egiten du.

Zabaldu: Behin osatuta, webgunera igotzen da, sare sozialen bidez zabaldu eta webmail bitartez harpidedunei bidali.

2011n lau buletin egin behar zituen EGK-k (bat hiruhileko bakoitzeko), baina, Komunikazio Arloaren gehiegizko lan-karga dela eta, bi baino ez ditu egin.

Lehen hiruhileko EGK-digitala:

http://www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_61.pdf

Bigarren hiruhileko EGK-digitala:

http://www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_65.pdf

Hartzaileak

700 postontzi digitaletara heltzen da: zehatz-mehatz, gazte elkarte, gazte bulego, institutu eta administraziooko gazteria arlotara iristen da.

Ebaluaketa irizpideak

Aurten, lehenengo bi hiruhilekoen buletinak egin ditu Komunikazio Arloak. Ordea, urtearen bigarren zatiko buletinak ez ditu egin, aurreko zenbait kasutan azaldutako arrazoi beragatik: EGKn langile gutxiegi dago hainbeste proiektu garatzeko.



4.24 Durangoko Azoka. Gazte elkartegintzaren erakuslehoio.



Deskribapena

EGK-k stand bat ordaintzen du Durangoko Azokan eta Kontseilua osatzen duten elkarteei stand-ean parte hartzeko aukera luzatzen die. Aurten 8. urtea izan da EGK-k Durangoko azokan stand bat izan duena. Parte hartu dute: **Kale dor Kayiko** Bizkiko ijito elkartea; **Askagintza** droga-mendekotasun fenomenoaren normalizaziorako elkarteak eta **Ikasle Abertzaleak** taldeak. EGK-k ere bere materiala zabaldu du Azokan.

Helburuak

Orokorrak:

- Gazte elkarteen lana ikustarazi.

Zehatzak:

- Materiala banatu/saldu.
- Elkarteen arteko ezagutza sustatu.
- Jendearekin harreman zuzenerako 'leihatila' izan.
- Euskara eta euskal kulturgintza sustatzeko hitzordu batekin bat egin.

Ekintzak eta epeak

Honako pausuak eman ditu Komunikazio Arloak:

- . **Elkarteei proposamena luzatu:** irailean, gonbidapena bidaltzen zaie EGK osatzen duten talde guztiei, e-mailez. Behintzat hiru elkarteak parte hartu nahi badute (hori da EGK-k stand-a alokatzeko finkatu duen gutxieneko kopurua), lekuaren erreserba egiten da.
- . **Elkarteekin bildu eta katalogoa osatu:** parte hartuko duten elkarteekin antolakuntza bilera bat ospatzen da, irailean. Talde guztiek eramango duten materialaren berri jasotzen du EGK-k, katalogo orokor bat egiteko. Katalogo hori gero Gerediaga elkarteari bidaltzen dio Komunikazio Arloak urrian.. Horrez gain, stand-ean ere erabiltzen da.
- . **Azokaren ordua:** Standa prestatzeko, standean egoteko eta stand-a jasotzeko txandak taldeen eta EGKren artean betetzen dira, abenduaren 4tik 8ra bitartean.
- . **Ebaluazio bilera:** Behin azoka bukatuta, ebaluazio bilera egin zuten EGK-k eta gainerako eragileek, hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak jasotzeko.



Hartzaileak

- Parte hartu nahi duten EGK-ko elkarteak.
- Durangoko Azokara dihoazenak.

Ebaluaketa irizpideak

Abenduaren 20an ebaluaketa bilera egin zuten EGK-k eta Ikasle Abertzaleak, Askagintza eta Kale Dor Kayiko elkarteek. Taldeen balorazioa oso positiboa izan zen, zenbait arrazoiengatik:

- Elkarteek Durangoko Azokaren balioa nabarmendu dute, bere lana **ikustarazteko** aukera aparta den heinean.
- Bestalde, orokorrean **salmenta eta material banaketarekin** pozik daude.
- Azokan parte-hartzen duten **elkarteen arteko harremana** ere oso positibotzat jotzen dute. Izan ere, beste espazio batzuetan elkartu ez ohi diren elkarteak elkartzen baititu azokak. Aurten, gainera, txanda mistoak egin dira lehen aldiz: alegia, elkarte ezberdinetako gazteak egon izan dira txanda berean, estrainekoz. Datozen urteetan bide horretatik jarraitzeko egokitasuna adierazi dute bildutako gazte-eragileek.
- Datorren urtera begira, bestalde, bi-stand hartzeko aukera kontutan hartzea proposatzen da. Diru-faltagatik, dena den, ezinezkoa izango da.
- Bestalde, Durangoko Azokan parte-hartzearen ondorioz, Landako Guneko 2012ko **kultura-gonbidatua Ijito Herria** izatea proposatu zion Kale Dor Kayiko elkarteak Azoka antolatzen duen Gerediaga Elkarteari. Elkartheak onartu egin du eta, ondorioz, datorren urtean Ijito Herria izango da Azokako Gonbidatua. Horrek ijitoen ikustaraztea eta jendarteratze positiboa eragingo duenaren konbentzimendu osoa dute KDK-k eta EGK-k.





4.25 Elkarreentzat komunikazio erremedioak

Gazteak komunikabideen esparruan trebatzeko ikastaroa

Deskribapena

Prentsaurrekoak antolatzen eta prentsa-oharrak idazten ikasteko eta irrati eta telebistan elkarriketak lotzen jakiteko tailer praktikoa izan da. Goizez eta arratsaldez burutu da, urtarilaren 29an (larunbata). Tailerrarekin batera, [komunikazio-gida](#) bat banatu zen, material gisa.

Helburuak

Orokorrak:

- Elkarreentzat aritzen diren lagunei prentsaurrekoak antolatzen eta prentsa-oharrak idazten zein irrati eta telebistan elkarriketak lotzen jakiteko gutxieneko jakintzak eman.

Zehatzak:

- Komunikazioa elkarreentzat helburu estrategikoa dela jabeaz.
- Hedabideetan gazteei buruz ematen den irudia hobetu.
- Komunikazioari begira gazte-elkarreentzako erroreak antzemana.
- Elkarreentzako arteko ezagutza sustatu.



Ekintzak eta epeak

Hauexek izan dira emandako pausuak:

Elkarteei proposamena luzatu: webgunearen bitartez, e-mailez eta sare sozialen bitartez deialdia zabaldu.

Antolakuntza: tailer-emaileen artean bilera egin, ariketa-koadernoak prestatu, materiala antolatu.

Tailerra eman: ikastaroa burutu. Hainbat pauso ditu: gosaria, talde-dinamika, tailer-emaileen hitzak, bazkaltzeko pausa, irrati-ariketak, elkarren arteko kontaktua trukatzeko fitxa eta ebaluazio-orria, besteak beste.

Hartzaileak

- Ekoliderrak.
- Greenpeace
- Kepasakonlakasa.
- Itsasgela
- Bakeola
- Cáritas gipuzkoa
- Munduko emakume batuak.
- Gaztedi txiki.
- Askapena.
- Mundukide.
- Kazetari gazteak.

Ebaluaketa irizpideak

Ekintzaren amaieran helburuak bete ote diren jakiteko ebaluazio fitxak banatu ziren. Ebaluazioa guztiz positiboa izan zen eta, horrez gain, tailer gehiago emateko eskatu ziguten. Zehazki, sare-sozialak erabiltzeko tailer praktikoa eskatu zuten parte-hartzaileetako asko. Alegia, Facebook, Twitter, Tuenti eta Google+ bezalako sareei probetxua ateratzeko gomendio eta azalpenak.

Diru eta pertsona faltagatik, EGK-k ezin izan ditu komunikazio-ikastaro gehiago eman ahal izan.



4.26 Berriz Berri

Hileroko poster-agenda

Deskribapena



Urte osoan zehar gazteek egiten dituzten ekintzen berri zein gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekimenen berri emateko EGK-ren **posterra da. Hilabetean behin** (udarako oporretan salbu) 10-12 albiste sartzen dira Berriz Berrian (ikastaroak, jaialdiak, mobilizazioak, topaketak...). Guztira, **papereko 1.800 ale** banatzen dira EAeko unibertsitate, institutu, liburutegi, gaztetxe eta elkarteetan artean. Horiez gain, **beste 750-bat** bidaltzen dira webmail bitartez.

Helburuak

Orokorrak:

- Gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen **hitzorduen berri** ematea, bai elkartegintzan diharduten gazteei zuzenduta, bai eta gazte ez antolatuentzat ere.

Zehatzak:

- Baliabide gutxi dituzten elkarteei (EGKko elkarteak lehenetsita) bere deialdiak zabaltzeko euskarri bat eskaini, bere taldea **ikustarazteko** tresna bat izan dezaten.
- Elkarteek hala eskatuta, taldeen foileto eta txostenak **enkartatu** (alegia, berriz-berriarekin batera bidali).
- **Euskara** sustatu (%80 euskaraz).
- Ale bakoitzean gai-aniztasuna eta iturri-aniztasuna bermatu: astialdia, euskara, generoa, osasuna, enplegua, garapenerako lankidetzaz...



Ekintzak eta epeak

Hauexek dira Komunikazio Arloak hilero ematen dituen pausoak:

Albisteen jasotzea: Hilabeteko bigarren artean EGK-ko elkarteei eta gainerakoei BZBrako deialdia luzatzen diegu, poster-agendan txertatu nahi dituzten berriak bidali diezazkiguten.

Berriz Berria diseinatu: behin informazioa bilduta, posterraren edukia eta irudia diseinatzeko dira.

Bidalketa: eginda dagoenean, bidalketa prestatzen da (*enkarteren* bat egin behar baldin bada, adibidez, prestatzen da).

Difusioa (webgunea, sare sozialak eta posta elektronikoa baliatzen ditu Komunikazio Arloak Berriz Berriaren argitalpenaren berri emateko).

Hartzaileak

- **Papereko 1.800 harpidedun EAEn:**
 - o EGKko elkarteak.
 - o Beste elkarte batzuk.
 - o Institutuak.
 - o Zenbait fakultate eta liburutegi.
 - o Gazte-bulegoak.
 - o +webguneko bisitariak (eskegita baitago).
- **750-bat harpidedun elektroniko:**
 - o Gazte eragileak eta norbanakoak.

Ebaluaketa irizpideak

Urtean behin, elkarteek Berriz Berria ebaluatzeko **fitxa** bat jasotzen dute. Aurten ez da bidali eta, beraz, ez da ebaluaketarik egin, diru eta pertsona faltagatik. Dena den, Komunikazio Arloak balorazio positiboa egiten du. Izan ere, EGK-ko 20 elkartek baino gehiagok baliatu dute, eta EGK-koak ez diren gutxienez beste horrenbestek ere.

Bestalde, azaroan eta abenduan Berriz Berriaren itxura aldatu zen. 2012an, itxura-hobetze horretan sakondu nahi du Komunikazio Arloak.



4.27 WEB orrialdea eta SARE SOZIALAK kudeatu



Deskribapena

Webgunea (www.egk.org) eta sare sozialetan ditugun profilak (Twitter, Facebook eta Tuentin) eguneratzen ditu EGK-k ia egunero.

Helburuak

EGKren atarian EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea.

EGKren argitalpenak interneten eskuragarri jartzea.

EGK-elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarten jardueren berri ematea, webguneko agendan.

Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.

Elkarten direktorio gaurkotu bat mantentzea.

EGK-ren irudia zaintzea.

Hori guztia sare sozialen bidez gizarteratzea.

Ekintzak eta epeak

Ia egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak bai webgunea (www.egk.org) bai sare sozialetan kudeatzen dituen profilak ere (Twitter, Facebook eta Tuentin).



Hartzaileak / jarraipen eta ebaluaketa irizpideak

Google Analytics bitartez neurtzen ditugu webgunera bisitak.

2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31era bitartean, hauexek izan dira datuak:

- **34.995 bisita.**

- **22.336 bisitari ezberdin.**

- %62 bisita berri

- %53a, gaztelaniaz. Gainerako gehienak, euskaraz.

- Albisteak, agenda eta elkarteen-zerrenda izan dira gehien bisitatutako atalak.

- Bilbon dira sarrera gehienak. Jarraian, Donostian eta Gasteizen. Las Arenas, Getxo, Eskoriatza, Eibar, Urnieta eta Iruñean ere bisita kopuru nabarmena dago. Horiez gain, Akitania, Madril eta Bartzelona bezalako lekuetan ere EGK-ren ataria bisitatzen duet.

Sare sozialei dagokienez, honakoak dira EGK-k dituen lagunak eta jarraitzaileak, urtarrilaren 16an:

3.357 jarraitzaile Facebooken.

466 jarraitzaile Twitterren.

500 jarraitzailetik gora Tuentin (mila-erditik gora, sare sozial honek ez du kopurua zehazten).



4.28 Beste lan batzuk



Laburpena

Labur-labur, hauexek izan dira EGK-ko Komunikazio Arloak 2011n zehar garatutako beste lan batzuk:

KOMUNIKAZIO AHOLKULARITZA:

Aholkularitza edo baliabideak (gela, materiala, helbideak...) eskatzen dizkieten gazte-taldeei laguntza ematen die EGK-ko komunikazio arloak. Aurten, bi talderen komunikazio-eskakizunak nabarmendu daitezke:

Ikasle Sindikatua. Greba-deialdia aurkezteko prentsaurrekoa eman nahi zuen eta Komunikazio Arloak deialdiak egiteko eta prentsa-oharra idazteko eta zabaltzeko laguntza eman zion, bai eta komunukabideen helbideak ere.

Gazte Komunistak. “Rebélate” kanpaina jendarteratzeko komunikazio-baliabideak eskatu zituzten. Zehazki, EGK-ko Bilboko gela eta komunukabideen helbideak. Horrez aparte, Komunikazio Arloak bere kanpaina jendarteratzen lagundu zien, webgunea eta sare sozialen bitartez.

INDARTZEN PROZESUA:

EGKren berrindartze eta berbideratzeko Indartzen prozesuan parte hartu du (eta hartzen du) EGK-ko Komunikazio Arloak.

ZUZENKETAK ETA BESTELAKO BARNE LANA:

Komunikazio Arloak EGK-ko bestelako arloen dokumentuak zuzendu ohi ditu, bai eta txosten eta argitalpenak ere.

Bestalde, EGK barneko bilera eta Batzar guztietan parte hartzen du Komunikazio teknikariak, bai eta Kontseiluak dakartzan bestelako barne lanetan ere.



5. LURRALDE TASUNA

5.1 Gazteria Politiken EAEko mapa: Gaztelink

Deskribapena

Gaztelink, www.gaztelink.org, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2010 urteko ekainean martxan jarritako proiektua da. Gazte eragileen arteko harreman faltaz jabeturik sare lanean lagundu eta indartzeko arrazoiei erantzun nahian sorturiko gune edo plaza birtuala da.

Zentzu horretan, gazte teknikari, gazte elkarte, gazteei zerbitzuak eskaintzen dizkien elkarte edo norbanako gazteei irekia dagoen gunea da. Norberak bere profila ireki, sortu eta elikatzean oinarritzen da, ahalik eta horizontalena izan eta kudeaketa askeena izateko asmoz egina.



Bertan, profila sortzen duen edonork zintzilika ditzake antolaturiko ekitaldi, hitzaldi, zein era guztietako deialdiak. Horrekin batera, foroen bidez eztabaida gaiak sortu eta iritziak elkar banatzeko aukera eskaintzen du. Bestetik, blogak sortu edota aurretik daudenekin uztartzeko aukera ematen du. Finean, aukera desberdinak eskaintzen ditu, denak, gazteen inguruan lanean dabilen eragile ororen lan, ideia, duda... besteekin konpartitu eta indar berrituta ateratzeko helburuarekin.

Gune honen indarra, norberak modu aske batetan antolatzen dituen gauzak zintzilikatu eta publikatu ditzakeela da eta zentzu beretik bere ahuldade nagusia ere bada. Kudeatzaile batek ekitaldiak zintzilikatzen ez egotean, hau bertako kide direnak elikatzen ez badute, bakarrik eroriko den tresna bihurtzen da Gaztelink. Horiek dira txanponaren bi aldeak. Hori dela eta aurtengo urteari EGK-k jarri izan dituen helburuak nagusiki bi izan dira: dauden erabiltzaileak bermatzea eta bestetik sektore berrietara iristea.

Helburuak

Orokorrak:

- Gaztelink erabilera bultzatu.
- Gaztelinken mantenua eta webaren dinamizazioa.
- Gaztelinken difusioa.

Zehatzak:

- EAEko gazte eragileak burutzen dituzten ekimenen berri izan eta horien hedapena eta gizarteratze lana Gaztelinken bidez egitea sustatu.
- EGKko barne sarearen lana Gaztelink plataformara bideratu.
- Jasotako informazio berria etengabea sistematizatu.
- Agertzen diren baliabide informatiko berriak aplikatu.
- Informazio eta tresnaren garrantzia azpimarratu erabilera suspertzeko.
- Tresna ezagutarazi, elkarte, talde eta eragile desberdinekin bilduz.

**Ekintzak eta epeak**

- a) Lurraldeko Administrazio desberdinetako errealitateei hurbilketa eta koordinazioa.
- b) EGKko elkarteekin koordinazioa.
- d) Beste eragileekiko hurbilketa eta koordinazioa.
- e) Euskarri informatikoaren etengabeko errealitatearekiko egokitzea
- f) Baliabide informatiko berriak erremintan ezarri

Hilabetea	Ekintza				
Urtarrila	A	B	D	E	
Otsaila	A	B	D	E	
Martxoa	A	B	D	E	
Apirila	A	B	D	E	
Maiatza	A	B	D	E	
Ekaina	A	B	D	E	
Uztaila	A	B	D	E	
Abuztua	A	B	D	E	
Iraila	A	B	D	E	F
Urria	A	B	D	E	F
Azaroa	A	B	D	E	F
Abendua	A	B	D	E	F

Hartzaileak

Hartzaileak, hurrengo laurak izan dira:

1. EGKko elkarteak
2. EAEko beste elkarteak
3. Administrazioetako gazteria sailak.
4. Gazte ez elkartuak

Ebaluaketa irizpideen arabera

Bide horretan 2011ko urtean Gaztelink tresnaren erabilera bultzatu da neurri handi batean jada erabiltzaile diren horien artean, tresna erabiltzen jarrai dezatela edota egunerokoan ordenagailuan daudela bertara sartzeko ohitura sustatuz.

2011ko urte hasierako hilabetetan, elkarten artean ezagutza aurrera zihoala ikusi zen baina, aldiz, Administrazioaren artean gutxiago ezagutzen zela hausnartu zen. Aurkezpena gauzatu zenetik, udal teknikarien interesa egon ez zenez, konponbide bat bilatzeko beharra ikusi zen. Hori dela eta, Arabako Gazte Bulegoetan eta Gazte teknikariei zuzendutako kanpaina bat jarri zen martxan otsailean. Honen barruan, hainbat kartel eta egutegi banatu ziren eta Posterrarekin, alde batetik, bai gazte teknikariei bai gazte bulegoetan egongo diren gazteengana iristeko bide bat bezala. Aldi berean Araban, adibidez, Gasteizko Udaleko Gazteriako Gazte Planeko Jarraipen Batzordean erremintaren aurkezpen bat egin zen. Gipuzkoan, proiektua eragileen artean zabalduz joan zen,



urtarriletik martxora bitartean, bereziki. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hilero ospatzen diren bileretan gaztelink eta gipuzkoagazteria.com orrialdeak uztartzeko saiakaera egin zen. Dena dela, gaztelink-en arazo teknikoek bertan behera utzi zuten saiakera.

Bizkaian aldiz, aipatu beharra dago Gaztelink jaio zen aurreko urteetan (2009-2010) egindako bilera eta bisita lanaren ondorioz, aurtan ez direla beharrezkoak ikusi tokian tokiko hainbateko jardura. Gainera, EGKk abiarazitako Bizkaiko koordinatzailearen eta gainontzeko herrialdeetako enplebo prozesuek moteldu dutela ein handi batean erremintaren gaineko ikuskaritza, dinamizazioa eta egokitzapenak. Gauzak horrela, hauexek dira aurtan burututakoak:

- Administrazioarekin: EGK - Bizkaiko Foru Aldundia ohiko koordinazio bileretako zeharka puntua izan da: 2 bilera
- EGK barruko elkarteekin: Urtxintxa, Bosko, ONCE, EH Eskautak Bizkaia, Kale Dor Kayiko, AVIEM, Ikasle Abertzaleak, JOC eta Gaztetxoak eskolarekin egindako hurbiltze bileretako komunikazio baliabideen atalean jorrotuta: 9 bilera
- Euskal Herriko hainbat gazte komunikabide proiektuekin: Topatu.info, euskalerria.info, Tas-Tas irratia. 3 bilera.
- Bestelakoak: Huhezi unibertsitateko ikusentzuneiko ikasle baten ikerketa tesiaren gaia edo ardatza Gaztelink izan denez, laguntza eta informazioa eskaini zaio, Gaztelink bera hobetzeko 3 bilera
- Tresna bera egokitzeko (spama, filtroak,...) eta formula berriak bilatzeko informatika programatzaileekin: 3 bilera
- Lurralde koordinatzaileen bilerak: 5 bilera

- GUZTIRA: 25

Bestetik, Gaztelinken mantenu eta webaren dinamizazioari buruzko ebaluazioari dagokionez, tresna erabiltzea zen irizpideetako bat, urte erdialderako bete dena baina udaz geroztik ordea, ez da nahi beste sustatu arazo teknikoengatik eta hortik abiatu beharko lirateke 2012ko ahaleginak. Gizarteratzean egindako esfortzuak egon arren, ez da talde zein eragile administratiboen inplikazioa nahi beste lortu. Hala ere, Gazteria Politiken inguruan lanean dauden artean tresna honen beharra argia dela antzematen zenez, erabilera sustatzeko tresna hasierako gazteria politikak aztertzeako foroarako erabili izan zen (bigarren gazteria politikak aztertzeako foroak gaia proposatzeko eta gainontzeko gaiak lantzeko).

2011k hortaz, bi fase izan dituela esan daiteke. Hasierako batean, Gaztelinken aurkezpen publikoa abian jarri zenean, uztaile arte luzatu zena. Paraleluki, EGK-ko Arabako elkarteekin eta bestelako eragileekin adibidez, koordinazioa egin da. Bi prozesu hauek, noski ere, euskarri informatikoaren etengabeko errealitatearekiko egokitzapenarekin bat egin dute. Hasierako prozesuan, lurraldeko koordinatzaileak eta EGK-ren presidentea ibili ziren prozesu honetan. Behin euskarria martxan zegoenean, ordea, erreminta eta serbidorearekin arazoak egon ziren: spam-ak sartzen ziren, euskarria betez, aplikazio batzuk ez zebiltzaten behar bezala, konektatzeko arazoak ematen zituen... Hori dela eta, aplikazio batzuk kentzea erabaki zen eta geroztik, ezin izan da euskarria behar bezala



erabili eta jendea euskarria erabili zezaten animatu. Beraz, beharrezko hobekuntzak egin beharko lirateke erreminta erabili ahal izateko.

Zentsu honetan, urte amaieran GAZTEAK SAREAN, LIBRE?! deituriko ihardunaldi bat prestatu da, 2012ko hasieran burutuko delarik, lan talde teknikoa eta koordinatzaileak denbora eta lanez gainezka ibili direlako (Ikus B.I. Eranskina). Gazteok, internet eta sare sozialak eskaintzen dituzten zerbitzueta zein erabilpen mota egiten dena aztertzeke helburuarekin batetik, eta gazte eragileek eduki ditzaketen plataforma digitalak elkar-elikatu eta indartzeko aukera aztertzeke xedearekin bestetik. Berebiziko garrantzia eduki dezake gai honek Gaztelink-en etorkizunean, ihardunaldietan ateratako ondorioek bide-orri bat zehaztu dezaketelarik.



5.2 EGKko elkarteekiko lana

Deskribapena

Egun, 57 elkarte osatzen dute EGKk duen kidegoa. Hori guztien artean, aniztasuna da nagusi: ekologistak, alderdi politikoetako gazteriak, kulturartekotasuna, gutxiengo kulturak, astialdi taldeak eta eskolak, kristau gazteak, ikasleak, ezintasun fisikodunak, bakezaleak eta antimilitaristak. Bakoitzak bere esparrutik, eskeintzeko asmoarekin parte hartzen du EGKn, horrela bi norabidezko erantzunkizuna sortuz.

Erantzunkizun horrek behar batzuk sortzen ditu, bai elkarteekiko bai EGKrekiko. EGKko lurraldetasuna arloari dagokionez, elkarte horien ganean, beharrak, laguntza, aholkularitza, informazioa, sare lanean sartzea, elkarlanera bultzatzea ditu helburu. Era berean, barneko sare lana bultzatu: elkartearen arteko harremana eta elkarlana bultzatu, suspertu eta indartu.

Baina guzti honetarako elkarte bakoitzaren egiturak eta funtzionamenduak bermatuta egon behar du. Elkartearen parte hartzea beste gauzetan ez da posible euren lehentasunak asetuta ez badituzte, euren gutxiengo funtzionamendua bermatuta ez badute.

Hein handi batean, horretan datza lurraldeko koordinatzailearen lana: elkartearen egoerari so egitea, euren beharrak eta kexak ezagutu, behar duten guztirako laguntza eskaintzeko. Baita EGKren baliabideak eskaini, sortzen diren lantaldeetan parte hartzea bultzatu; beste elkarteekin harremanetan jarri elkarlana bultzatuz eta EGKn parte hartze aktiboa eragin, elkarte bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, noski.

Helburuak

- EGK eta bere elkarteak indartu.
- Harremanean sakondu.
- Erantzunkidetasuna sustatu.
- Bideratzaileak izan.
- Barne sarea indartu.
- Administrazioekiko bitartekari lana burutu.

**Ekintzak eta epeak**

- a)** Elkarrekin harremanetan jarri. Banan banako bileretarako deialdia zabaldu. Email eta telefonozko deiak egin, elkarrizketa zehaztu arte. Euren lokaletara bixita, hurbiltasuna erakusteko. Euren egoerari jarraipena egin, dituzten beharrak, kexak, plangintza...ezagutu. EGKren komunikaziorako eta bestelako baliabideak eskaini.
- b)** Elkarteen artean EGKren berriak zabaldu. EGKtik sortzen diren egitasmoei, lan taldeei, publikazioei, jarduerari hedapena eman elkarteen artean, batez ere emailaz. Baten batek besteak baino interesa handiagoa eduki balezake, bereziki berarengana jo.
- c)** Beste elkarteen berriak/jarduerak zabaldu EGKko elkarteen artean. EGKtik kanpo datozkigun beste eragileen jardueren berriak zabaldu gure elkarteen artean, emailaz edo web-orriaren bidez.
- d)** Elkarteen proposamenak jaso. Bai banan banako bileretan, bai urtean zehar emailaz edo telefonoz. Behin jasota, elkarrekin garatuko genuke zer egin, zelan, noiz, nor(tzue)i.
- e)** Elkarreei proposamenak bideratu. Bai EGKrekin elkarlanean, beste elkarrekin edota zuzenean elkarte horri berezko proposamena bideratu.
- f)** Sare lana bultzatu. Elkarteen plangintzak ezagutuz gero, antzeko helburuak, jarduerak edo interesak eduki litzaketen elkarreei elkarlanerako proposamena zabaldu.

Hilabetea	Ekintza					
Urtarrila	A	B	C	D	E	F
Otsaila	A	B	C	D	E	F
Martxoa	A	B	C	D	E	F
Apirila	A	B	C	D	E	F
Maiatza	A	B	C	D	E	F
Ekaina	A	B	C	D	E	F
Uztaila	A	B	C	D	E	F
Abuztua	A	B	C	D	E	F
Iraila	A	B	C	D	E	F
Urria	A	B	C	D	E	F
Azaroa	A	B	C	D	E	F
Abendua	A	B	C	D	E	F

Hartzaileak

EAEko 57 elkarte (Ikus ___. eranskina)



Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Arabán hasteko, aurten ere 2011 urtearen ezaugarri nagusia koordinatzaileen arteko txanda aldaketa izan da. Honek, jarraipenaren aurka jo badu ere, EGK-ko elkarteei zuzendutako harreraren nolabaiteko onurak ekarri ditu. Pertsona berri bat sartzerakoan duen zeregin lehenetarikoena lurraldeko elkarteak ezagutzea da eta, hortaz, Arabako kasuan behintzat nahiz eta koordinatzailea berri- berria ez izan, norbanakoen bilerak ziurtatu dira batez ere, elkarteetan ere ematen diren erreleboen jende desberdin eta berria ezagutzeko.

Hortaz, Koordinatzaileak 2011 zehar EGK osatzen duten elkarteekin zuzeneko harremana izaten saiatu dira. Barne mailara begira, izan diren erreleboekin eta egk-ko elkarteak izan duten erreleboekin izandako aldaketak kontutan hartuz, sortu diren kontaktuak oso onak direla esan behar da. Hau lortzeko, telefono zein email bidezko harremanaz haratago zuzeneneko bisitak burutu izan dira. Jarduera hau urte osoan zehar sustatzen ahalegindu dira.

Aurtengo urteko martxoko asanbladan Arabán aurkitu dezakegun elkarte berri bat sartu zen, Ajebask. Hauekin eta dauden elkarteekin maiztasun batekin bildu izan da. Kontutan hartuz Arabako egk-ko elkarte gehienak astialdi foro barruan daudela, elkarte bakoitzarekin izan den harremana nahiko aberatsa izan da. Ajebask zein Euskalerriko Eskautekin, plataforma desberdinetan parte hartzeko aukera izan da eta elkarlana bultzatu da.

Bakoitzak bere esparrutik, eskeintzeko asmoarekin parte hartzen du EGKn. Bi norabidezko erantzunkizuna sortzeko nahia izan da baina erantzunkizun horrek behar batzuk sortzen ditu, bai elkarteekiko bai EGKrekiko. EGKko Arabako lurraldetasuna arloari dagokionez, elkarte horien gainean, beharrak, laguntza, aholkularitza, informazioa, sare lanean sartzeari, elkarlanera bultzatzea izan ditu helburu. Era berean, barneko sare lana bultzatu: elkartearen arteko harremana eta elkarlana bultzatu, suspertu eta indartu. Hala ere, oraindik falta edo gainditzeko pendiente dagoen ikasgaia da hau ere. Urtero bezala bultzatu nahi den ekintza da. Urteak pasa ahala parte hartzea handiagoa nabaritzen da. Egia esan, aurtengo parte hartzea handiagoa izan dela, adibidez, Asanblada egunean, astialdi foroak antolaturiko udako desplegablean, argazki lehiaketan.... Baina parte hartze eta erantzunkizun hau, elkarte batzuen partetik bakarrik eman izan da soilik.

Gipuzkoan, koordinatzaile berria irailean sartu zen. Orduz geroztik, lan ildo sendo eta emankorra abiatu du Gipuzkoako EGKko kide diren elkarteekin. Horrela, irailean, Gipuzkoako elkarte guztiekin bilera orokorra deitu zuen egoeraren azterketa egiteko eta elkar ezagutzeko. Beharrak aztertu ostean, banan banako bilerekin hasi zen, elkarteak bisitatzen, egoitza ezagutzen eta, nola ez, tokian tokiko beharrak eta aldarrikapenen berri izateko. Horrela, urrirako Gipuzkoako helburuak zehaztu ziren. Era berean, elkarte berriein egindako harremani esker, Gipuzkoako elkarte berri bat EGKra sartzeko asmoa azaldu du; Gan Jazz elkarteak, hain zuzen.

Gipuzkoako elkarteekin eginiko lana koordinatzailearen esku egon da baina, beste tekniken esku ere egon da. Horrela, Astialdi Foroak, hilero bilerak ospatu ditu Donostiako egoitzan; Bizi Baldintza Materialen teknikariak ere EGKko taldeekin lan egin du, Komunikazio teknikariak ikastaroak eman ditu gipuzkoan edota genero eta



kulturartekotasun teknikariak, Donostian egiten duela lana. EGKko Gipuzkoako elkarteek barne inkestetan azaldu dute berebiziko garrantzia ematen diotela Kontseiluak duen instituzioekiko bitartekaritza lanari. Bitartekaritza EGKren arlo ezberdinen esku dago. Horregatik, integrala da, arlo bakoitzak eragileen beharrak ezagutu eta helburuak lortzeko aholkularitza bideratzen duelako. Kualifikazioen afera lantzeko, Astialdi Foroak, adibidez, bitartekaritza lanak egin ditu Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendariarekin. Hilero Gipuzkoako koordinatzailea GFAko teknikariekin bildu da Gaztematika lantzeko eta elkarlanarekin aurrera jarraitzeko.

Bizkaian urte hasieran, erreleboa eman eta gero, Bizkaiko koordinatzaile lanetik burutzen den jardueraren berri eman, EGKko elkarteek beharrianetara hurbildu zein elkarlanerako guneak eraikitzeko, bizkaia indartzen deituriko bilera-bisitak burutu ziren, hain zuzen ere, erantzukidetasuna bilatzeko. Horrela, lan arloen aurkezpen testua eta diagnosi galdetegi bat zabaldu zen Bizkaian lan egin edota Bizkaian ere dauden 32 elkarteek artean. (Ikus B.III. Eranskina)

Urtxintxa, Bosko, ONCE, EH Eskautak Bizkaia, Kale Dor Kayiko, AVIEM, Ikasle Abertzaleak, JOC eta Gaztetxoak eskolarekin burutu dira aipatu hurbiltze bilerak, besteekin ezinezkoa egin delarik (denbora falta edo beste lehentasun batzuk zutelako). Hauekin guztiarekin harrera ona izan den arren, diagnosi galdetegia elkarte bakar batek bete eta bueltatu zuen. Dena den, argazki orokor bat ateratzeko balio handiko rondatxoa bilakatu da haxe. Baita ere, beherago azaltzen den Indartzen prozesura begirako gabeziak eta iritziak identifikatzeko orduan.

Honekin batera, elkarteak indartzeko erabili izan diren baliabide eraginkorrenak, [Gazte Berraste](#) irratsaioa, bi astero behin TAS TAS irrati librean burutzen dena (hogeitahamar bat), azpiegitura baliabideen eskaintza (hitzaldi, bilera eta prentsa agerraldietarako gela, mobilizazio edota ekimenetarako soinu ekipoa,...): Hogeitahamar bat ekimen.

Gainera, 2011. urtean Indartu programarekin hasi (EDE-BBKk lagundurik) eta [Indartzen egitasmoan](#) transformatu egin den EGKren bideratze prozesua habian jarri da. Honen



helburua, EGKk egun dituen gabeziak identifikatu, eta helburu, funtzionamendu eta oro har estruktura berritzea da. Horretarako, EGKn gaur egun eta historikoki parte hartu izan duten Batzorde teknikoko teknikari, elkarteetako arduradun eta Batzorde Iraunkorreko kideak bildu dira. Berez, 2012ko Martxoko Asanblada orokorrean aipatu prozesuaren emaitzak eta proposamenak jasoko dira. Bilera kopurua: 6

Urtean zehar ere, elkarte berri batzuk ezagutu dira eta euren interesa azaldu dute EGKren barruan sartu eta elkar-lana egiteko: *EGIA (Euskal Gazte Ikasle Alkartasuna), Kulturartekotasuna lantzen duten Zabalotzeko elkarte, Afrikar gazteen sarea, Liga de Jovenes Saharais, Euskadiko Emakume Gazteak edota Komantxe (Bilboko gaztetxe eta gazte asanbladen konpartsa).*

Horretaz aparte, EGKk parte hartzen duen sare edo plataforma ezbeinetan EGKko elkarteek parte hartzea ere bultzatu da, adibidez, Urriak 17 pobreziaren aurkako egunean



(JOC, Iratzarri eta Kaledor kayiko elkarteak), edo kaleak aske eta Bilbogune plataformatan (Gazte komunistak, Iratzarri...).

Aurten gainera, KULUNKAN Ikas/jolas Gunea egitasmoa martxan jarri du EGKk. (Ikus B.IV. Eranskina). Aisialdi ez-formalean iharduten duten Bizkaiko eragile eta norbanakoak biltzeko gunea da, baloreetan oinarritutako heziketa landu eta ikas-jolas topaketa edo esperientzia pilotu bat martxan jartzeko helburuekin. Gazte elkarteen plataformak berezkoa duen izaeratik, sareak sortu, elkarlana proposatu eta proiektuak eraikitzekoa hain zuzen ere jaio da Kulunkan. Hasiera batean, EGK barruko sei bat elkarte parte hartu bazuten arren, denbora faltagatik edo, gaur egun bi mantentzen dira proiektuaren gidaritzapean buru belarri: Urtxintxa eskola eta Gaztetxoak. Proiektu honen bertutea gainera, kanpoko eragileekin harremanak landu eta finantzaketa zein eragin esparrua zabaltzeko aukera ematen duela. Bilera kopurua: 12



Boluntariotza Lantaldean ere parte hartzen jarraitzen da. 2010ean martxan jarri eta Hezkuntza teknikariarekin batera, Bizkaiko boluntariotza agentziarekin ([BOLUNTA](#)) elkarlana sustatu eta bultzatuz. Gazte boluntariotza ikustarazteko, duen balioa jendarteratzeko prozesu parte hartzaile baten diseinuan ibili dira, 2012an zehar burutu eta beharrezkoak diren neurriak proposatu ahal izateko administrazio ezberdinei. Bilera kopurua: 5

Bestetik, 2011rako plangintzaturik ez zegoen arren, EGKren 25.urteurrena dela eta, fomakuntza saio, ihardunaldi eta jaialdi ezberdinak antolatu dira, [GAZTEaZAROA](#) deituriko ekimenarekin (Ikus B.V. Eranskina). Bertan, koordinatzaileon lana oso handia izan da, elkarteen parte hartzea bermatu eta egitarauak lotzeko arlokako arduradunekin elkarlanean. EGKko elkarte batzuen parte hartzea ere oso handia izan da. Kopuruan, gutxi, baina, lanean handia izan da inplikazioa. Kulturetasuna, lurralde antolamendua, hezkuntza inklusiboa, boluntariotza, enplegua,... izan dira eztabaidagai eta urteurrenaren ardatzak. Azken finean, EGKko lana ikustarazi eta jendarteratzeko ahalegina izan da hau, baita ere, 25 urteetako ibilbidearen gogoraraztea, eta nola ez, jaialdien bitartez ere, hau ospatzea.

Horrekin lotuta, aurten [Ahotik at! Aldizkariaren argitalpen](#) bakarra izan denez (mozketak direla medio), urteurrenaren inguruan burutu da. Idazkaria, komunikazio teknikaria, presidentea eta Bizkaiko koordinatzailea ibili dira lan honetan, erreportaiak, elkarriketak eta bestelako baliabideak lotuz. Bilera kopurua: 12

Azkenik, Abenduaren 1a, HIESaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, CJE-k (Espainako Gazte Kontseilua-k) bere prebentziorako kanpainan barnean: zenbait material hezgarriak argitaratzen ditu: kartelak, gidak, esku-orriak kondoiak, etab. Eskakizuna egin eta gero, materialak EGKko elkarteetan artean zein bestelako elkarte interesatuen artean (gaztetxeak...) banatu izan dira, euskaraz, gazteleraz eta arabieraz.



5.3 EAEko elkarte sareak, eragileak

Deskribapena

Gazteak gizartearen islada diren heinean, aniztasunez batzen dira, horregatik edonon eta edonola topa ditzakegu: formalki elkartuak, ez elkartuak, ez formalki elkartuak, asanbladetan, gaztetxeetan, kirol elkarteetan, kultur elkarteetan, ezertan. Gazte guztiak saiatzen gara harremanetan egoten. Batzuekin errazagoa da, beste batzuekin zailagoa. Hala ere, proiektuak garatzeko eta burutzeko momentuan buruan izan ditugu beti.

EGKtik kanpoko elkarteetako gazteekin topo egiteko elkarte horiekin harremanetan egotea ezinbestekoa dela kontutan hartuz, urteko lana hortan oinarritua izan da besteak beste.

Normalean, elkarte bakoitzak bere lanak burutzen ditu, eta normala denez, lehentasunezko zat jotzen ditu euren jarduerak. Hala ere, urtean zehar elkarte eta gizarte eragile ezberdinok plataformetan bildu izan dira aldarrikapenak bat eginez, indarrak batzeko.

Holako topaguneak oso garrantzitsuak izan dira EGKrentzako, gizarte mugimenduetako errealitatearen termometroa bezala erabiltzen baitira: EGKtik kanpo dauden elkarten egoeraren islada direlako.

Hortik, harremanak ateratzeaz aparte, elkarte horien aldaketen eta egoeraren berriak jaso dira. Eta ateratako kontaktuei esker, beste eragileekin elkarlana eta sare lana bultzatu da. Baita euren sare propioak ezagutu eta, amarauna zabaldu.

Horrez gain, harreman hauek ez dira plataformetara soilik mugatu. Beste era askotara burutu da harremanen indartze edo sareen indartze hau. Elkarteei beste era bateko euskarriak eskaini zaizkie hauen ahotsa ozenagoa eta zabalagoa izan dadin, batez ere Berriz Berriarekin, beraiek antolatzen doazen ekitaldi, jarduera edo bestelako ekintzen berri ematen duena. Edota, sarri taldeen artean, batekin eta besterekin biltzearen ondorioz lortzen den informazioa baliatuz, burutu den bitartekaritza lanarekin. Edota, plataformetan askotan burutu izan den dinamizazio, akten idazketa eta berbidalketa lanekin, etab. Askotan nabaritzen ez diren lanak izan arren, batez ere gauzapean argia ez dutelako, behar beharrezkoak dira azkenean emaitzak onak izaten laguntzeko.

Esan beharra dago, plataformek nahiz eta egun batean edo batzuetan kokatu ekintza nagusia, aurreko hilabeteetan behintzat koordinaziozko lan potoloa eskatu izan dutela. Beraz, elkarten topaguneetan parte hartzeak denbora gutxian maiztasun handiko bilera dinamika, materialak sortzeko edota erosteko aurrekontu bereziak eskatu ditu.

**Helburuak**

- Sortzen diren ekimen berrietan parte-hartu/ ezagutu.
- EGKren erreferentzia sarea zabaltu/indartu.
- Boluntariotza agentziekin elkarlana bultzatu eta sustatu.
- Finkatutako dinamikak indartu.
- Sare lana bultzatu eta sustatu.

Ekintzak eta epeak

Aurreikusten direnak, edo identifikatuta daudenak, hurrengoak dira:

- a) Pobrezia 0 Lantaldeak
- b) Boluntariotza Lantaldeak. Lurralde bakoitzeko boluntariotza agentziekin elkarlana sustatu eta bultzatu
- d) Euskal Herria Palestina Sarea eta lurraldeko plataformak
- e) Kalea Guztiona da
- f) ILP
- g) Bilbogune
- i) Zaharraz Harro
- j) Gasteizko MENA taldeari sostengu plataforma
- k) Sareginez
- l) Gaztetxeak eta gazte asanbladak.

Urtarrila	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I
Otsaila	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I
Martxoa	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I
Apirila	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I
Maiatza	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I
Ekaina	A	B	D	E	F	G	I	J	K	I
Uztaila	A	B	D	E	F	G			K	I
Abuztua										I
Iraila	A	B	D	E	F	G	I		K	I
Urria	A	B	D	E	F	G			K	I
Azaroa	A	B	D	E	F	G			K	I
Abendua	A	B	D	E	F	G			K	I

Hartzaileak

- EAEko gazte elkarte eta sareak
- Lurraldeetako boluntariotza agentziak
- Lurraldeko gizarte mugimenduak
- Alderdi politiko eta langileen sindikatuak

Egun, zeharka edo zuzenki, 300 eragile sozialekin lanean dago EGK gutxi gora behera.



Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

GIPUZKOA

Pobrezia 0 Lantaldea:

Hilean behin burutu dira bilerak EGK-ko egoitzan. Interes nagusia, gazte ikuspegia GKEn munduan txertatzea da, taldeei plataforman egiten den lana zein den erakutsi eta parte hartzea gonbidatzea izaten da. Bestalde, oso interesgarria ere bada, ONGn mundura gerturatzeko, sare horretan EGK ere egoteko. Oso lan erritmo polita darama, urte guztian ekintzak antolatzen dira eta nagusiki Urriaren 17 aste horretan nagusitzen da lana. Dinamika ona daraman taldea da, eta oso giro jatorra dagoena. EGK-k, dinamismoa ematen dio plataformari, gazte ikuspegia txertatu, egiten den lan guztia euskaraz egitea bultzatu eta finean euren eragin esparrua ONGn munduan sartu. Interesgarriak dira bertako zenbait talde: ONGs euskadi koordinadora, Medikus mundi, Economistas sin fronteras, SOS arrazakeria, Mundu bat.

Sareginez:

Boluntariotzaren inguruan hausnartzeko taldea da, erritmo motelekoa. EGK bertan egoteko arrazoia, beste eragileekin harremana izatea da. EGKren lana bertan, egiten den lanaren jarraipena egin eta taldearen dinamizazio lanetan aritzea da. Zentzu horretan, gazte prespektiba bat lanetan txertatzea izaten da gure ardura. Kontseiluaren lana, Sareginezen baitan handituz joan da azken hilabeteetan. Euren ardura izan zen, adibidez, Sareginezen izenean antolatutako azken tailerra antolatzea. Sareginezko elkarteek komunikabideekin harremanetan jartzeko arazoak dituztela, konpontzeko tailer itxi eta praktikoa antolatu zen HITZAko gizarte arloburu den Maitane Aldanondorekin eta ETBko Juan Carlos Etxebarriarekin. Tailerra bikain atera zen eta taldearentzako bultzada bat izan zen. EGKk beste tailer praktikoa bat antolatzeko konpromisoa hartu du –publikoa izango da, otsailean- eta beste hitzaldi bat, martxoan.

Sareginez boluntarioez osaturiko elkartearen koordinadora bat da, zentzu horretan gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten taldeak dira nagusiki. Bereziki interesgarriak EGKren ustetan Caritas, Dya, Berpiztu, Gizalde dira. Hilabetearen behin dira bilerak.

Palestina Sarea:

2011ko apirilean lehen ekitaldia burutu zuen Zestoan. Oso gune interesgarria da eta lan egin beharrekoa. Hemen talde, udal, eragile politiko, sindikal, gaztetxe, ONG... daude. Komite internazionalisten eta Askapenaren indarra handia da. Oraindik berdetxo dago eta EGKko hiru lurralde koordinatzaileen ardura da bertan lan egitea. Alde batetik sareko koordinazio guneetan sartu eta mugimendu orokorra koordinatzen laguntzea da koordinatzaileon ardura baina baita, hirian dauden palestinako taldeetan integratu eta beraiekin lan egitea. Donostian, udatik bueltan, EGK-ko egoitzean ospatu da lehen bilera eta gabonak baino lehen bigarrena ospatuko da. Dinamizazioa EGK eta Askapenaren eskuetan dago.

**Bestelakoak:**

EGKkoak ez diren elkarten artean EGK ezagutzera emateko zenbait bilera ospatu dira.

- **Donostiako Piratak:** Elkarten eguna sustatzeko, talde eragilean sartzeko prest agertu ziren.
- **Gan Jazz:** EGKn sartuko den azken elkarte. Marihuanaren despenalizazioaren alde lan egiten dute eta kontsumo talde erregistratu eta legala dira. 300 bazkide dituzte Gipuzkoan.
- **Askapena:** EGK-ko egoitza bileretarako erabili izan dute.
- **Kortxoenea Gaztetxea:** Gaztetxeekin elkarlana sustatzeko aurrerapausua. Oso harreman ona eta egonkortua lortu da.
- **Lokarri:** Sare honen aburuz, elkarbizitza izango da euskal herritarren afera nagusia hurrengo urteetan. Abenduan, EGKko Presidente den Batiste Ezeizak bidaia egin zuen euskal alderdi politikoen gazterekin Irlandara, bertako bake prozesua ezagutzeko eta berradiskidetzeari sakontzeko eta bertako eragileak ezagutzeko. Bertan bizitako esperientzia zabaltzeko eta berradiskidetzeari inguruan hausnartzeko Lokarri eta EGKren artean hitzaldiak antolatuko dira Arrasate, Eibar, Tolosa, Irun eta Donostian.
- **Medeak:** Elkarten egunera begira sustatzaileen artean sartu nahi den taldea da. Bilera, abenduaren 19an.
- **Harresiak apurtuz:** Kontaktua mantentzen da eta EGKren baliabideak eskaintzen zaizkie lana aurrera ateratzeko.
- **Joxemi Zumalabe:** Elkartegintzaren esperientzia eskola sortzeko ideia. Jardunaldiak. Elkartegintzak pairatzen duen arazo bat da, etengabe jende berria heldu eta zaharrek uzten dutela. Askotan erreleboa ez da onena eta, horregatik, benetan arrakastasuak izan diren esperientziak elkartu eta egun osoko tailer bat sortzea nahi da. Bokazio nazionala izango du baina Gipuzkoan oso errotua egon behar da. Horretarako, Pirata eta Jai Koordinakundearekin hitz egin da.

**ARABAN****Pobrezia 0 Lantaldea:**

Hamaika urte bete direnean Milurteko Adierazpenatik, non txirotasunarekin bukatzeko helburua sinatu zen, begi bistakoa da hori betetzeko oraindik biderik ez direla hartu. Mugarik gabeko garapenari munduak ezin dionez eutsi, desazkundera planteatzen zen plataforma honetatik.

Urteak dira Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunean zehar antolatutako ekintzen barruan EGK-k parte hartzen duela. EGK-z gain, beste 17 taldek parte hartzen dute:

- Coordinadora ONGD Euskadi
- Asoc Amigos/as RASD
- Grupo Deshazkundera
- Medicus Mundi Araba
- Setem
- ESK
- Stee-Eilas
- Agle
- Círculo Solidario
- Traperos de Emaus
- Mundubat
- Jolas Eta Ekin
- Euskalerriko Eskautak
- Solidaridad Internacional
- Alboan
- Paz y Solidaridad
- Mugarik gabe



Aurten ere, gazteria oro har jasaten ari den prekarietateari buruzko atalak lantzeko, astialdiko taldeekin gauzatu izan dira ekintza desberdinak.

2011ko lan taldean parte hartzearen eta ekintzen balorazioa oso positiboa izan da. Hurrengo urteari begira, taldeko kideen arteko harremana urte osoan mantentzea erabaki da antolaketa errazteko asmoz.

Bestalde, esan beharra dago, data zehatz baten inguruan den arren, antolakuntzari dagokionez lan handia eskatu duela. Hala ere, EGK-ren ikuspuntutik lantalde honen partaidetza oso positiboa izan dela azpimarratu nahi da, batez ere talde ezberdinekin aritzeko aukera eman eta ematen duelako. Horrela, hainbat helburu betetzen dira, besteak beste: bestelako gizarte eragileekin elkarlana sustatu (gizarte sentsibilizazioa), bestelako elkarteak ezagutu eta EGK ezagutzera eman elkarteen artean.

Zaharraz Harro:

Gasteizko Alde Zaharren jai parte-hartzaileak antolatzeko talde bat sortu zen orain dela lau urte Gasteizen. Ekaina bukaera eta uztailleko lehen astean burutu ohi da. EGK-k aurreko urtean lehendabiziko aldia izan zen bertan parte hartu zuena, ez zehazki auzoko partaidea zelako, baizik eta beste elkarte asko ezagutzeko eta haien bat elkarlanean aritzeko aukera



eskaintzen ziolako. Hori dela eta, 2011ko urte hasieran asteazkenero bildu izan zen alde zaharreko auzokideekin. Hala ere, erreleboa zela eta, ekainetik uztailera bitartean antolaturiko ekintzetan EGK-k ez du parte hartu, baina bai ordea aurretiko antolakuntzan.



Bertan, talde askok parte hartzen dute:

- Askapena
- Egin ayllu
- Elkartzen
- M-ak
- Gasteizko Gaztetxea
- Hala Bedi
- Ramon Bajoko AMPA
- Manexak
- Txapa ahotsa

Mena, gasteizko mena taldeari sostengu plataforma:

Menores Extranjeros No Acompañados-ei sostengua emateko plataforma hau 2010eko urtarrilean jaio zen. 2010ko azarotik aurrera, EGK bertan parte hartzen hasi zen, Hikaateneotik heltzen ziren deialdietan parte hartzen. Urte hasieran plataforma nahiko geldotuta egon zen eta bukaerarako ez da parte hartu.



Palestina sarea:

Urte hasieran Arabako plataforman sartu zen. Plataforma nahiko aktibo zegoela esan behar dugu. Martxoaren 10tik 22ra bitartean, ekintza desberdinak antolatu ziren sarean bertan parte hartzen duten eragile desberdinen artean:

- Komite Internazionalistak
- Askapena
- Mugarik Gabe
- LAB
- ESK
- Hala Bedi Irratia

MARTXOAK 10
10 MARZO
ZINE-FORUM
Jenin, Jenin
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 15
15 MARZO
HITZALDIA/CHARLA
Hind Awwad
Coordinadora en Palestina del BNC (Boycott National Campaign) koordinatzailea Palestinan
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 17
17 MARZO
BERTSO AFARIA
Manex Agirre
Irati Andía
Ander Solozabäl
20:30etan 70 tabernan txartelak 70n eta Erdizkan salgai

MARTXOAK 22
22 MARZO
ZINE-FORUM
La sal de este mar
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

palestinarekiko elkartzun asteak
Semanas de solidaridad con Palestina
Martxoak 10-22 Martxo
Gasteiz
Apirilak 2 Abril
Palestina eguna Zestoa

sarea
Euskal Herria - Palestina

MARTXOAK 10
10 MARZO
ZINE-FORUM
Jenin, Jenin
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 15
15 MARZO
HITZALDIA/CHARLA
Hind Awwad
Coordinadora en Palestina del BNC (Boycott National Campaign) koordinatzailea Palestinan
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 17
17 MARZO
BERTSO AFARIA
Manex Agirre
Irati Andía
Ander Solozabäl
20:30etan 70 tabernan txartelak 70n eta Erdizkan salgai

MARTXOAK 22
22 MARZO
ZINE-FORUM
La sal de este mar
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 10
10 MARZO
ZINE-FORUM
Jenin, Jenin
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 15
15 MARZO
HITZALDIA/CHARLA
Hind Awwad
Coordinadora en Palestina del BNC (Boycott National Campaign) koordinatzailea Palestinan
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 17
17 MARZO
BERTSO AFARIA
Manex Agirre
Irati Andía
Ander Solozabäl
20:30etan 70 tabernan txartelak 70n eta Erdizkan salgai

MARTXOAK 22
22 MARZO
ZINE-FORUM
La sal de este mar
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 10
10 MARZO
ZINE-FORUM
Jenin, Jenin
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 15
15 MARZO
HITZALDIA/CHARLA
Hind Awwad
Coordinadora en Palestina del BNC (Boycott National Campaign) koordinatzailea Palestinan
19:30 - Luis de Ajuria aretoan

MARTXOAK 17
17 MARZO
BERTSO AFARIA
Manex Agirre
Irati Andía
Ander Solozabäl
20:30etan 70 tabernan txartelak 70n eta Erdizkan salgai

MARTXOAK 22
22 MARZO
ZINE-FORUM
La sal de este mar
19:30 - Luis de Ajuria aretoan



BIZKAIA

Pobrezia 0 Lantaldea:



REAS Euskadi, EAPN Euskadi, CONGD Euskadi eta EGKk osatzen duten lan talde honetan pobreziaren aurkako nazioarteko egunaren (urriak 17) antolaketan aritzen dira. EGKk aktibazio eta komunikazio ardura hartzen du: Koordinatzaile lanetik, EGK barruko elkarteak inplikatu eta ekimenaren inguruko ardurak hartzen ditu, manifestaldiaren prestaketan, hitzaldietan, komunikabideetan elkarriketak egin, etab.

Aurtengo leloa aberastasunaren aurka lo, premiazkoa da! Izan da. Bilera kopurua: 11

Euskal Herria Palestina Sarea eta lurraldeko plataforma: BDS.

Lurraldeko koordinatzaile guztiak parte hartu izan dute Sarean, eta Bizkaiko koordinazio lanetik ere, [BDS lan taldean](#) parte hartu du 2011ko apirilerarte. EGKko lehentasunak aldatzen joan diren heinean (gazteen inguruan mugitzen direnak aintzat hartuz batez ere) zenbait sareetan EGKren parte hartzea jeisten joan da. Interesa berdina izan daitekeen arren, denborak ez du denerako ematen. Bilera kopurua: 3

Kalea Guztiona da:

Bilboko Udalak idatzi eta aprobatutako kale-ordenantzaren kontrako plataforma da hau. Hain zuzen ere, oinarritzko eskubideak urratzen dituelako, adierazpen askatasuna, sexu askatasuna,... besteak beste. Bilboko eragile andanak atxikitu ziren ordenantza honen kontrako mobilazio eta ekintzetan. Azken ekimena kale olinpiadak izan dira [2011ko apirililaren 16an](#). Hortik aurrera, lehen aipatu lehentasunak identifikatzen joan diren heinean, plataforma honetatik ere aldentzen joan da. Dena den, sare honek bere jarduera nola edo hala jarraitu du, babes judizial eta soziala emanaz ordenantzaren ondorioz kaltetutako kolektiboak. Bilera kopurua: 7

ILP. Kanpo Zorra:

Eusko legebiltzarrak 2007an EAEko biztanleriari kanpo zorraren ezabaketa jasotzen duen legea onartu zuen. Lau urte igaro direnean, ez da kanpo zorraren ezbaketara eurorik bideratu, ezta keinurik edo elkartasun seinalerik ere ez. Horregatik jarraitu izan du zenbait kolektibo eta norbanakoak osatzen duten plataforma honek lanean. EGKren papera murrizten joan da honetan ere, lehen aipatu arrazoiengatik. Azken ekimena eta gero ([abendua 28](#)), 3 bileratan besterik ez du parte hartu.



Bilbogune. Bilboaldeko kolektiboen gunea:

Bilboko kolektiboen koordinazioz burutzen den

merkatu herrikoa da. Horrez gain, kritikotasunez eztabaidatzeko, musikarako, jan eta edateko, elkarezagutzeko gunea ere bada. Plataforma honetan urte guztian zehar ibili da, hain zuzen ere, Bilboaldeko eta Bizkaiko kolektibo andan ezagutu eta elkarlan posibleak identifikatzeko balio izan duelako.



Horrez gain, Bilboguneren edizio bakoitzeko boletinaren erredakzio, edizio lan taldean parte hartu du, komunikazio tresna ezin hobea bihurtu delarik. Aurten lau edizio burutu dira, martxoaren 12an (emakumeen borroka ikusgarazteko), ekainak 4 (memoria historikoaren inguruan), irailak 18 (kukutzaren defentsan) eta azkena abenduaren 17an (emakumeen aurkako indarkeria salatuz). Bilera kopurua: 15

Gaztetxe eta gazte asanbladak:

Bizkaiko eta Euskal Herriko gainontzeko herri eta auzoetako gazte antolatuekin bildu da, proposamen ezberdinetaz eztabaidatu eta sarea osatzen joatea da helburua. Bi kontu lantzen ari dira gaur egun. Eguneratutako gida bat egin, eta herrialdeka autogestioaren inguruan kongresuak burutzea. Administrazioarekin gatazkak egotekotan ere, zubi lana bideratzea da EGKren lana. Kordinadorearekin bilera kopurua: 5

Guzti hauetaz aparte, gazteen parte hartzea zeharka edo zuzenki txertatzeko lana egiten duten bestelako eragileak ezagutu ditu EGKk: M-15 mugimenduko kale ekintza edota unibertsitateko lan taldeak; Eskubide zibil eta politikoen aldeko ELEak mugimendua; Gizarte zerbitzuen mozketen aurkako plataforma; Zentral nuklearren aurkako plataforma, Alemanian kokaturiko Bavariako gazteria kontseiluko kideak edota Eusko Ikaskuntzako Datorkigunea (gazteriaren inguruko eztabaida gunea). Horiei guztiei, babesa eman, formakuntza hitzaldiak antolatu, komunikazioan lagundu edota azpiegitura errekurtsuak eskaini dizkio. Oso balorazio positiboa ateratzen da hauekin izandako harremanaz. Etorbizunean suertatu daitezkeen elkar laguntzarako eremuak eraikitzeak aukera ematen duelako. Bilera kopurua: 6

Plataformek, nahiz eta egun batean edo batzuetan kokatu ekintza nagusiak, koordinaziozko lan potoloa eskatzen dute hilabeteetan zehar. Beraz, elkarleen topaguneetan parte hartzeak denbora gutxian maiztasun handiko bilera dinamika, materialak sortzeko edota erosteko aurrekontu bereziak eskatzen ditu. Baina, hortik urrun, EGKk jasan dituen azkenaldiko aurrekontu murizketekin (3 urtetan %50a), aurten eta batez ere hurrengo urteetara begira, plataformetan parte hartzea nabarmen gutxituko da. Urgentziazko lehentasunak jartzera behartu du eta ondorioz, gazteen perspektiba, jendarte mugimenduen alorrean ezingo da lehen bezala bermatu.



5.4 EAEko administrazioetako gazteria sailekin lana

Deskribapena

Gazte elkartegintza munduarekin lan egiteaz gain, administrazioekin garatzen den lana EGKren egitekoren nagusienetariko bat da. Zergatik?

Alde batetik, EGKren Legeak azterlanak eta txostenak eginez eta bestelako bideez baliatuz, Administrazioari gazteen arazoekin eta interesekin lotura duten neurriak proposatzeko eta iradokizunak egiteko lana izendatzen diolako. Baita, lege honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Euskadiko Gazteriaren Kontseilua onartutako solaskide izatea onartzen duelako, gazteriari dagozkion arazoen inguruko aginpideak Sailaren bidez emateko ahalmena aitortuaz (Zioen adierazpena, Maiatzaren 27ko 6/1986 LEGEA).

Nahiz eta EGKren legeak gauza asko esan, Kontseiluaren estiloa eragile guztiekin elkarlanean aritzea ere bada. Eta gazteria politiketan, eragile erabakitzaile bat badago, hori administrazioa da. Administrazioak baliabide ekonomiko handienak dituelako eta gazteria politiken inguruan eragile sortzaile eta bultzatzaile garrantzitsuena delako. Beraz, harreman egonkorra, ona, naturala eta jariokorra edozein administrazioarekin ezinbestekotzat jotzen du EGKk: bai herri zein lurralde mailakoak. Azkenean elkarlanaren, lankidetzaren beharra daukagu bi eragileok. EGKk administrazioa behar du, eta alderantziz ere, Administrazioek EGK behar du. Behar horietatik abiatuz, elkarlanerako esparruak sortzea eta bultzatzea komeni da. Honek bakarrik ekarri ahal dizkie onurak bi eragileei.

Azkenean helburua oso zehatza da: ahalik eta eragile gehienekin elkarlanean aritzea. Horrela, eragile-sarea zabaltzeaz eta indartzeaz gain, gazteen beharrak eta kexak behar den moduan asetzeko gaitasuna handiagoa izango da.

Helburuak

- Hitzarmenak aztertu.
- Elkarlanerako espazioak sortu/sustatu:
- Foru Aldundietako Hitzarmenerako batzordeak egonkortu
- Lurraldearen ezagutza: udaletako gazteria zerbitzuekin lana.
- Harremana sakondu/ indartu



Ekintzak eta epeak

- a) Herri eta herrialdeko administrazioekin kontaktua mantendu eta sustatu (komunikazio bide desberdinak: bilerak, mezuak...).
- b) Gazte eragile-administrazioaren arteko bitartekaritza.
- c) Gazteen inguruko lege proiektu eta bestelako proposamenak bideratu.

Hilabetea	Ekintza		
Urtarrila	A	B	C
Otsaila	A	B	C
Martxoa	A	B	C
Apirila	A	B	C
Maiatza	A	B	C
Ekaina	A	B	C
Uztaila	A	B	C
Abuztua	A	B	C
Iraila	A	B	C
Urria	A	B	C
Azaroa	A	B	C
Abendua	A	B	C

Hartzaileak

- EAEko Udalak
- Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak
- Arartekoa

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Hau guztia burutzeko, egun dauden esparruak oso zehatzak dira:

Administrazio desberdinekin zuzeneko lanketak egiteko prest aurkitzen da beti. Hau da, beraien aldetik jasotzen diren proposamen zehatzei entzun eta ahal den neurrian inplikatzeko prestutasuna agertzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) dago. Erakunde honekin EGK-k duen harremana batez ere hiru esparruetan gauzatu izan da:

- **Gaztematika:** “Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema”.
 - o **Lan Taldea 2010-11**

Gaztematika programaren baitan elkartegintzaren papera zehazteko lan-taldean parte hartu du, GFAko ordezkari batekin, CRAJeko ordezkari batekin, Zarauzko udaleko gazteria teknikariarekin eta Irungo udaleko gazteria teknikariarekin batera.

Hilabeteen behin bildu dira gutxi gora behera eta e-mail bidezko kontaktua ere mantendu dute.



o 2011-12 proposamenak

EGKren papera eta elkarteekiko duen ordezkaritza maila zehaztu dute Gaztematika programaren baitan, eta honen arkitekturan EGKk izan beharko lukeen tokia. Honetaz gain, elkarteen eskubide eta betebeharrak ere zehaztu dira. Guzti honen proposamena Gaztematika lantzen duen Batzorde Iraunkorrari helarazi zaio, hausnartu, eztabaidatu eta erabaki bat har dezan.



o 2011-12 lan ildoak

Batzorde Iraunkorrari proposamena helarazi ostean begi onez hartu dute eta onartu dute bertan azaldutakoa, beraz hemendik aurrera Gaztematikaren baitan EGKk Bilera Teknikoetan hartuko du parte, Gipuzkoako elkartegintzaren ikuspegia, kezkak, beharrak, egitekoak eta konpromezuak ordezkatzuta egon daitezzen.

• Elkarteen mapa

GFArekin koordinatua eta elkarlanean gazte eragileen zerrenda sortu eta eguneratu dute. Ia 200 eragileen datuak batu dituzte. Helburua sarea sortzea da, gizarteratzea, eragile, elkarrekin eta teknikarien arteko erlazioa sustatzeko. Plangintzan zehaztutakoari jarraituz, hurrengo urtean GFA eta EGKren arteko elkarlanarekin aurrera jarraituko dute. Urte urte eguneratua mantentzea da asmoa. Aurkezpen publikoa ekainerako dago aurreikusita. EGKko Gipuzkoako elkarteek barne inkestetan azaldu dute berebiziko garrantzia ematen diotela Kontseiluak duen instituzioekiko bitartekaritza lanari. Bitartekaritza EGKren arlo ezberdinen esku dago. Horregatik, integrala da, arlo bakoitzak eragileen beharrak ezagutu eta helburuak lortzeko aholkularitza bideratzen duelako. Kualifikazioen afera lantzeko, Astialdi Foroak, adibidez, bitartekaritza lanak egin ditu Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendariarekin.

Jokin Melida Gazteria Zuzendariarekin birritan bildu da EGKren lana aurkeztu eta hitzarmenaren inguruan hitz egiteko.

Donostiako Gobernu berriarekin, EGK aurkeztu eta lankidetzara sustatzeko hiru bilera ospatu dira. Elkarlan horren adierazle, EGKko Berdintasun Arloak Donostiako Emakumeen Kontseiluan parte hartzeko gonbitea jaso du. Koordinazioa eta lankidetzara horrekin jarraitzeko konpromisoa dago.

• Komunikabide eta elkarteen arteko bitartekaritza

Ildo estrategiko berri eta berritzailea. Elkarteek EGKko direnak eta ez direnak bisibiltate publikoa lantzeko eskatu die EGKri. Haien irakurketa argia zen: Komunikabideetan gutxitan eta gaizki ateratzen ziren. Horretarako, EGKk komunikazioaren esparruan aholkularitza lanak martxan jarri ditu elkarteen lana behar bezala gizarteratzeko.

Gipuzkoako komunikabide garrantzitsuenekin bildu eta harremanetan jarri dira, besteak beste, *Gara*, *Diario Vasco*, *Hitza*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Euskadi Irratia*, *Radio Euskadi*, *Onda Cero*, *Onda Vasca*, *Hamaika Telebista* edo *ETBrekin*. Era berean, elkarteen parte hartzea sustatzeko *Euskadi Directo* eta *Ni más ni menos* programekin bilera bereziak izan dituzte.



Komunikabide hauen gizarte arloburuei elkarteen kontaktuen zerrendak eman dizkie haien eguneroko lana errazteko. EGKren helburua zubi lana egitea da eta, ildo estrategiko berri honekin elkarteen lana gizarteratu nahi da, komunikabide eta elkarteen erlazioa erraztuz. Azken batez, lobby lana egitea da helburua. Elkarrekin albiste sortzaileak dira eta kudeaketa hori gure esku hartuz gero, komunikabideen informazio iturri bihurtuko dira. Komunikabideek iturrien beharra daukate eta ongi kudeatzeko elkarteen gizarteratzea egokia izango da planifikatua dagoelako.

EGKren lanari esker, gabonetarako, adibidez, Diario Vascok InterRed GKeri erreportai berezia egingo dio. Era berean, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak kualifikazioen inguruko erreportaia argitaratzeko asmoa azaldu du Eziko eskola eta Hezkiderek. Hau da, EGKko kide diren eta ez diren onerako ildo estrategikoa da.

Gipuzkoako Udalak:

- **Donostiako udala:** Udal berriak, Donostiako Gazteriaren Kontseilua berreskuratzeko asmoa azaldu dio EGKri. EGK laguntza tekniko eta teorikoa eskaini dio.

Instituzio pribatuak: Instituzio pribatuekin lan ildo berria abiatu da. Elkarlana sustatzeko Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Udako Euskal Unibertsitatearekin bildu da. Lan honi esker, elkarreentzako dohakoak diren baliabideak lortu dira. Deustuk, adibidez, Deshazkunde, Pobrezia Zero eta 15-M plataformekin hitzaldia antolatu zuen azaroan eta, UEUrekin Eibarko Markeskua Jauregiko gelak erabiltzeko hitzarmena adostekotan dago.

**Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) dago:**

- **2009-2011 Hitzarmenerako batzorde mistoa:** Hitzarmenean aurrikusitako funtzioen arabeko urteko memoriak eta hurrengo urterakorako plangintzak aurkezteko batzordea da. Harreman egonkorra eta hurbiltasuna mantentzea ahalbidetzen du, bai eta bestelako gai batzuen inguruan lehen ukituak ematea. Horrekin batera, EGK-BFA hurrengo urteetara begirako hitzarmen posibleak aztertu eta proposamenak aurkezteko balio izan du. Bilera kopura: 3
- **Dirulaguntzen epaimahaia:** Gazteria sailetik bideratzen diren estruktura eta egintza singularren inguruko diru laguntzak emateko epaimahiean ahotsa du. Proiektu ezberdinen espedienteen nondik norakoak ezagutu eta aholkularitza funtzioa dauka EGKk. Horrela, elkarte ezberdinen berri izaten du eta etorkizunerako proiektuentzako aliantza posibleak identifikatzea lortzen ditu. Bilera kopurua: 2

Hartu-eman iraunkorra: Bestelako gai, proiektu edota gatazken inguruan berba egiteko aukera izaten du, telefonoz, e-mailez edota bilera espezifikoak lotuz. Aurten, BFAk departamendu eta udalekin zeharkakotasuna bilatzen duen Gaztedi Bizkaia egitasmoa, Kukutza gaztetxearen eraistearen inguruko gatazka edota Kulunkan ikas/jolas gunea zein gazte boluntariotzaren inguruko proiektuen hausnarketak izan ditu mahai gainean.

- **Arartekoa:** Aipatu beharra dago, lehenbiziko aldiz EGKk gazteen eskubideen alde egin eta aurretik aipatu gatazkaren ildoan, bilera eskakizunak burutu behar izan dituela Arartekoarekin. Administrazioaren aldetik gaztetxeko kideak zein auzo elkarteak euki zezaketen babes eza aztertzeko asmoz. (Ikus B.IX. Eranskina) Bilera kopurua: 2

Bizkaiko Udalak:**Bilboko Udala**

- **Gizarte Egutegia:** Bilboko Udaleko partaidetza sailarekin, Urtxintxa Eskolarekin, EDE Fundazioarekin eta Gaztetxo Eskolarekin burutzen den egitasmoa da, errekurso komunikatibo gutxi dauzkaten elkarteekin (gizarte gaiak jorratzen dituztenak lehenetsiz) ekintzak argitaratu eta zabaltzeko egutegia da. Formatu digitalean zein paperezkoan zabaltzen delarik. Gutxi gora behera, 120 elkarteekin berri eman eta 100 ekintza inguru argitaratzen dira aktibo dagoen 9 hilabeteetan (Ikus B.VI. Eranskina). Bilera kopurua: 10
- **Kukutza** gaztetxearen eraistearen inguruko gatazkarekin (Ikus B.VII. Eranskina), Errekaldeberri auzo elkarteak eta kukutza gaztetxeak berak eginiko eskakizunetik abiatuz EGKk bitartekaritza lana burutu du Bilboko udaleko Hirigintza, gazteria eta alkatetzarekin, eginiko hiru bileretan EGKk ez du lortu bere helburua, gazteek boluntariotzan oinarriturik sortutako proiektuaren eraistea geldiarazi eta soseguz negoziazioak ahalbidetzea. Eraiste honen ondorioak aski ezagunak izan dira, eta kalte izugarriak eragin ditu gazteen ekinbidean. Bilera kopurua: 4



Gazteekin lan egiten duten elkarten artean drogen erabilpenari buruzko arriskuen inguruko formakuntza proiektu bat martxan jartzeko laguntza eske etorri ziren urte amaieran. (Ikus B.VIII. Eranskina) Elkarteeekin kontaktatu eta euren interesekoa izan zitekeen edo ez ikusi eta gero, aipatu kontaktuak beren eskuetan jarri ditu EGKk. Bilera kopurua:1

Herriz herriko bisitak:

Herrietako errealitateetara hurbiltzeko, bai eta bertako gazte teknikari/elkarte/mugimenduengana jotzeko eta EGKren lana gerturatzeko burutzen da jarduera hau. Aurten proiektu batek gidatu du bisiten norabidea, Durangora gerturatu eta mugatu duelarik, KULUNKAN ikas/jolas gunearen inguruko elkarlanean. Bilera kopurua: 2

Arabako Foru Aldundia (AFA) dago: Gazteriaren Foru Erakundearekin EGK-k duen harremana batez ere esparru batean gauzatu da:


- Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Erakundearekin, 2011-2012. urtera begira, gazteria sailarekin izan dezakeen elkarlanaren hitzarmena sinatu izan da. Urtero bezala, Gazteria erakundeko teknikariak, antolatu izan diren Gasteizko Gazteria Politikak Aztertzeako Foroetan parte hartu izan dute. Modu berean, koordinatzaileak gazteria sailarekin duen harremana, astialdi foroan ere bermatzen da.

Arabako beste udalak: Bestetik lurralde historikoetako **udalerriak daude**. Erakunde hauekin ez du harreman esparru formalik Gasteizen izan ezik. EGKren aldetik ere, elkarlanerako proposamenik edukiz gero, ez ditu oztopo handirik aurkitzen. Gaztelink proiektuaren harira, udal teknikari desberdinekin bisitak izaten jarraitu nahi du, era horretan lurraldetako errealitateei iritsi eta konfidantza esparruak sortzeko.

Gasteizko Udala dago. Erakunde honekin EGK-k duen harremana batez ere lau esparruetan gauzatu izan da urtean zehar:

- **Gasteizko udalerako II Gate Planaren Jarraipen Batzordea:**

Gasteiz Udalean Gazte Plana garatzeko BATZORDEA. Aldi berean, urte osoan zehar hilabeteen behin deialdia zabaltzen duten II. Gazte Planaren Jarraipen Batzordean parte hartzen jarraitzen du; bertan Gasteizko elkarte- sareko eragile desberdinek parte hartzen dute. Honelako bileretara joateak bestelako harremanak sakontzeko balio izaten du.





- **Gazteria Politikak aztertzeko Foroa:**

Gasteizko Udalarekin gazte arloan dabiltzan gazteria politikak lantzen dituen Foroa. Gazteria arloan lan egiten duten elkarteetako arduradun, gazteria teknikari, zinegotzi, profesionalentzat, eta, oro har, gazte jendearentzat antolatzen diren foroak dira. Aurten ere bi foro antolatu dira.

Lehenengoa apirilaren 7an, osteguna, 6. jardunaldia "Gazte eragileen arteko harreman sareak eratzen" lelopean ospatu zen goiz eta arratsaldeko saioan.



Goizean, Gazterian aditua eta Consell de la Cultura y les Arts Zuzendaritzan lan egiten duen Pep Montes-ek gaiari buruz egindako ekarpen teorikoa egin zuen. Jarraian, Deba Garaian landutako esperientzia bat aurkeztu zuten "Herrigintza gaztea"koak. Ekarpen teorikoa eta aplikagarritasuna landu ostean, eztabaidatzeko unea zabaldu zen, lehenengo taldeka eta gero denak batera.

Saioari amaiera emateko, arratsaldean lan taldeak egin ziren, sortu zen katalogoaren puntuak lantzeko. Behin lan taldetan lan egin ostean, bateratze lanak eta ondorioak atera ziren. Jardunaldia bukatzeko ebaluazio orri bat pasa zen.

2. foroa aldiz, "Gazteak portadan. Gazteak eta hedabideei" gaia jorratzeko, azaroaren 12an ospatu izan da Simone de Beauvoir elkarte etxean.





Jardunaldia abiatzeko, [Estefanía Jiménez Iglesias](#) EHUKo irakasleak hitzaldi bat emango zuen komunikabideek gazteei buruz ematen duten irudia aztertzeko. Ondoren, mahai-inguru bat ireki zen, Diario de Noticias de Álavako zuzendari den Julio Iturriekin eta Bizkaia Irratia, Hala Bedi eta EiTbko kazetariekin. Baina Gasteizko Foro honetan ez zen nahi gazteen irudia bakarrik aztertu. Gazteen komunikabideak ezagutzeko aukera ere izan nahi zenez, gazte proiektu komunikatiboekin izandako esperientziak aurkeztu ziren, besteak beste: [Gazteok XXI](#) elkarte arabarraren Gazteen Berriak aldizkaria; [Colombia-Euskadi](#) elkarteak sustatutako Prisma irratia; Gazteriaren Kontseiluak Tas Tas Irratian egiten duen [Gazte Borraste](#) irratsaioa; Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen [Eusko News Gaztea](#) ikastaroa; eta Euskalerriko Eskautak federazioaren [Goitibera](#) aldizkaria.

- **Gasteizko udaleko euskara zerbitzua** eta Emun kooperatibarekin elkarlanean egon da, euskararen erabilpenaren protokolo txosten bat egiteko, barne mailara begira.
- **Hizkuntz Gutxituen topaketan** parte hartu izan du. Gasteizen uztailaren 19tik 22ra bitartean antolaturiko “Eremu urriko hizkuntzak edo hizkuntza gutxituak hitz egiten dituzten Europako gazteen topaketa” parte hartu da.



Azkenik, EAEko beste udalekin dagoen harremana oso puntuala da, eta batez ere bertako gazte-teknikariekin egoteko izaten da, herriko gazteen errealitatea eurekin aztertzeko, elkarlanerako proposamenak zabaltzeko, EGKren azkeneko berriak zabaltzeko edota Gasteizko Foroari buruz lanketak egiteko. Harremanik egotekotan, beti da EGKren ahaleginengatik, oso arraroa da kontrakoa gertatzea.



5.5 Lurralderantz

Deskribapena

Gazteriaren kontseiluak EAEko hiru lurraldeetan du bere lan eremua: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Hiru hauen arteko elkarlan-lantaldea bakoitzak bere lurradean daraman lana bateratu eta orekatzeko ezinbesteko gunea da. Lantaldea hilabetero biltzen da lurralde bakoitzean ematen diren dinamika besteekin konpartitu, trasladatu beste lurraldeenak aberastuz eta kohesionatuz. Koordinazio esparru honetatik, EGKko proiektuak lurralde bakoitzari hobeto egokitzeko aukera sortzen da eta ondorioz ekimen bera hobetzen eta indartzen da.

EGKko lurralde koordinatzaileen lana, herrialdean ematen diren errealitate desberdinen gaineko ezagutza izatea da. Zentzu horretan, EGK osatzen duten teknikariek arloka lan egiten dute eta lurralde koordinatzaileen lana ere bada lurralde historiko bakoitzari ahalik eta hoberen txertatzeko arlokako teknikariek zuzenean lan egitea.

Horrela, lurralde koordinatzaileok arlokako teknikarien lana herrialde bakoitzean txertatzen saiatu dira, bakoitzak izan ditzakeen berezitasun eta nabardurak kontutan hartuz.

Beraz, lan koordinatu bat burutzea ezinbestekoa da, arlokako teknikarien lana ahalik eta fruitu handienak jaso ditzan. Lan hau, aurre ikusitako ekintza egiteko lekua topatzetik, parte hartzaileak aukeratzera, edo gonbidapenen zerrenda egitera iritsi daiteke, kasuan kasuko laguntza eskainiz besteak beste.

Helburuak

- Lurralde ikuspegiko lana bateratu eta indartu.
- EGKko lan arloetako proiektuetan lurralde historikoekiko eta bakoitzaren errealitatearen ezagutza erabili hauen arrakasta bermatzeko.
- Lurralde mailan lan egiten duten era guztietako eragileentzako erreferentziazko eragilea izan.



Ekintzak eta epeak

- a) Lurraldeko koordinazio bilerak: hilean behin, hiru lurraldetako koordinatzaileek bilerak burutzen dituzte, lurralde ezberdinetan bilera bakoitzeko. Eredu bakoitzeko koordinazio lanaren berri eman, lurraldeko errealitatearen berri izan, lanerako irizpideak zehaztu.....
- b) Lan arloetako teknikoekin elkarlana.
- d) Jarraipen txostena: Hilabeteko jarraipen eta informazio txostena egin.
- e) Urteko plangintza eta ebaluaketa memoria egin.

Hilabetea	Ekintza			
Urtarrila	A	B	D	E
Otsaila	A	B	D	E
Martxoa	A	B	D	E
Apirila	A	B	D	E
Maiatza	A	B	D	E
Ekaina	A	B	D	E
Uztaila			D	E
Abuztua			D	E
Iraila	A	B	D	E
Urria	A	B	D	E
Azaroa	A	B	D	E
Abendua	A	B	D	E

Hartzaileak

- EGKko lantalde teknikoa
- EGKko EAEko elkarteak
- EAEko beste gazte eragileak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urte osoan zehar, arlo ezberdinetako arduradunekin elkarlanean, hauek burutu behar zituzten dinamika, tailer, ihardunaldi etab.entzat laguntza zuzena eskaini da koordinatzaile lanpostutik, GAZTeazAROA deituriko programaren barruan edota gainontzeko arloetan zeuden proposamenak aurrera eramanez. Bilera kopurua: 8

***Atal honen zehaztapenetarako, ikus gainontzeko arloetan aurrikusitako ekintza eta proiektuak eta haien kronogramak-jarraipenak.**



5.6 Egunerokotasuna

Deskribapena

Lurraldeko erreferentziazko bulegoan lanean aritzeak ardura asko exigitzen ditu EGKren egitasmo zehatzekin lotuta ez daudenak, baina guztiz ezinbestekoak direnak eta denbora eskatzen dutenak:

- A. Telefonoari arreta eta bideratzeak.
- B. Hurbiltzen denari arreta eta bideratze zerbitzuak eskaini.
- C. Material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu.
- D. Oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu.
- E. Informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu.
- F. Agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

- Egoitzen funtzionamendu egokia bermatu
- Egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu
- Bakoitzari dagozkion ardurak bete.

Ekintzak eta epeak (kronograma)

- Telefonoa jaso eta deribatu
- Korreoak jaso eta bidali
- Hurbiltzen direnei arreta eta zerbitzua eskaini
- Bulego materialen egoera aztertu eta erosketa eskariak bideratu

Hilabetea	Ekintza			
Urtarrila	A	B	C	D
Otsaila	A	B	C	D
Martxoa	A	B	C	D
Apirila	A	B	C	D
Maiatza	A	B	C	D
Ekaina	A	B	C	D
Uztaila	A	B	C	D
Abuztua	A	B	C	D
Iraila	A	B	C	D
Urria	A	B	C	D
Azaroa	A	B	C	D
Abendua	A	B	C	D



Hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGKko elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urtero bezala, iraunkorra den lan honek eskatzen dituen eginbeharrak, behar bezala bete dira, garaiaren arabera edota lankide kopuruaren arabera ordu kopurua ere aldatzen delarik. Horrekin batera, egunerokotasuneko lana hobetzeko zenbait egokitzapen burutzeko beharra ikusi da aurtien: Datu basea komunean antolatzekeo erremintaren bat bilatzekoa edota EGKko azpiegituren erabilera zabaldu eta arautzearena besteak beste.

Jarraipena eta ebaluaketa

2011an lan koordinatu bat burutzea ezinbestekoa izaten jarraitu da, arlokako teknikarien lanak ahalik eta fruitu handienak jaso ditzan.

Horregatik eta beste hainbat gauzengatik 2012. urteari begira, lurraldeetako koordinatzaileen lana herrialdean (Araban, Gipuzkoan zein Bizkaian ematen diren errealitate desberdinen gaineko ezagutza izatea denez), horretan jarraituko dute. Koordinatzaileen ikuspuntua, hortaz, aberasgarri izaten da arloka lan egiten duten beste teknikarientzat. Hortaz, 2012an ere lurralde historiko bakoitzari ahalik eta hoberen txertatzeko arlokako teknikariekin zuzenean lan egingo da, lurralde bakoitzeko berezitasun eta ñabardurak kontutan hartuz.



5.7 EGKren 25. URTEURRENA: GAZTeazAROA

• Aurkezpen ekitaldia

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 25 urte bete ditu aurtengo maiatzean, 1986. urtean gazte-elkarte plataforma bezala gorpuztu zenetik. Urteotan Gazte eragileekin eta Elkarrekin eginiko sare lanak, Gazte mugimenduak lotu, zubiak eraiki zein eskubide sozialak aldarrikatzeko balio izan du.

Urteurrena ospatzeko, GAZTeazAROA egitaraua prestatu da: alegia, Donostian, Gasteizen eta Bilbon burutu diren jardueraz beteriko egutegi bat izan da.

GAZTeazAROA ekintza-egutegia, gazte elkarten plataformak, enplegua, komunikabideak eta boluntarioritza bezalako gaiak landu diren jardunaldi eta topaketak antolatu dira.



Azaroaren 2an eman zitzaion hasiera GAZTeazAROAri, **Gasteizko** Alde Zaharreko Bibat museoan ospatu zen **aurkezpen ekitaldia** batekin. Lehendabiziko aldia izan da EGKren eskutik Gasteizen honelako ekitaldi bat antolatzen zela. Bidean, EGKri gauza ugari ikasteko balio izan zaio. Hurrengoko ekitaldietarako esperientziak kontatuko du, den dena hobeto irtenaz.

Ekitaldi egunean bertan, gazte- elkarteak, gazteria teknikariak eta udaletxetako, aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bildu zituzten. Hitzorduan Oreka Tx taldea egon zen, Nomadak Tx espektakulua eskaintzen.

Gipuzkoarekiko apustu estrategikoa egin da baita. Gipuzkoan EGK ezagutarazi nahi zen eta, horregatik, ekintza adierazgarrienetakoak Donostian ospatu ziren. Lau zehazki:

- DOT hirigintzaren jardunaldiak (CRAJ, Donostia)
- Generoaren inguruko jardunaldiak (Zurriolako hondartza, Donostia)
- Argazki lehiaketaren aurkezpena (Guardetxean, Donostia)

Hilabeteari agur esateko: Kortxoenea Gaztetxean (Donostia - Gros) antolatutako kontzertuak ospatu ziren.





6. PRESIDENTZIA

a) BARNE KOORDINAZIOA

6.1 BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki organoa da, 11 pertsonen osatutakoa. 2 urtean behin hautatzen dira pertsona hauek Batzar Orokorrean, EGKko kide diren elkarteek aurkeztutako hautagaien artean.

2011ko martxoan ospatutako Batzar Orokorrean Batzorde Iraunkor berria hautatu zen. 2011n beraz 2 Batzorde Iraunkor desberdin aritu dira lanean Kontseiluan, bata martxora arte eta bestea martxotik aurrera.

Presidentziatik EGK-ko Batzorde Iraunkorraren koordinazio eta dinamizazio lana egin da. Erabaki-organo hau gutxienez bi astetan behin bildu da (opor garaian ezezik) Kontseiluaren eguneroko lanaren gainean egoteko eta momentuko gai garrantzitsuen inguruan erabakiak hartzeko.

Honetaz gain, Lan Talde Teknikoarekin batera 2 bilera egin dira urte amaiera aldean, elkar ezagutzeko, koordinazioaren inguruko gai batzuk eztabaidatzeko eta EGKren egoera ekonomiko larriaren gainean hartu beharreko neurriak adosteko.

Bestalde, Presidentziatik Batzorde Iraunkorra gai guztien inguruan jakinaren gainean mantentzeko lana egin da baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Batzorde Iraunkorraren egituraketa dela eta, partaide gehienak bizkaitarrak direla ikusita bilera guzti hauek Bilbon egin dira.

6.2 LAN TALDE TEKNIKOA

Lan Talde Teknikoan aurten hainbat aldaketa eman dira, lanean zihardutenek lanpostua utzi dutelako edota gaixotasun-bajak zirela eta, lanpostuak betetzeko. Teknikari berrien hautaketa prozesuak presidentziatik gidatu dira, beste teknikari batzuen laguntzaz. Hautaketa prozesu hauek Kontseiluaren lana neurri batean moteldu duten arren, EGK indartzeko eta freskotasuna emateko onuragarriak dira.

Presidentziatik eta idazkaritza/administrazioaren laguntzaz, Kontseiluko Lan Talde Teknikoaren barne koordinazioa eraman da aurrera. Izan ere, EGKren egoera ekonomiko larria dela eta Arloetako Koordinatzaile lanpostua betetzeko ezin izan da inor kontratatu eta bi langile hauen artean (presidentea eta idazkaria) banatu da lanpostu honen lan-karga.

Lan Talde Teknikoa gutxienez hilean behin bildu da (opor garaian ez ezik) lan arlo bakoitzean lantzen ari zena eta landuko zena jakinarazi, elkarren artean koordinatu eta erabakiak hartzeko. Deialdiak egin, gaiordenak prestatu eta aktak jasotzeko lana presidentziatik egin da.

Honetaz gain eta 6.1 atalean adierazi bezala, urte amaiera aldean 2 bilera egin dira Batzorde Iraunkorrarekin, jada azaldutako gaiak lantzeko.



Lan Talde Teknikoarekin egindako 3 bileretatik 1 Bilbon egin da, lurraldetasuna era orekatuan mantendu ahal izateko. Batzorde Iraunkorrarekin batera egindako 2 bilerak Bilbon izan dira baita ere.

6.3 BATZORDE EKONOMIKOA

Presidenteak, idazkariarekin eta diruzainarekin batera Batzorde Ekonomikoa osatzen du, Kontseiluaren ekonomiaren gainean dagoen lan taldea. Gutxienez hilean behin bildu da Batzorde Ekonomikoa diru kontuak eguneratuta mantentzeko eta gainontzeko organoak (Batzorde Iraunkorra eta Lan Talde Teknikoa) jakinaren gainean mantentzeko.

Martxoan ospatutako Batzar Orokorrean diruzainak justifikazio ekonomikoa aurkeztu zuen Batzorde honen izenean.

Urte amaiera aldean bilera bereziak egin ditu Batzorde honek, 2012rako Jaurlaritzatik eta Legebiltzarretik proposatutako murrizketen aurrean hartu beharreko neurriak eztabaidatzeko eta aurrekontu berria koadratzen saiatzeko.

Batzorde Ekonomikoa beti Bilboko egoitzan bildu izan da, eguneroko administrazio lanak eramaten dituen pertsona, eta ondorioz dokumentazio guztia eta datu informatizatuak, bertan baitaude.

6.4 EGKko BATZAR OROKORRA

2011ko martxoaren 19an egindako Batzar Orokorraren prestaketa, deialdia eta dinamizazioa presidentziatik zuzendu ziren, teknikarien eta Batzorde Iraunkorraren laguntzaz. Gainera aldez aurretik lurraldeka egiten diren prestaketa bilerak ere koordinatu eta dinamizatu ziren arlo honetatik.

Batzarrean bertan dinamizazio eta moderazio lanak egiteaz gain, presidenteak urteko memoria eta hurrengo urterako plangintza aurkeztu zituen.

Batzarra Bilbon ospatu zen, Bolunta-ren egoitzan.



b) ERAKUNDE GARAPENA

6.5 “INDARTZEN” PROZESUA

Martxoan ospatutako Batzar Orokorrean EGK birdefinitu eta birrestrukturatzeko “Indartzen” prozesua martxan jartzea adostu zen, batzarrean aurkeztu ziren hainbat proposamenen harira. Hala, Kontseilu ereduaren inguruko hausnarketa eta birdefinizioa martxan jarri zen Kontseilukide diren hainbat teknikari eta elkarteetako kideekin. Presidentziak Batzorde Iraunkorra ordezkatzeko ardura hartu zuen prozesu honen baitan.

Hala, urtean zehar Batzorde Iraunkorraren eta prozesu honetako lan taldearen arteko zubi lana egin du. Hala ere, prozesua geratuta egon da hilabete batzuetan EGKtik kanpoko arazoak zirela medio, eta berriro martxan jarri eta ardurak eskatzeko lana bere gain hartu du presidentziak.

Indartzen prozesuko bilera guztiak Bilboko egoitzak egin dira.

6.6 EBALUAZIOA ETA PLANGINTZA

Presidentziazatik koordinatu da urteko memoria egin eta egindakoaren ebaluazioa aurrera ateratzeko lana, bai Lan Talde Teknikoarekin eta baita Batzorde Iraunkorrarekin ere. Honetaz gain, hurrengo urterako plangintzaren bateratzea eta koordinatzea ere arlo honetatik bideratu da.

Honetarako bi organoekin (Batzorde Iraunkorra eta Lan Talde Teknikoa) mantentzen diren ohiko bilerak baliatu dira. Gainera, e-posta eta ftp zerbitzari bat erabili presidentea arduratu da dokumentu guztiak bateratu eta formatua emateaz.

6.7 IRUDI PUBLIKOA

Presidentziazatik medioen aurrean hainbat agerpen egin dira gai desberdinak jorratzeko. Prentsa idatzian, irratan eta telebistaz azaltzeaz gain, hainbat iritzi artikulua eta erreportaje ere idatzi dira gazteriarekin zerikusia duten gaien inguruan.

Puntu hau 4. KOMUNIKAZIOA atalean azaltzen da era zabalagoan.

6.8 LOKARRIREKIN ELKARLANA

Aurten EGK eta Lokarri sarearen artean orain artekoa baina harreman sendoagoa sortu da. Hala, bakea lan arlo moduan hartuta, alderdi politikoen gazteria sailen arteko lan taldea sortzeko saiakerak egin dira bi erakundeen aldetik. Azkenik, urte amaieran eman ditu bere fruituak, Belfastara egindako bidaia medio. Ipar Irlandara Lokarriko ordezkariak, EGKko presidentea eta hainbat gazteria politikoetako ordezkariak (Alternatiba, Iratzarri, Gazte Abertzaleak, Gazte Independentistak, Juventudes Socialistas de Euskadi eta EAJ) joan ziren bake prozesuari buruz hitz egitera. Bidaia honen ostean lan taldea eratu da (Oinatzak izena jarri zaiona), hara joandako ordezkarien artean, gerora begira erakunde gehiagori irekitzeko asmoa dagoena. Ordezkaritza lan hau momentuz presidentziazatik bideratzen ari da EGKren kasuan. Bilera gehienak Bilbon egin dira, Lokarriren egoitzan.



d) ERAKUNDEEKIKO ELKARLANA

6.9 LEGEBILTZARRA

Martxoko Batzarraren ostean, EGKren asmo eta lan-ildoen berri eman zitzaion Gazteria eta Kultura Batzordeari, Legebiltzarrean. Honetaz gain, Gazteen Euskal Legearen aurreproiektu zirriborroari EGKtik egindako ekarpenak ere aurkeztu zituen batzorde beraren aurrean. Bestalde, zenbait legebiltzarkiderekin bilerak mantendu ditu EGKren egoeraren inguruan hausnartzeko.

6.10 JAURLARITZA

Gazteria Zuzendariarekin bildu da hainbatetan presidentea, Gazteen Euskal Legearen zirriborroaren inguruan hitz egiteko, elkarlan bideak aurkitzeko, aurrekontuen gainean eztabaidatzeko eta baita bilera informatiboak egiteko ere.

Honetaz gain, kontaktua mantendu da telefono eta e-posta bidez Gazteria Zuzendaritzarekin.

6.11 ALDUNDIAK

Alde batetik, hauteskunderen ostean, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiekin aurkezpen bilerak egin zituen presidentea, Gazteria sailetako zuzendari berriak ezagutzeko. Bizkaiarekin ez zen beharrik egon, zuzendari bera mantendu baitzen.

EGKk erakunde hauekin dituen hitzarmenen inguruan eztabaidatzeko ere bildu da urtean zehar presidentea aldundiekin harremanetan, hauek berritzeko asmotan hainbat aldaketa hausnartu eta adosteko.



7.- EGK-KO 2011ko MEMORIA EKONOMIKOA

7.1 2011. URTERAKO ONARTUTAKO AURREKONTUA

EGK-KO 2011RAKO ONARTUTAKO AURREKONTUA

SARRERAK		
EUSKO JAURLARITZA		271.284,00 €
Euskao Jaurlaritza. Zuzenekoa	265.284,00 €	
Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoa. Inbertsioak	6.000,00 €	
ALDUNDIAK		76.134,28 €
Bizkaiko Foru Aldundia. Gazteria	42.000,00 €	
Gipuzkoako Foru Aldundia Gazteria	28.134,28 €	
Arabako Foru Aldundia. Gazteria	6.000,00 €	
INGRESOS PROPIOS		34.227,57 €
Finantziar Ondasunak	500,00 €	
Foroetan, kurtsoetan, partehartzeagatik dirusarrerak	1.000,00 €	
2011 urteko kontseilukideen kuotak	5.000,00 €	
Eusko Jaurlaritza. (Gazte Txartelako publizitatea)	3.000,00 €	
Aurreko urteetako soberakina	24.727,57 €	
GUZTIRA		381.645,85 €

1.- OROKORRAK	134.519,71 €
1.1. LANGILE OROKORRAK	100.419,71 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)	34.831,51 €
26.367,51 € Soldata gordina	
8.464,00 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Administrarritza	43.547,13 €
33.267,43 € Soldata gordina	
10.279,70 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Garbiketa Zerbitzua	8.256,68 €
Bizkaia	4.498,88 €
3.362,39 € Soldata gordina	
1.136,49 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Gipuzkoa	2.591,28 €
Araba	1.166,52 €
Arlo Teknikoen Koordinazioa (1/2 lanaldia)	13.784,39 €
10.385,74 € Soldata gordina	
3.398,65 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA	34.100,00 €
Kopiagintzak	1.500,00 €
Bidalketak	100,00 €
Bulego materiala eta informatika	700,00 €
Telefonia, faxa eta internet	5.000,00 €
Konponketak eta mantenua	5.000,00 €
Horniketak	5.700,00 €
Gestoritzak	3.100,00 €
Bestelakorik	200,00 €
Langileen osasunaren zainketa	1.000,00 €
Inbertzioak	6.000,00 €
Batzorde Iraunkorra	2.200,00 €
Batzorde Teknikoa eta barne koordinazioa	1.700,00 €
Harpidetzak	400,00 €
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak	500,00 €
EGK-ko batzarrak	400,00 €
Batzorde Teknikorako formakuntza	600,00 €



2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK	247.126,14 €
2.1 LURRALDEETAKO KOORDINAZIOA	101.778,66 €
Gipuzkoako koordinazioa	32.552,77 €
24.642,53 € Soldata gordina	
7.910,24 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Arabako Koordinazioa	34.547,85 €
27.381,30 € Soldata gordina	
7.166,55 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Bizkaiko koordinazioa	32.528,04 €
24.609,45 € Sueldo bruto	
7.918,59 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	2.150,00 €
	53.064,38 €
Komunikazio teknikaria	30.564,38 €
23.102,34 € Soldata gordina	
7.462,04 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	22.500,00 €
2.3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK	20.052,56 €
Justizia eta Berdintasunerako teknikaria (1/2 lanaldia)	16.399,72 €
12.321,34 € Soldata gordina	
4.078,38 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	1.000,00 €
Lankidetzarako Garapena	2.652,84 €
2.4. BIZI BALDINTZA MATERIALAK	35.552,77 €
Bizi Baldintza materialetarako teknikaria	32.552,77 €
24.642,53 € Soldata gordina	
7.910,24 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	3.000,00 €
2.5. HEZKUNTZA	36.677,77 €
Hezkuntzarako teknikaria	32.552,77 €
24.642,53 € Soldata gordina	
7.910,24 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	4.125,00 €
GUZTIRA	381.645,85 €



7.2 KONTROL EKONOMIKORAKO BATZORDEA (BARRUKO AUDITOREAK)

KONTROL EKONOMIKORAKO BATZORDEA

Bilbon 2011ko Otsailaren 20an Suberri Pascual 2011 urterako EGK-ko barne auditorea, bilduta eta EGK-ko aurrekontua eta balantzeari ikusi eta gero, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak aurkeztutako 2011 urteko balantze ekonomikoari bere onarpena ematen dio.

SUBERRI PASCUAL

